

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **19/2016 Foru Araua, abenduaren 23koa, Arabako zerga sistemako hainbat foru arau aldatzen dituen**

Arabako Batzar Nagusiek, 2016ko abenduaren 23an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

19/2016 Foru Araua, abenduaren 23koa, Arabako zerga sistemako hainbat foru arau aldatzen dituen

#### ZIOEN ADIERAZPENA

I. Foru arau honek lau titulu dauzka. Lehenengoan Arabako Zergen Foru Arau Orokorra aldatzen da. Bigarrenean zerga taldeei buruzko arau batzuk aldatzen dira. Hirugarrenean Arabako zerga sistemako zerga batzuen foru arauak aldatzen dira. Azkenik, laugarrenean neurri batzuk ezartzen dira langileek enpresaren partaidetza edukitzea sustatzeko.

II. Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean egindako aldaketa gehienek helburua zerga iruzurraren kontrako borroka indartzea da. Hauexek dira neurri garrantzitsuenak:

- Oro har, Administrazioak egiaztatzeko eta ikertzeko daukan eskubidea ez da preskribatuko. Gainera, oinarriak, kuotak edo aplikatu gabeko kenkariak egiaztatzeko prozedura hasteko eskubidea 20 urte pasatutakoan preskribatuko da.

- Hainbat ondorio ezartzen dira lotuta dauden zerga betebeharren artean, hau da, beste betebeharrak edo zergaldi batzuen eraginpean dauden elementuak dauzkaten betebeharren artean, preskripzioa, besteak beste.

- Zerga delituen espedienteetan ezartzen diren kautelazko neurrien iraupena luzatzen da.

- Aurrerantzean fakturak ez dira lehenetsiko eragiketarak frogatzeko; horrenbestez, Administrazioak zalantzan jartzen badu eragiketaren bat egin denik, interesdunak eragiketa benetan egin duela frogatu beharko du.

- Ikuskatzeko prozeduraren iraupen orokorra 12 hiletik 18ra luzatzen da.

Hona Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean egindako beste aldaketa aipagarri batzuk: Zehapenak barkatzeko eskumena Batzar Nagusietan ezartzen da.

- Zehapenak barkatzeko eskumena Batzar Nagusietan ezartzen da.

- Zergen arloa ukitzen duten Estatuaren laguntzak berreskuratzeko prozedura arautzen da.

Arau haustek eta zehapenak direla eta, itzurpenaren aurkako klausularen aplikazioan gerta daitekeen arau hauste berri bat arautzen da eta kontabilitateko eta erregistroko betebeharrak ez betetzeagatik ezarriko diren zehapenen zenbatekoak gehitzen dira.

Azkenik, zehatz-mehatz arautzen da nola jardun behar den zergen arloko delitu bat gertatzen denean. Besteak beste, aipatzen da agintaritza eskudunari ustezko zerga delitu baten berri emateak ez duela eragozten Administrazioak likidazioa egitea eta dirua biltzea, nahiz neta zigor prozesua amaitu gabe egon.

III. Ekonomia Itunak 20. artikuluan zerga taldeez ezartzen du lurralde erkidean une bakoitzean indarrean dagoen araudia aplikatuko dela ondoko hauek definitzeko: zerga taldea, sozietate nagusia, mendeko sozietatea, mendekotasun gradua eta talde barruko eragiketak.

Zerga honen araudia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren azken jurisprudentziara moldatu beharrak eraginda, azaroaren 27ko 27/2014 Legeak, sozietateen gaineko zergarenak, berrikuntzak sartu zituen zerga taldeen baterakuntza perimetroan (hau da, zerga taldeen araubide berezia hautatuz gero, zerga taldean sartu beharreko entitateen zerrendari dago-kionez), eta berrikuntza horiek nahitaez sartu behar dira Arabako Lurralde Historikoko zerga araudian.

Martxoaren 10eko 1/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak aldaketa garrantzitsuenak sartu zituen Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauan. Foru arau honen bidez moldatu gabeko beste aldaketa batzuk sartzen dira.

Funtsean, bi berrikuntza daude zerga taldeen baterakuntza perimetroaren konfigurazioan. Batetik, zerga talde batean sartzea taldekoa ez den entitate baten bitartez zeharkako partaidetza hartutako entitatea, esaterako, egoitza Espainiako lurraldean ez duten entitateak edo egoitza Espainiako lurraldean eduki arren egoitza bertan ez daukan batek partaidetza hartutako entitateak. bestetik, zerga baterakuntzaren araubidea hautatu ahal izatea egoitza Espainiako lurraldean duten entitate guztiek, mendekotzat hartzeko ezarritako baldintza guztiak betez gero, baldin eta haietan zuzeneko zein zeharkako partaidetza badauka egoitza Espainiako lurraldean ez daukan sozietate nagusi berak.

Bigarren aukera hori osatzeko, Sozietateen gaineko zergaren Legeak xedatzen zuen zerga tratamendu bera edukiko zutela entitate nagusiak, Ekonomia Itunaren arabera sozietateen gaineko zergaren ordainketarako foru araudia aplikatzen zaionak, egoitza Espainiako lurraldean daukan zerga taldeek eta entitate nagusiak egoitza Espainiako lurraldean ez daukan zerga taldeek.

Elkarrekikotasunari eutsita, Martxoaren 10eko 1/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak xedapen gehigarri berria sartu zuen Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauan. Xedapen horretan multzo berean sartzen dira entitate nagusiak, sozietateen gaineko zergaren ordainketarako araubide erkideko araudia aplikatzen zaionak, egoitza Espainiako lurraldean daukan zerga taldeak eta entitate nagusiaren egoitza Espainiako lurraldean ez dagoen zerga taldeak.

Beste alde batetik, 2015eko urtarrilaren 1az geroztik sortutako zerga talde foral berriak direla eta, araudien arteko eta ikuskapenaren inguruko loturak zehaztu behar dira, eskumenak hiru lurralde historikoen artean banatzeko. Zerga talde horietako kideak hiru lurralde historikoetako sozietateen gaineko zergaren araudiei lotutako mendeko entitateak dira, hain zuzen ere entitate nagusia (egoiliarra ez dena edo lurralde erkideko araudiari lotuta dagoena) baterakuntza perimetrotik kanpo geratzen den entitateak. Hori dela eta, bi eskumenak aurreko ekitaldian eragiketa bolumenik handiena eduki duen taldeko entitatearen arabekoak izango dira. Aurrekoa gorabehera, foru arau honetan zergen aplikazio eremu foralaz ezartzen diren ondorioak zerga talde berriei soilik aplikatuko zaizkie. Hori dela eta, hauexek izango dira zerga talde berriak zerga baterakuntzarako: xedapen orokor hau indarrean jartzen denetik aurrera eratzen diren zerga taldeak.

Halaber, kasu hauetan, zerga betebeharrak materialak eta formalak betetzea dela eta, arautzen da zer entitate izango den zerga taldearen ordezkaria eta zein izango diren beraren irismena eta ondorioak talde berrien zerga baterakuntzaren araubidean.

Gainera, enpresen kapitalizazioa sustatzeko konpentsazioa aplikatzea dela eta, ezinbestekoa da aldatzea ondare garbiaren gehikuntza kalkulatzeko erreferentziatzat hartuko den aldia; horrez gainera, zehaztu behar da zer tratamendu aplikatuko den zerga taldearen zerga oinarria kalkulatzeko sartu den entitate berriak kontabilitateko emaitzan zuzenketaren bat aplikatu badu eta Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauko 51., 52. eta 53. artikuluetan xedatzen denaren arabera aplikatu gabeko kenkaririk, zerga oinarri gehikuntzik edo gauzatu gabeko inbertsiorik badauka.

IV. Foru arau honetako III. tituluan Arabako zerga sistema hainbat zerga aldatzen dira.

Lehenbizi pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arloko neurriak azalduko ditugu.

Hainbat aldaketa sartzen dira salbuespenetan. Familia prestazioak direla eta, salbuespen egongo dira Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginean arautzen diren prestazio batzuk, minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeko prestazioak, hain zuzen. Halaber, bi salbuespen gehitzen dira: banku fundazioek hezkuntza sistemako maila eta gradu guztietan, Espainian zein atzerrian, ikasketak burutzeko ematen dituzten beka; banku fundazioek urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuak, ikertzaileen estatutua onartzen duenak, ezartzen den eremuan ikertzeko ematen dituzten beka eta fundazio horiek herri administrazioen zerbitzuko langileei eta unibertsitateetako irakasleei eta ikertzaileei ikerketetarako ematen dizkietenak.

Langabezia prestazio bakarraren salbuespena aplikatzeko ez da izango beharrezkoa jarduera ekonomikoa bost urtez mantentzea honako kasu honetan: baldintza konkurtso prozedura baten ondorioz betetzen ez denean. Gainera, salbuespen hau aplikatuko zaie desegintzat jotako kooperatiben bazkide langileei eta lan bazkideei behin betiko birkokatzeke ematen zaizkien diru laguntzei ere.

Kapital soziala murriztu eta ekarpenak itzultzen direnean eta akzio jaulkipeneko prima banatzen denean aplikatzen den zerga tratamendua berrikusi da, entitateak partaidetza eduki duen aldiaren sortutako erreserbei dagokien zatiaren gaineko karga erreserbak zuzenean banatuz gero jasango zenaren antzekoa izan dadin.

Ondare irabazi-galerak hizpide hartuta, etorkizunerako aurrezpena sustatu nahi da, eta horretarako zerga pizgarria ezartzen da bermatutako biziarteko errentak eratzten dituzten 65 urtetik gorako pertsonentzat: ondare elementuak eskualdatuta lortzen den ondare irabazia ez da kontua edukiko, baldin eta eskualdaketa bidez lortutako zenbatekoa halako errenta bat eratzeko erabiltzen bada.

Errentak nazioarteko zerga gardentasunaren araubidean esleitzeari dagokionez, araubide hori aplikatzeko baldintzak gogortu dira, pertsona juridikoen tributaziorako xedatzen denarekin bat etorriz eta Ekonomia Lankidetzako eta Garapeneko Erakundearen azken lanak aintzat hartuz. Aldi egozpena dela eta, dirulaguntza publikoen ondoriozko ondare irabaziaren inguruko irizpidea zehazten da.

Azkenik, sozietate zibilak direla eta, azaroaren 27ko 27/2014 Legeak, sozietateen gaineko zergarenak, ezartzen du 2016ko urtarrilaren 1az gero zerga horren zergadun direla merkataritzako xedea duten sozietate zibilak. Ondorioz, azaroaren 28ko 35/2006 Legea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena eta partzialki aldatzen dituen Sozietateen gaineko zergaren Legea, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Legea eta Ondarearen gaineko zergaren Legea, moldatzen da eta egun horretatik aurrera errentak esleitzeko araubidea ez zaie aplikatuko sozietate zibili horietako bazkideei, eta horrela bi zergen erregulazioa bateratuko da. Arabako araudian ez da aldatzen merkataritzako xedea duten sozietate zibilen tratamendua eta, beraz, haien errentei errentak esleitzeko araubidea aplikatuko zaie, lehen bezala. Hala ere, ezin da alde batera utzi balitekeela Arabako zergadun batzuk (pertsona fisikoak zein juridikoak) Sozietateen gaineko zergaren araubide erkidearen Legearen mendeko sozietate zibiletako bazkideak izatea. Horregatik, haien tributazio araubidea ezartzen da, bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarako, bai sozietateen gaineko zergarako, eta errentak esleitzeko araubidea aplikatu beharretik salbuesten dira. Gainera, zerga tratamendu berezia ezartzen da sozietate zibilek lortzen dituzten errenta positiboak esleitzeko, eta bertan berariazko neurriak ezartzen dira zergapetze bikoitza saihesteko.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, neurri berriak ezartzen dira zerga iruzurraren kontrako borroka errazteko, bai barruan, bai nazioarteko zergak kontuan hartuz. Hain zuzen ere, eremu honetan Ekonomia Lankidetzako eta Garapeneko Erakundeak egin dituen azken lanak

(“BEPS”; zerga oinarriaren jaitsieraren eta onuren lekualdaketaren kontrako planean gauzatu direnak) funtsezko tresnak dira nazioarteko zerga iruzurra detektatzeko eta beraren kontra jotzeko. Horren ildotik, foru arau honetan helburu hori lortzeko neurriak ezartzen dira: nazioarteko zerga gardentasunaren arloan egiten diren aldaketak (pertsona fisikoak zein juridikoak) eta lotutako eragiketeei dagokienez egiten direnak.

Lotutako eragiketen araubidea lehenago ere goitik behera aldatu zen; aldaketaren funtsezko berrikuntza izan zen dokumentazio betebeharrak bereziak ezarri zirela halako eragiketetarako. Beste alde batetik, lotutako eragiketen zerga tratamendua oso garrantzitsua da nazioartean, eta Europar Batasunak zein ELGak gogotik jarduten dute beraren analisian. Horren ildotik, kontuan eduki behar da Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauan horretaz ezartzen diren manuen interpretaziorako aintzat hartu behar direla ELGak transferentzia prezioez emandako gidalerroak eta Europar Batasunaren Transferentzia Prezioen Baterako Foroaren gomendioak.

Dokumentazio betebeharrak ari garela, foru arau honetan ELGaren aspaldiko ondorioak txertatzen dira, batez ere BEPS planeko 13. ekintzan lotutako entitate eta eragiketen informazioaz eta dokumentazioaz ezartzen direnak. Horregatik, berrikuntza hau sartzen da: herrialdeka xehatutako informazioa; horren bidez merkataritza taldeen transferentzia prezioen politiken arriskuak ebaluatu ahal izango dira, eta Zerga Administrazioak inolaz ere ezin izango du erabili oinarritzat prezioak doitzeko. Informazio hori 2016tik aurrera eskatu ahal izango da, ELGak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Beste berrikuntza bat lotura perimetroa murriztea da. Hain zuzen ere, geroz eta beharrezkoa da bazkidea-sozietatea erlazioan gertatzen diren lotura kasuak murriztea; foru arau honetan ehuneko 25eko partaidetza finkatzen da.

Beste alde batetik, eragiketak baloratzeko metodoez denaz bezainbatean, zergaren araudian lotutako eragiketen merkatuko balioa zehazteko ezartzen diren metodoez gainera baloraziorako beste metodo eta irizpide batzuk ere onartzen dira, ordezko gisa, lehia askearen printzipioa errespetatuz gero.

Sozietateen gaineko zergan egiten den beste aldaketa baten eragilea inbertsiogile jakin batzuek finantza eta zerga etekin justifikaezinak lortzea izan da. Ekonomia intereseko taldeen bitartez gauzatzen diren zerga egitura jakin batzuen aplikazioan abusurik gerta ez dadin, kasu batzuetan muga ezartzen zaie zerga oinarri negatiboei eta kuotako kenkariei: kontabilitate irizpideen arabera bazkideek ekonomia intereseko taldera egindako ekarpenak ezaugarri bereziko ondare tresnatzat jo behar direnean. Oinarri negatiboen eta kenkarien egozketa mugatzeko erregela berria Arabako Lurralde Historikoko foru araudiaren mendean ez dauden ekonomia intereseko taldeetako bazkideei ere aplikatuko zaie. Horrela zerga tratamendu bera jasoko dute Arabako araudia aplikatzen zaien zergadun guztiek. Aurreko osatzeko, finantza eta zerga errenta hori bazkideei egozteko erregelak ezartzen dira.

Orobat, kooperatiben zerga araubidean zein irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubidean, zerga pizgarrien erregulazioa osatzen da, Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauan ezartzen den autolikidazioa aurkeztean egin behar diren hautapenen araubidera moldatzeko.

Gainera, lehentasuneko partaidetzen zerga araubidea eguneratzen da (araubide hori 2/2004 Foru Arauak ezarri zuen) ekainaren 26ko 10/2014 Legeak, kreditu entitateen antolamenduari, gainikuspenari eta kaudimenari buruzkoak, egindako aldaketen ondorioz. Horren ildotik, zerga araubidea aplikatu dezaketen jaulkitzaileen kopurua gehitzen da eta zehaztapen tekniko garrantzitsuak egiten dira (garrantzitsuena: zerga araubidea aplikatu ahal izateko baloreek zer merkatutan kotizatu behar duten zehazten da). Jaulkitzaileen eremu subjektiboa handitzeak berekin ekarriko du zerga araubide hau aplikatu ahal izatea egoitza Espainian duten sozietate guztiek zein Espainiako enpresa entitate publikoek jaulkitzen dituzten zor tresnei.

V. Egungo egoera ekonomikoan administrazio publiko guztiek aurre egin beharreko erronketetako bat ekoizpen sarea enpresen inbertsioak sustatuz bultzatzea da.

Beste alde batetik, globalizazio ekonomikoan bizi garenez gero, oso onuragarriak dira enpresek inbertsioak konprometitutako pertsonen haietan egiten dituzten inbertsioak.

Argi dago enpresa batekin konpromiso sendoena duten pertsonetako batzuk bertan lan egiten dutenak direla.

Azaldutako guztiagatik aldaketa batzuk sartzen dira zerga sisteman langileentzat errazagoa izan dadin beren enpresetan partaidetza edukitzea. Gainera, enpresak finantzatzeko bide honek aukera ematen die langileei parte hartzeko beren enpresen kudeaketan eta erabaki estrategikoak hartzen, eta hori, funtsean, onuragarria da enpresa proiekturako.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian badaude pizgarri batzuk langileek beren enpresetan partaidetza edukitzea sustatzeko.

Foru arau honek pizgarri horiek gehitzen ditu.

Hain zuzen ere, enpresaburu eskualdatzaileek lortzen dituzten ondare irabaziaz ez kargatzeko ezartzen diren betebeharrak batzuk malgutuz da, eskualdatzailearen adina: oraindik aurrera, zerga neurri honi heldu ahal izateko ez dira eduki beharko hirurogeita bost urte gutxienez, baizik eta hirurogei. Malgutze hau familia barruko enpresa oinordetzan txertatu da.

Halaber, aukera ematen da eskuraketa egiteko partaidetza guztiak entitate eskualdatzaileko langileenak diren entitateen bitartez.

Langileek enpresan partaidetza edukitzeagatik ematen den kenkaria dela eta, berrikuntza hauek aipatu behar dira:

- Kenkaria ehuneko 10etik 15era igotzen da gizonen kasuan eta ehuneko 10etik 20ra emakumeen kasuan.

- Urteko muga, 1.200 eurokoa zena, 1.500 eurokoa izango da aurrerantzean, eskuratzailerak gizonetako izanez gero, edo 2.000 eurokoa, emakumeetako izanez gero.

- Urteko muga gainditzeagatik edo kuota osoa nahikoa ez delako kentzen ez diren zenbatekoak hurrengo lau ekitaldietan aplikatu ahal izango dira.

- Zergadun bakoitzak zergaldietan zehar aplikatzen dituen kenkarien batura ezin da izan 6.000 euro baino gehiago, eskuratzailerak gizonetako izanez gero, edo 8.000 euro baino gehiago, emakumeetako izanez gero.

Beste alde batetik, honekin lotutako beste neurri batzuk ezartzen dira:

- Langileei zerbait kostu bidez eskualdatuz gero, merkatuko balio normalaren eta eskualdaketa balioaren arteko diferentzia positiboa ez da hartuko lanaren gauzako etekintzat.

- 2016 baino lehenagoko zergaldietan langileek enpresaren partaidetza edukitzeagatik aplikatutako kenkariak ez dira kontuan edukiko lehen aipatutako mugari dagokionez, hots, zergadun bakoitzak zergaldietan zehar aplikatutako kenkarien baturarena (6.000 edo 8.000 euro).

Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari dagokionez, ezkontideak edo izatezko bikoteak eta ahaide jakin batzuek banako enpresak eta entitateetako partaidetzak "inter vivos" eskuratzen dituztenean aplika daitezkeen murrizketen erregulazioa aldatzen da: eskualdaketa egiteko dohaintza egileak eduki beharreko gutxieneko adina hirurogeita bost urtetik hirurogeira pasatzen da, eta enpresa edo partaidetza hurrengo bost urteetan eduki behar diren salbuespena ezartzen da enpresa edo entitatea konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen denerako. Azken aldaketa hori elementu horien "mortis causa" eskualdaketatik aplika daitezkeen murrizketaren erregulazioan ere sartzen da.

**I. TITULUA****Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra****1. artikulua. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aldatzea**

Arabako otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean, zergenean, honako aldaketa hauek egin dira:

Bat. 5. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Foru arau honen ondoreetarako, III., IV., V., VI. eta VII. tituluetan araututako eginkizunak dituzten organoek osatuko dute Zerga Administrazioa”

Bi. 7. artikuluko k) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“k) Zerga zorren eta zigorren barkamena eta luzamendu eta kiten emakida orokorra”

Hiru. 11. artikuluko 3. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“3. Foru Aldundiaren eskumenen eremuan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak eta Ogasuneko zuzendariak soilik eman ditzakete zergen arloko foru arauak eta gainerako xedapenak interpretatu edo argitzeko xedapenak.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak emandako interpretazio eta argibide xedapenak Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta Zerga Administrazioaren organo guztiek bete beharko dituzte.

Ogasuneko zuzendariak emandako interpretazio eta argibide xedapenek ondorioak izango dituzte zergen eta zehapen ahalaren aplikazioaz arduratzen diren Zerga Administrazioeko organo eta erakundeentzat.

Lau. 14. artikuluko 3. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren likidazioetan zergak eskatzeko, ohiko edo norberaren egintza zein negozioei dagokien araua aplikatuko da edo lortutako zerga onurak ezabatuko dira, eta berandutza interesak likidatuko dira.”

Bost. 29. artikuluko 3. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“3. Artikulu honetan xedatutakoa garatzeko ematen diren erregelamenduzko xedapenetan zerga betebeharrak formalak betetzearen inguruabarrak arautu ahal izango dira.

Zehazki, erregistro liburuaren ekarpena aldi behin eta baliabide telematikoen bidez egin beharreko kasuak zehaztuko dira”

Sei. 46. artikuluko 2. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. Errekurtsoak edo erreklamazioak jartzeko, haietan atzera egiteko, eskubideei uko egiteko, betebeharrak zergapekoaren izenean bere gain hartzeko edo aintzatesteko, bidegabeko sarrerak edo errenboltsoak eskatzeko, eta foru arau honetako III., IV., V., VI. eta VII. tituluetan araututako prozeduretan zergapekoak sinatu behar duen gainerako kasuetan, ordezkaritza Zuzenbidean baliaduna den edo hura modu sinesgarria jasoarazten duen bide baten bitartez frogatu behar da, edo bestela interesdunak adierazpena egin behar du administrazio organo eskudunera bertarata.

Ondore horietarako, Zerga Administrazioak onesten dituen ordezkapen agiri normalizatuak izango dira baliadunak”

Zazpi. 64. artikuluko 2. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. Efektu tinbredunen bidez ordainarazten diren zerga zorrak, jokoaren gaineko zergaren ondorioz sortutakoak eta foru arau honetako VII. tituluaren araututako Estatuko laguntzak berreskuratzeko erabakiak gauzatzearen ondoriozkoak ezingo dira geroratu edo zatikatu.

Konkurtoa adieraziz gero, zergapekoak ezin izango du ez geroratu ez zatikatu konkurtsoei buruzko legeriaren arabera masaren kontrako kreditutzat jotzen diren zerga zorren ordainketa.

Idatz zati honetan apatzen diren zorren ordainketa geroratzeko eta zatikatzeko eskaerak ez dira onartuko.”

Zortzi. 65.bis artikulua eransten da; hona

“65.bis artikulua. Egiaztatzeko eta ikertzeko eskubidea.

1. Foru arau honetako 65. artikuluan ezarritako eskubideen preskripzioak ez du eraginik izango Administrazioak foru arau honetako 111. artikuluari jarraikiz egiaztapenak eta ikerketak egiteko duen eskubidean, hurrengo idatz zatian xedatutakoa gorabehera.

2. Administrazioak konpentsatutako edo konpentsatzeko dituen oinarri edo kuotak edo kenkari aplikatuak edo aplikatzeko daudenak egiaztatzeko prozedura hasteko duen eskubidea hogeituro urtera preskribatuko da, oinarri edo kuota horiek konpentsatzeko edo kenkari horiek aplikatzeko eskubidea sortu zen ekitaldiari edo zergaldiari dagokion adierazpena edo autolikidazioa aurkezteko ezarritako erregelamenduzko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Foru arau honetako 145. artikulua aipatzen duen ikuskaritza orokorreko prozeduretan, zerga betebeharreri eta likidatzeko eskubidea preskribatuta ez duten aldiei dagokienez, ulertuko da jasota dagoela, nolana ere, konpentsatzeko dauden oinarri edo kuota guztien edo aplikatzeko dauden kenkarien egiaztapena, baldin eta egiaztatzeko eskubidea preskribatu ez bada, aurreko lerrokan xedatutakoa kontuan hartuta. Beste kasu batean, berariaz aipatu beharko da barneratzea, prozeduraren, idatz zati honek aipatzen duen egiaztapenaren helburuan, eta egiaztatuko diren oinarri edo kuotak konpentsatzeko edo kenkariak aplikatzeko eskubidea sortu zeneko ekitaldiak edo zergaldiak adierazi beharko dira.

Idatz zati honek aipatzen duen egiaztapena eta, hala badagokio, konpentsatutako edo konpentsatzeko dituen oinarri edo kuoten edo kenkari aplikatuen edo aplikatzeko dauden zuzenketa edo erregularizazioa, lehen lerrokan ezarritako preskripziorik izan ez dutenei dagokienez, bakarrik egin ahalko da zerga betebeharreri buruzko egiaztapen prozeduretan eta likidatzeko eskubidea preskribatuta ez duten aldietan.

3. Zerga bakoitzaren berezko araudiak bestelakorik ezarri ezean, aurreko idatz zatiak aipatzen duen egiaztatzeko eskubidearen mugak ez du eraginik izango idatz zati horretan aipatutako konpentsazio edo aplikazioak sortu zituzten ekitaldi ez preskribatuen egiaztapen eta ikerketa prozedurak direla kausa oinarri, kuota edo kenkariak eta kontabilitatea jaso zituzten likidazio edo autolikidazioen ekarpenerako betebeharrean.”

Bederatzi. 66. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Aurreko artikuluan aipatutako kasuetan, preskripzio epea 65. artikulua aipatutako ondoko erregela hauen arabera hasiko da konputatzen:

a) kasuan, beharrezko aitortpena edo autolikidazioa aurkezteko arau ezarritako epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Errezibo bidez aldi behin kobratzeko zergetan, zerga zorra likidazio egokiaren bidez zehazteko adierazpena edo autolikidazioa aurkeztea beharrezkoa ez denean, preskripzio epea zerga sortzen den egunean hasiko da.

b) kasuan, borondatez ordaintzeko aldia amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera, artikuluko honetako 2. idatz zatian xedatutakoa eragotzi gabe

c) kasuan, zerga bakoitzaren arautegiaren araberrako itzulketa eskatzeko epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera edo, bestela, aipatu itzulketa eska zitekeen egunaren biharamunetik aurrera; bidegabeko sarrera egin den egunaren edo autolikidazioa aurkezteko epea

amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera, baldin eta bidegabeko sarrera epe horretan egin bada; edo aurkaratutako egintza erabat edo partzialki bidegabekoa dela adierazten duen epaia edo administrazio egintza irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Eragiketa bat bateraezinak diren hainbat zergak kargatzen badute, edo zergaldiaz desadostasuna badago, zerga edo zergaldia ebazteko berariaz ezarritako organoak ebazpena ematen duenetik hasiko da konputatzen bidegabe sartutako kopurua itzultzeko eskatzeko preskripzio epea.

d) kasuan, zerga bakoitzaren arautegiaren araberrako itzulketak egiteko epeak amaitzen diren egunaren edo itzulketa jasotzeko edo bermeen kostua itzultzeko eskubidea aintzatesten duen erabakia jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera”

Hamar. 11. idatz zati berria sartzen da 67. artikuluan. Hona:

“11. Foru arau honetako 65. artikuluko a) letran, zerga betebeharen baten ingurukoan, aipatzen den eskubidearen preskripzio epea eteteak zehaztuko du, era berean, aipatutako artikuluko a) eta c) letrek –zergapekoaren beraren zerga betebeharen lotuei buruzkoak– aipatzen dituzten eskubidearen preskripzio epearen etetea, horietan zerga desberdina sortzen denean edo sortu behar denean, zerga betebeharen lotuekin lotuta dagoen betebeharraren arauketaren oinarri diren irizpide eta elementuen aplikazioaren ondorioz, dela Zerga Administrazioaren bidez, dela zergapekoen bidez.

Idatz zati honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zerga betebeharen lotuak direla ulertuko da elementuetako batek eragina jasaten duenean edo beste betebeharen edo aldi bati dagokienez zehazten direnean”

Hamaika. 68. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da. Hona testu berria:

“1. Preskripzioak zerga zorra ordaindu behar duten guztiei ekartzen die onura, aurreko artikuluko 9. idatz zatiko salbuespenarekin”

Hamabi. 69. artikuluko 3. idatz zatia aldatzen da. Hona testu berria:

“3. Zergaldi preskribatuetan eginiko eragiketetan oinarria duten datuen jatorria justifikatzeko betebeharrari eutsi egingo zaio eskubidea preskribatzeko epean zehar, dagokion eragiketaren eraginpean dauden zerga zorrak zehazteko eta, nolana ere, foru arau honetako 65 bis artikuluko 2. eta 3. idatz zatietan aipatzen diren kasuetan”

Hamahiru. 72. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da. Hona testu berria:

“1. Zerga Administrazioak ofizioz konpentsatuko ditu ordainarazpenaldian dauden zerga zorrak. Halaber, Zerga Administrazioak ofizioz konpentsatu ahal izango ditu geroratu edo zati-katutako zorrak zergapekoei administrazio egintzen bidez aintzatesitako kredituekin.

Era berean, borondatez ordaintzeko aldi ofizioz konpentsatuko dira kudeaketa edo ikus-  
kapen prozedura baten ondorioz sartu eta itzuli beharreko kopuruak edo foru arau honetako 26. artikuluko 5. idatz zatian xedatutakoaren arabera likidazio bat deuseztatu ondoren beste likidazio bat egitearen ondoriozkoak.

Gainera, ofizioz konpentsatuko dira borondatez ordaintzeko aldi ofizioz konpentsatuko dira 231.3 eta 244.7 artikuluek aipatzen duten ebazpena betetzearen ondorioz ordaindu eta itzuli beharreko kopuruak.”

Hamalau. 78. artikuluko 5. idatz zatia aldatzen da. Hona testu berria:

“5. Kautelazko neurrien ondoreak aplikatu eta sei hilabete pasatutakoan iraungiko dira, ondokoetako bat gertatu ezean:

a) Premiamendu prozeduran enbargo edo artikuluko honetako 7. idatz zatiko neurri edo epailearen kautelazko neurri bihurtzea; horiek kautelazko neurria hartu den egunetik izango dituzte ondoreak.



b) Neurria hartu beharra ekarri duten inguruabarrak desagertzea.

c) Interesdunak eskatuta, haien ordezkarien den beste berme bat jartzea erabakitzea.

Nolanahi ere, zergapekoak kautelazko neurriaren zenbatekoa kobratuko dela bermatzen duen abal solidarioa, kreditu entitate edo elkarrekiko bermerako sozietate batena, edo kauzio aseguruaren ziurtagiria aurkezten badu, kautelazko neurria kendu beharko da. Zergapekoak kautelazko neurriaren bidez ziurtatutako zerga betebeharra borondatez ordaintzeko aldian ordaintzen badu aurretiaz sarrera eten gabe, Zerga Administrazioak jarritako bermearen gastuak ordaindu beharko dizkio.

d) Aipatu epea arrazoituta erabakiaren bitartez luzatzea (sei hilabete gehienez).

e) Foru arau honetako 251. artikuluan deskribatutako prozedura izapidetu bitartean edo amaitu ondoren hartzea. Kasu horietan, ondorioak hartu eta hogeita lau hileko epea igarotzean etengo dira.

Foru arau honetako 251. artikuluan deskribatutako izapidetzearen hasiera baino lehen hartu badira, foru arau honetako 248. artikuluko 2. idatz zatia aipatzen duen likidazioa agindu ondoren, epea luzatu ahalko da, akordio motibatuaren bidez, baina hartutako neurrien luzapen osoak ezingo ditu hemezortzi hil gainditu.

e) letra honek aipatzen dituen neurriak egindako likidazioa kobratzeko hasi den premia-mendu prozeduraren enbargo bilakatu ahalko dira.

Neurri horiek hartu ondoren, organo judizial eskudunari Zigor Kodeko 305. artikuluko 5. idatz zatian jasotako etetea eskatzen bazaio, hartutako neurriak Fiskaltzari jakinaraziko zaizkio, bai eta aipatutako organo judizialari ere, eta horiei eutsiko zaie, harik eta azken horrek horiek kontserbatzeko edo altxatzeko bidezko erabakia hartu arte”

Hamabost. 78. artikuluko 7. idatz zatia aldatzen da. Hona testu berria:

“7. Ikuskaritzako egiaztapen eta ikerketa prozedura baten ondorioz, Ogasun Publikoaren aurka delituagatiko salaketa edo kereila formalizatzean edo delitu horrengatiko prozesu judiziala bideratu denean, foru arau honetako 248. artikuluko 2. idatz zatia aipatzen duen likidazioa agindu gabe, Zerga Administrazioaren organo eskudunak artikuluko honetan araututako kautelazko neurriak hartu ahalko ditu; hala ere, foru arau honetako hogeigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa bete beharko da.

Ustezko delitua ez bada hasten ikertzen zerga ikuskapeneko egiaztapen eta ikerketa prozedura baten ondorioz, Zerga Administrazioako organo eskudunak Fiskaltzak ikerketarako eginbideei ekin ondoren aplikatu ahal izango ditu kautelazko neurriak, edo bestela zigor eginbideak hasi ondoren.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren kasuetan, salaketan edo kereilan Zigor Kodeko 126. artikuluan aipatzen diren kopuruen ordainketaren balizko erantzule gisa (zuzenekoak edo subsidiarioak) identifikatzen diren subjektuetako edozein izan daiteke kautelazko neurrien xedea.

Zerga Administrazioako organo eskudunak kautelazko neurri bat ezartzea erabakitzen badu, interesdunari, fiskaltzari eta organo judizial eskudunari jakinaraziko zaie, eta azken horrek erabakia (neurri jurisdikzional bihurtzea edo bertan behera uztea) hartu arte iraungo du indarrean.”

Hamasei. 89. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da. Hona testu berria:

“1. Interesdunek zergen aplikazioan lagundu dezakete, arau bidez ezartzen denari lotuta.

Lankidetzari Zerga Administrazioak beste administrazio publiko, entitate pribatu edo gizarte, lan, enpresa edo lanbide sektore edo interesen ordezkari diren entitate edo organizazioekin eginiko akordioaren bidez antolatu ahalko da, eta, zehazki, zerga aholkularitzako profesionalen elkargo eta elkarteekiko zerga betebeharren lankidetzari betearazpena sustatzeko lana errazteko.”

Hamazazpi. 92. artikuluko 1. idatz zatiari q) letra gehitzen zaio. Hona testua:

“q) Aktiboak Berreskuratzeko eta Kudeatzeko Bulegoarekiko lankidetzaz, zigor prozesu batean enbargatutako edo konfiskatutako ondasunak lokalizatzeko beharrezkoak diren datu, txosten edo aurrekarien lagapenaren bidez, gertakari hori egiaztatu ondoren”

Hemezortzi. 92. artikuluari 4. idatz zati berria gehitzen zaio, eta, beraz, 4. eta 5. idatz zatiei beste zenbaki bat ematen zaie, 5 eta 6 zenbakiak, hain zuzen ere. Hona testua:

“4. Artikulu honetan ezarritako datuen isilpeko izaerak ez du eragotziko horiek argitaratzea, argitalpena bera Europar Batasunaren arauditik datorrenean”

Hemeretzi. III. tituluko I. kapituluaren 4. atala gehitzen da. Hona testua:

#### “4. ATALA

### TEKNOLOGIA INFORMATIKOAK ETA TELEMATIKOAK

#### **92 quater artikulua. Teknologia informatikoak eta telematikoak erabiltzea**

1. Zerga administrazioak beharrezko teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoaren erabilera bultzatu du bere jardueraren garapena ahalbidetzeko eta administrazio horren menpeko eskumenak egikartzeko, aplikagarria den legeriak ezarritako mugak aintzat hartuta.

2. Zerga administrazioak badituen baliabide teknikoekin bateragarria denean, herritarrek teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoaren bidezko harremanak izan ditzakete harekin, herritarren eskubideak egikartzeko eta betebeharrak betetzeko helburuz, prozedura bakoitzean araututako berme eta betekizunei jarraiki.

3. Teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak darabiltzan prozedurek eta jarduketek Zerga administrazio jardulearen identifikazioa eta beraren eskumenaren egikaritzea bermatuko dituzte. Gainera, Zerga administrazioak era automatizatuan jarduten duenean, informazio sistema programatzeko eta gainbegiratzeko organo eskumendunen eta jar daitezkeen errekurtsioak ebazteko organo eskumendunen identifikazioa bermatuko da.

4. Ahalak egikartzeko, Zerga administrazioak erabiltzen dituen programa eta aplikazio elektronikoak, informatikoak eta telematikoak ontzat eman beharko ditu aurretiaz, erregelamendu bidez ezartzen den eran.

5. Euskarria zeinahi dela ere, Zerga administrazioak bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoaren emandako edo bidalitako agiriek, hala nola aipatutako bitartekoaren bidez bildutako jatorrizkoen kopiek, jatorrizkoen baliozkotasun eta eraginkortasun berdina izango dute, betiere agiri horien egiazkotasuna, osotasuna eta iraunkortasuna bermatzen bada eta, hala badagokio, interesdunak jaso dituela eta aplikagarria den araudiak ezarritako bermeak eta eskakizunak betetzen direla ziurtatzen bada.”

Hogei. 100. artikuluko 2. idatz zatia aldatzen da; hona testua berria:

“2. Prozeduren iraupenaren gehienezko epearen barruan jakinarazteko betebeharrak betetzat jotzeko ondorioetarako, nahikoa izango da ebazpenaren testu osoa dakarren komunikazioa jakinarazteko ahalegin bat egin dela egiaztatzea.

Bitarteko elektronikoak erabiliz egindako jakinarazpenak halaberrez edo haien borondatez jaso behar dituzten zergadunei dagokienez, prozeduren gehienezko epearen barruan jakinarazteko betebeharrak betetzat joko da jakinarazpena eskuragarri jartzen denean Zerga administrazioaren egoitza elektronikoan edo gaitutako helbide elektronikoan.

Erregelamendu bidez zehazten diren etete bidezko aldiak, Zerga administrazioari egozgarriak ez diren luzatzeak eta Foru Arau honetan araututako manuei jarraiki gertatzen diren epearen etenaldiak ez dira aintzat hartuko prozedura ebazteko aldia zenbatzean.”

Hogeita bat. 102. artikuluko 3. idatz zatia ezabatzen da eta 102. artikuluko 2. idatz zatia aldatzen da; hona testua:

“2. Gastu kengarriak eta aplikatzen diren kenkariak, enpresaburuek edo profesionalak egin-dako eragiketek sortu badituzte, justifikatu egin beharko dira; lehentasunez, zerga arautegian ezarritako betekizunak betetzen dituen eragiketa egindako enpresaburuak edo profesionalak emandako faktura aurkeztu beharko da.

Aurrekoari kalterik egin gabe, faktura ez da lehentasunezko frogabidea eragiketen izatearen aldean; hori dela eta, administrazioak fakturen eraginkortasuna modu funtsatuan zalantzan jartzen badu, zergapekoak eragiketen benekotasunari buruzko frogak aurkeztu beharko ditu.”

Hogeita bi. 104. artikuluari 5. idatz zatia gehitzen zaio; hona testua:

“5. Urtebetetik beherako likidazio aldia duten zerga betebeharrei dagokienez, urteko kuota-ren banaketa lineal egokia egin ahalko da dagozkion likidazio aldien artean, baldin eta Zerga administrazioak, bere esku daukan informazioan oinarriturik, likidazio aldi jakin bati egozterik ez badauka, dena delako tributua arautzen duen araudiaren arabera eta zergapekoak, ondore horretarako berariazko errekerimendua jasota, beste denborazko banaketa bat bidezkoa dela justifikatzen ez duenean.”

Hogeita hiru. 108. artikulua aldatzen da; hona testu berria:

“108. artikulua. Agertzeko jakinarazpena.

1. Zerga administrazioari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiak direla eta, interesdunaren zerga egoitzan, berak adierazitako helbidean edo berak izendatutako ordezkariari gutxienez bi aha-legin eginda, zergapekoari jakinarazterik ez dagoenean, zergapekoaren eskariz hasitako prozedura bada, jakinarazteko ahaleginen inguruabarrak jasoko dira espedientean. Hartzailera aipatu egoitzan edo tokian ezezaguna bada, ahalegin bakarra nahikoa izango da.

Hala gertatzen denean, interesdunari edo beraren ordezkariari zitazioa bidaliko zaio agertze bidez jakinarazteko; horretarako, iragarkiak argitaratuko dira Estatuko Aldizkari Ofizialean eta iragarki bakarra argitaratuko da interesdun bakoitzeko).

Era berean, iragarki bat argitaratuko da bide hauetako bat erabiliz:

a) Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan edo, bestela, kasuan kasuko zerga administrazioaren egoitza elektronikoan, herritarrek zerbitzu publikoak baliabide elektronikoen bidez erabiltzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 10. eta 12. artikuluetan ezarritako baldintzetan.

Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak bide honen bitartez argitaratu ahalko ditu egin beharreko jakinarazpenei buruzko iragarkiak, zerga sistema aplikatzeko eskumenak erabilia eta esleituta edo bereganatuta daukan zerga bilketaren kudeaketan.

Gainerako zerga administrazioek modu hori hautatzen badute jakinarazpenen iragarkiak argitaratzeko, gobernu organoaren berariazko arau xedapenaren bidez egin beharko dute, eta gero, xedapen hori Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dute. Ondorioak sortzen noiz hasiko den zehaztu behar da xedapenean.

b) Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean.

Iragarkiak egoitza elektronikoan nola eta noiz argitaratu behar diren erregelamendu bidez zehaztuko da, eta modu berean finkatuko dira iragarkiek egoitza elektronikoan iraun beharrekoaldiak.

Ezagutzen den azken egoitza Arabatik kanpo egonez gero, iragarkia ezagutzen den azken zerga egoitzari dagokion udaletxean ere jarri ahal izango da. Dena dela, ezagutzen den azken egoitza atzerrian badago, iragarkia dena delako herrialdearen kontsulatuan edo enbaxadaren kontsulatu sailean jarri ahal izango da.

Aurreko a) eta b) ataletan agertzen diren iragarkiak nahitaez argitaratu beharko ditu Arabako Foru Aldundiak; hala, foru erakundeak letra horietan jasotzen diren bideetako bat aukeratu beharko du eta aukerakoak izango dira gainerako Zerga administrazioentzat. Nolanahi ere, araubide berdinari jarraituz gero, horri buruzko erabakia hartu beharko dute Zerga administrazioek.

2. Argitaratzean, artean bidali gabe dauden jakinarazpenak jasoko dira eta ondoko guztiak adieraziko dira: zergapekoa edo horren ordezkaria, jakinarazpenaren xede den prozedura, izapidetzea bideratzen duen organoa eta jakinarazpen hartzailea agertu behar deneko epea, jakinarazpena eraginkorra izan dadin. Nolanahi ere den, agerpena egutegiko 15 eguneko epean gauzatu beharko da, iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita. Aldi horretan zergapekoa agertzen ez bada, jakinarazpena egintzat joko da mugaegunaren biharamunean, legezko ondorio guztietarako.

Aurreko idatz zatian aipatzen den hamabost eguneko aldia Zerga administrazioaren egoitza elektronikoa edo Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita zenbatuko da, iragarki hori Estatuko Aldizkari Ofizialekoa baino beranduago argitaratzen bada.

Iragarki batean hainbat zergapeko aipatu ahalko dira eta aurreko paragrafoan azalduetako betekizunak denentzat batera adierazi.

3. Ez zergapekoa ez beraren ordezkaria jakinarazpena jasotzera agertzen ez badira eta, horren ondorioz, prozedura baten hasiera edo beraren izapideetako bat jakinarazitzat jotzen bada, prozeduraren hurrengo jarduketak eta eginbideak ere jakinarazitzat joko dira eta bere horretan iraungo du prozeduran zehar noiznahi agertzeko eskubideak. Hala ere, prozeduran ematen diren likidazioak eta, hala badagokio, bahitutako ondasunak besterentzeko erabakiak atal honetan ezarritakoaren arabera jakinarazi beharko dira”

Hogeita lau. 111. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da; hona testua:

“1. Zerga Administrazioak behar beste egitate, egintza, elementu, jarduera, ustiapen eta negozio egiaztatu eta ikertu ahal ditu, bai eta haiekin lotutako inguruabar, datu eta agiri guztiak ere, zerga betebeharrak betetzen direla ziurtatzeko.

Egiaztapen eta ikerketa horiek guztiak egin ahal izango dira, nahiz eta jarduketek foru arau honetako 65. artikuluan araututako preskripzioa beteta duten ekitaldi edo aldi eta zerga kontzeptuei eragin, betiere egiaztapena edo ikerketa beharrezkoa bada foru arau honetako 65. artikulua jaso eta preskribatuta ez dagoen eskubideren bati dagokionez, foru arau honetako 65 bis.2 artikulua jasotzen dituen inguruabarrei dagokienez izan ezik, halakoetan aplikagarria baitira artikulua horretan ezarritako mugak.

Bereziki, egiaztapen eta ikerketa horiek hedatu ahal izango dira egitate, egintza, elementu, jarduera, ustiapen eta negozio guztietara, baldin eta, aurreko paragrafoan aipatu den 65.a) artikulua araututako preskripzioa bete deneko ekitaldi edo zerga aldietan gertatu, egin, garatu edo formalizatu arren, zerga ondorioak sorrarazi behar badituzte preskripzioa bete ez den ekitaldietan edo zerga aldietan.”

Hogeita bost. 111. artikuluko 2. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“2. Artikulu honek jasotzen dituen egiaztapenak eta ikerketak gauzatzeko eginkizunak garatzen dituenean, Zerga administrazioak kalifikatu ahalko ditu zergapekoak burututako egitate, egintza, elementu, jarduera, ustiapen eta negozioak, azkenak horiei guztiei buruz aurretiaz egin duen kalifikazioa eta kalifikazioa egin deneko ekitaldia edo zerga aldia gorabehera; hala badagokio, foru arau honetako 12, 14 eta 15. artikuluetan ezarritakoa aplikagarria izango da.

Atal honetan ezarritako aplikatzeko xedez, Zerga administrazioak egiaztapen eta ikerketa prozeduretan egindako kalifikazioak ondoreak hedatuko ditu prozeduren xede den zerga betebeharraren gainean eta, hala badagokio, honako foru arau honetako 65.a) artikulua araututako preskripzioa bete ez duten beste zerga betebeharrak batzuen gainean.”

Hogeita sei. 115. artikuluari 5. idatz zatia gehitzen zaio; hona testua:

“5. Tributuak aplikatzeko prozedura batetik ateratzen den likidazioan, zergapekoak konpentsatu edo kendu gabe dituen zenbatekoak aplikatu ahalko dira, baina ondore horietarako, aplikatu gabeko zenbatekoak ezin izango dira aldatu aitorten osagarriak edo zuzentzeko eskaerak aurkeztuta tributuak aplikatzeko prozedura hasi ondoren.”

Hogeita zazpi. 129. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“1. Foru arau honetako 56. artikuluan adierazitako balioak egiaztatzeke zerga bideak zuzentzeko xedez, interesdunek peritu tasazio kontrajarria sustatu ahal izango dute, egindako likidazioaren aurkako lehen errekurso edo erreklamazioaren epearen barruan, administrazio bidez egiaztatutako balioekin bat etorri edo, zerga araudiak hala arautzen duenean, behar bezala jakinarazi den balioak egiaztatzeke egintzaren aurka.

Tributuaren zerga arautegian ezarrita egonez gero, interesdunak beretzat gorde ahal izango du peritu tasazio kontrajarria sustatzeko eskubidea, jakinarazpenean aitortutako balioak aldatzeke nahikoa datu eta arrazoi adierazi ez dela uste badu eta hori berraztertzeke errekurso edo administrazioarekiko diru erreklamazio batean salatzen badu. Hala gertatzen bada, zergapekoak hilabeteko epea izango du peritu tasazio kontrajarria sustatzeko, aurretik aurkeztutako errekursoa edo erreklamazioa ebazten duen erabakiak administrazio bidean irmotasuna daukan egunetik aurrera.

Peritu tasazio kontrajarria aurkezten bada edo, aurreko paragrafoan adierazi bezala, zergapekoak tasazioa sustatzeko eskubidea beretzat gordetzen badu, likidazioaren betearazpena eta haren aurkako errekursoa edo erreklamazioa aurkezteke epea eten egingo dira.

Era berean, peritu tasazio kontrajarria aurkeztuz gero, hala badagokio, likidaziotik ateratzen den zehapen prozedura hasarazteke epea eten egingo da; bestela, zehazpen prozeduraren epea hasita badago, prozedura zehapena amaitzeke gehieneko epea eten egingo da. Peritu tasazio kontrajarriaren prozedura amaituta, bidezkoa den likidazioaren jakinarazpenak zehaztuko du honako foru arau honetako 214. artikuluko 2. atalean ezarritako epea berriro ere zenbatzen hasiko dela jakinarazpena bidaltzen den unetik edo, bestela, prozedura hasita badago, amaitzeke falta den epearen gainerakoak zenbatzen segituko duela.

Likidazioaren kontrako peritu tasazio kontrajarria eskatzeko unean, zehapen egokia ezarri eta, horren ondorioz, likidazio berria eman bada, zehapena baliogabetuko da eta beste bat ezarriko da, likidazio berriaren zenbatespena kontuan hartuta.”

Hogeita zortzi. 145. artikuluko 3. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“3. Egiaztapen eta ikerketa prozeduran, kasu hauetan eman daitezke behin-behineko likidazioak:

a) Zerga betebeharrari atxikitako elementuren bat zehazten denean egiaztatu gabe dauden beste elementuei batzuei dagozkien likidazioetan oinarrituta, behin-behineko likidazio bidez edo irmoa ez den behin betiko likidazio bidez erregularizatzen denean, edo behin betiko egiaztatu ez diren zerga betebeharraren elementuak ageri direnean, erregelamendu bidez ezarritako baldintzei jarraiki.

b) Zerga betebeharrak bakar baten gainean, zenbait likidazio proposamen egin daitezkeenean. Aurreko inguruabarra kasu hauetan gertatuko da: zergapekoak bere zerga egoeraren erregularizazioa zati batez onartzen duenean, balio bat egiaztatzen denean erregularizatzeko objektu bakarra izan gabe, eta erregelamendu bidez ezartzen diren gainerako kasuetan.

c) Nolanahi ere, behin-behinekotzat joko dira honako foru arau honetako 248. artikuluko 2. artikuluko ezarritakoari jarraiki ematen diren likidazioak.”

Hogeita bederatzi. 147. artikulua aldatzen da; hona testu berria:

“147. artikulua. Egiatzapen eta ikerketa prozeduraren gehieneko epea.

1. Egiatzapen eta ikerketa prozeduraren inguruko jarduketak hamabi hilabeteko epean gauzatu beharko dira, zergapekoari prozedura hasi dela jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

Jarduketak amaitutzat emango dira haien ondoriozko administrazio egintza jakinarazten denean edo jakinarazitzat hartzen denean. Jakinarazi beharra bete den ala ez zehazteari eta ebazpen epea zenbatzeari gagozkiela, honako foru arau honetako 100. artikuluko 2. idatz zatian jasotako arauak aplikatuko dira.

Hala ere, epe hori luzatu ahal izango da, erregelamendu bidez zehaztutako irismen eta baldintzen arabera. Luzapena ezin izango da hamabi hilabete baino luzeagoa izan, eta jarduketetan honako inguruabarren bat gertatzean onartuko da:

a) Jarduketak oso konplexuak direnean. Jarduketak konplexutzat hartuko dira pertsonak edo entitateak eragiketa asko gauzaten dituenean, jarduerak geografikoki sakabanatuta gauzaten dituenean, zerga ordainketa zerga baterakuntza edo nazioarteko zerga gardentasuneko araubidean egiten duenean eta erregelamendu bidez ezarritako gainerako kasuetan.

b) Jarduketan ondorioz, zergapekoak egiten duen enpresa jarduera edo jarduera profesionalen bat Zerga administrazioari ezkutatu diola frogatzen denean.

Arestian ezarritako hamabi hilabeteko luzapenaren inguruan hartutako erabakiak arrazoitu egin behar dira beti; hala egitatezko zein zuzenbideko arrazoibideetan funtsatu beharko dira, eta artikuluko honen lehen paragrafoan aipatzen den hamazortzi hilabeteko aldia bukatu aurretik jakinarazi behar dira. Kasu horretan, honako foru arau honetako 100. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko da.

2. Egiatzapen eta ikerketa prozedura sei hilabete baino aldi luzeagoan eteten bada, hots, jarduketarik egiten ez bada, zergapekoari egotzi ezin zaion arrazoi bategatik, edo artikuluko honetako 1. idatz zatian prozeduraren iraupenari buruz aipatutako epea betetzen ez bada, prozedura ez da iraungiko; aitzitik, amaierara arte jarraituko du, baina jarraian azalduko diren ondoreak sortuko ditu, besteak beste, likidatu gabeko zerga betebeharreri dagokienez:

a) Preskripzioa ez da etentzat joko arrazoirik gabe etendako ikuskapen jarduketan ondorioz, ez eta artikuluko honen 1. idatz zatian jasotzen den epearen barruan ere.

Kasu horietan, preskripzioa etentzat emango da arrazoirik gabe eten ondoren jarduketei berriz ekiten zaienean, interesdunari horren berri formala eman eta gero, edo artikuluko honen 1. idatz zatian jasotako epea bukatu ostean, jarduketak egiten direnean. Bi kasuetan, aurrerantzean gauzatuko diren kontzeptuei eta epeei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea izango du zergapekoak.

b) Zergapekoak prozedura hasten denetik jarduketei berriz ekin arte egindako diru sarrerak zergari eta ikuskapen jarduketan zergaldiari egotzi badizkie, sarrera horiek espontaneotzat joko dira foru arau honetako 27. artikuluko ezarritako ondoretarako.

Halaber, espontaneotzat joko dira prozedura hasten denetik artikuluko honen 1. idatz zatian ezarritako prozeduraren iraunaldia bete ez eta gerora egiten den lehen jarduketa gertatu bitartean egindako sarrerak, baldin eta zergapekoak tributuari eta ikuskapen jarduketan xede den zergaldiari egotzi badizkie.

3. artikuluko honen 1. idatz zatian aipatutako iraunaldia betetzen ez bada, ez da berandutza interesik eskatuko ez-betetzea gertatzen denetik prozedura bukatu arte.

4. Erruduntasun testigantza jurisdikzio eskumendunari ematen zaionean edo espedientea Fiskaltzari bidaltzen zaionean, honako foru arau honetako 248. artikuluko dioenari jarraiki, helarazpen horrek ondore hauek sorraraziko ditu ikuskapen jarduketan iraunaldiari dagokienez:

a) Jarduketa horiek zenbatzeko epea eteten duen bidezko arrazoitzat hartuko da.

b) Artikulu honen 1. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorri, epea luzatzea ahalbidetzen duen arrazoitzat hartuko da honako foru arau honetako 248. artikuluko 1. idatz zatian jasotako arrazoietakoa bat gertatu eta, horren ondorioz, administrazio prozedurarekin jarraitu behar denean.

5. Ebazpen judizial edo ekonomiko-administratibo batek edo Ekonomia Itunean araututako Arbitraje Batzordearen erabaki batek ikerketa jarduketan atzeraeragintasuna agintzen badu, jarduketa horiek atzera egiten duten unetik artikulu honen 1. idatz zatian jasotzen den epea amaitu arteko aldiaren barruan bukatu beharko dira, edo sei hilabeteko epean, aldi hura laburragoa bada. Epe hori zenbatzen hasiko da ebazpena betearazteko eskumena duen organoak espedientea eskuratzen duenean.

Aurreko paragrafoan azaldutakoa ondoko administrazio prozedurei ere aplikatuko zaie: epea luzatu eta gero, erruduntasun testigantza jurisdikzio eskumendunari helarazi bazaio edo espedientea Fiskaltzara igorri bada eta, gainera, honako foru arau honetako 248. artikuluko 1. idatz zatiaren arrazoietariko bat gertatzeagatik jarraitu behar badute. Hala gertatzen denean, epea zenbatzen hasiko da prozedurarekin jarraitu behar duen organo eskumendunak ebazpen judiziala edo Fiskaltzatik atzera bidalitako espedientea jasotzen duenean.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako administrazio espedientea edo ebazpen judiziala zein egunetan jaso den jakinarazi behar zaio zergapekoari, bidezko komunikazioaren bidez edo aurrekoak jaso ondoko egiaztapen eta ikerketa prozeduraren baitan sinatzen den lehenengo eginbidearen bidez.”

Hogeita hamar. 153. artikuluko 3. idatz zatia aldatu da eta bi idatz zati berri txertatu dira, 4.a eta 5.a, hain zuzen ere, behean ageri den eran:

“3. Zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatzeko erabiltzen diren datuak eta aurrekariak ondoko iturri hauetatik etorri ahalko dira:

a) Zenbatespen objektiboaren metodoan ezarritako ikurrak, indizeak eta moduluak. Horiek lehentasunez erabiliko dira metodo horri uko egin dioten zergapekoei dagokienez. Hala eta guztiz ere, ikuskatzaileak egiaztatzen badu jarduera ekonomikoaren ondorioz atera diren zenbateko ekonomiko handiagoko etekinik badagoela, azken zenbatekoa aintzat hartuko da erregularizazioa egiteko.

b) Zergapekoak berak emandako datu ekonomikoak eta ekoizpen prozesuari buruzkoak.

Erregularizatzen den ekitaldiaren aurreko edo ondoko ekitaldietan ateratako datuak erabili ahal izango dira, baldin eta informazio nahikoa eta fidagarria eskuratzea badago. Bereziki, ikuskapen jarduera garatzen deneko uneari dagokion informazioa baliatu ahal izango da, eta aplikagarritzat jo ahalko da aurreko ekitaldietan, ikuskatzailetzak edo zergapekoak berak datu horietan doiketak egin behar direla justifikatu eta zenbatu ezean.

Metodo hori zergapekoaren ezaugarri antzekoak dituzten jarduerak zenbatzeko erabili arren, zergapekoak horren gaineko informaziorik ematen ez duenean, okerreko informazioa edo datu gutxiegi ematen duenean edo, eragiketen lagin bat aztertuta, akats errepikatuak badaudela egiaztatzen denean, zerga ikuskatzailetzak laginketa bidez erregularizatu ahalko ditu jarduketak. Halako kasuetan, laginketan ateratzen den batez bestekoa aplikatu ahalko zaie egiaztatutako zergaldian izan diren guztizko eragiketei, zergapekoak hein hori bidezkoa ez dela justifikatzen duten arrazoiak egiaztatu ezean.

c) Erakunde publikoek edo antolakunde pribatuek estatistika teknika egokien bidez ateratako sektorearen inguruko datuak, betiere erregularizatzea xede duen zergaldiari dagozkionak. Kasu horretan, datuen iturria identifikatuko da, zergapekoak bere eskubidearen arabera egokitzen jotzen duena argudiatzea izan dezan datu horien inguruan.

d) Ikuskatzailetzaren organoek zergapekoaren antzeko enpresetatik, jardueretatik edo ezauzgarri esanguratsuak dituzten produktuetatik ateratako datuak, dena delako ekitaldikoak badira. Kasu horretan, ikuskatzailetzak aukeratutako lagina identifikatu beharko du, zergapekoaren

ezaugarrietara egokitzen dela bermatzeko xedez, eta adierazi beharko du datuak zein erregistro publikotatik edo zein iturritatik eskuratu dituen. Erabilitako datuen iturria Zerga administrazioa bera bada, lagina erregelamendu bidez xedatutakoari jarraiki prestatuko da.

4. Zuzeneko ezarpenari dagokionez, zeharkako zenbatespena erabiliz kalkulatu ahalko dira salmentak eta prestazioak, erosketak eta gastuak edo jardueraren etekin garbia. Zeharkako zenbatespena salmenten eta prestazioen zenbatekoa bakarrik kalkulatzeko balitu ahalko da, kontabilitatean edo zerga erregistroetan jasota dauden gastuak nahikoa egiaztaturik daudela pentsatzen bada. Era berean, erosketak eta gastuei bakarrik eragin ahal die, salmentak eta prestazioak nahikoa egiaztaturik daudenean.

Kontsumoaren gaineko ezarpenari dagokionez, zeharkako zenbatespenaren metodoa erabiliz kalkulatu ahalko dira zerga oinarria eta jasanarazitako kuota, jasandako kuota zenbatetsia eta kengarria edo bi zenbatekoak. Jasandako kuota zenbatetsia eta kengarria kalkulatzeko, dagozkion salmentak edo prestazioak lortzeko beharrezkoak izan ohi diren ondasun eta zerbitzuen ziozko kuotak zenbatetsiko dira, baina zerga jasanarazi den zenbatekoaren neurrian eta zergapekoak eraginkortasunez jasan duena aintzat hartuta. Zerga administrazioak kuoten eragina kalkulatzeko informazio nahikorik ez badauka, zergapekoak informazio egokia eman beharko du zerga jasanarazi zioten pertsonak edo entitateak identifikatzeko eta zenbatekoa kalkulatzeko.

Zeharkako zenbatespenaren bidez erregularizatutako ekitaldi bati dagozkion jasandako gastuak edo kuotak ezin izango dira beste ekitaldi batean kendu.

5. Urtebetetik beherako likidazio aldia duten tributuetan, ikuskatzaitzak urtean zenbatetsitako kuota era linealean banatuko da likidazio aldi egokietan, zergapekoak beste denborazko banaketa bat bidezkoa dela justifikatzen ez duenean.”

Hogeita hamaika. 184. artikuluko 2. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“2. Foru arauetan edo legeetan tipifikatutako ekintzek eta omisioek ez dute zergen arloko arau hausteengatik erantzukizunik ekarriko honako kasu hauetan:

a) Zergen arloan jarduteko gaitasunik ez dutenek egiten dituztenean.

b) Ezinbesteko karia gertatzen denean.

c) Talde baten erabakiaren ondorio direnean, botoa salbatu dutenentzat edo erabakia hartu den bileran izan ez direnentzat, salbu eta baterako erabakia ondoren berretsi izan balute.

d) Zerga betebeharrak betetzeko arreta nahikoarekin jardun denean.

Beste inguru batzuen artean, behar besteko arretaz jokatu dela ulertuko da zergapekoak araua arrazoiz interpretatuz jardun duenean. Zehazki esanda, zergadunak arauak zentzuz interpretatu dituela pentsatuko da ondokoei jarraiki jardun badu:

a') Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen edo administrazioarekiko auzien epaitegien ebazpenak, edo Konstituzio Auzitegiak eta Europar Batasuneko justizia auzitegiek auto eta ebazpenetan emandako epaieetatik eratorritako doktrina, oso antzekoak diren egitate eta inguruabarrak gertatzen direnean.

b') Zerga administrazioak ondokoetan adierazitako irizpideak:

- Aitorpenak eta autolikidazioak aurkezteko eredu eta zabalkundeko eskuliburuetan jasotako jarraibideak.

- Honako foru arau honetako 81. artikulua jasotzen dituen zabalkunde ohar eta komunikazioak.

- Honako foru arau honetako 83. artikuluan jasotzen diren zergen gaineko galdera idatziei emandako erantzunak. Galdera horiek beste zergapeko batzuek egin dituzte, oso antzekoak diren egitateak eta inguruabarrak gertatzen direnean, betiere, aipatutako irizpideak aldatu ez badira.



2. idatz zatian xedatutakoaren ondoreetarako, honako foru arau honetako 211 bis artikulua aipatzen dituen inguruabarretan, aurkako frogarik egon ezean, ezin izango da pentsatu konkurrentziarik dagoenik, ez zerga betebeharreri erantzuteko arreta egokiari buruz, ez d) letra honetan adierazitako arauen arrazoizko interpretazioari buruz.

e) Zerga betebeharrak betetzeko helburuz, Zerga administrazioak eskaintzen dituen programa informatikoen akats bati egozteko modukoak direnean.”

Hogeita hamabi. 185. artikulua aldatzen da; hona testua:

“185. artikulua. Zerga zehapenak ez pilatzeko printzipioa.

1. Arau hauste bat mailakatzeko irizpidetzat erabili beharreko egintza edo ez-betetze bat ezin izango da banakako arau hauste moduan zehatu.

2. Hainbat arau haustetzat har daitezkeen ekintza edo ez-betetze batzuk eginez gero, bakoitzari bere zehapena ezarri ahal izango zaio.

3. Zergen arloko arau hausteen ondoriozko zehapenekin batera, berandutze interesak eta betearazpen aldiko errekarquak eskatu ahal izango dira.”

Hogeita hamahiru. 186. artikuluko 1. idatz zatiko e) letra aldatzen da, hona testu berria:

“e) Zerga multzoa ordezkatzeko duen entitatea zerga baterakuntzaren araubidean.”

Hogeita hamalau. 193. artikuluko 3. idatz zatiari paragrafo bat gehitzen zaio, azkenaurrekoa; hona testua:

“Era berean, honako foru arau honetako 67. artikuluko 11. idatz zatian xedatutakoa aplikagarria izango da, Zerga administrazioak zerga zehapenak ezartzeko ahalmena egikaritzeari dagokionez.”

Hogeita hamabost. 194. artikuluko 3. zenbakia aldatzen da; hona testu berria:

“3. Zerga zehapenak foru arau bidez bakarrik barka daitezke, bertan ezarritako betekizunak eta zenbatekoa aintzat harturik.

Hogeita hamasei. 204. artikuluko 1. eta 2. idatz zatiak aldatzen dira; hona testu berria:

“1. Zergen arloko arau haustea da autolikidazioak edo aitorpenak aurkezterakoan Zerga administrazioak kasu bakoitzean onetsi eta argitaratzen duen eredu ez, beste bat erabilitea.

Zehapena 100 euroko isun finkoa izango da.

2. Halaber, zergen arloko arau haustea da autolikidazioa edo aitorpena baliabide elektronikoa, informatikoa edo telematikoen bidez ez aurkeztea, nahitaez bide horiek erabiliz aurkeztu behar izanez gero.

Arau hauste horren ziozko zehapena 1.500 euroko isun finkoa izango da.”

Hogeita hamazazpi. 205. artikuluko 2. idatz zatiko c) eta d) letrak aldatzen dira; hona testu berriak:

“c) Zerga arloko arauak ezarritako kontabilitatea, liburuak eta erregistroak jaso edo gordetzeko betebeharra urratzearen zioz, diruzko isun proportzionala ezarriko da, subjektu arau hauslearen negozio bolumenaren ehuneko batekoa, arau haustea egin deneko ekitaldian, gutxienez, 600 eurokoa. Zergaldi hori egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumenari dagokion tamaina urtekotu egingo da.

Aurreko paragrafoan adierazitako kontabilitate, liburu eta erregistroen euskarritzat baliatzen diren programa eta fitxategi informatikoak gordetzeko betebeharra edo erabilitako kodetze sistemak gordetzeko betebeharra urratzen denean, diruzko isun proportzionala ezarriko da, subjektu arau hauslearen negozio bolumenaren ehuneko hogeikoa, arau haustea egin deneko ekitaldian, gutxienez, 30.000 eurokoa. Zergaldi hori egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumenari dagokion tamaina urtekotu egingo da.

Zerga administrazioak kontabilitate, liburu eta erregistroen euskarriztat baliatzen diren programa eta fitxategi informatikoak eta erabilitako kodetze sistemak suntsitu, ezabatu edo manipulatu direla frogatzen badu, eta inguruabar hori artean bukatu ez den zerga aldi batean egiaztatzen badu, diruzko isun proportzionala ezarriko da, subjektu arau hauslearen negozio bolumenaren ehuneko hogeikoa, arau haustea egin deneko ekitaldiaren aurrekoa aintzat hartuta, gutxienez, 30.000 eurokoa. Zergaldi hori egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumenari dagokion tamaina urtekotu egingo da.

Aurreko kasuetako edozeinetan, Zerga administrazioak egiaztatzen badu fakturazioaren euskarriztat eta, beraz, zerga arloko arauak eskatzen dituen kontabilitate, liburu edo erregistroen euskarriztat erabiltzen diren programa eta fitxategiak programa informatikoa garatu duen pertsonak edo entitateak edo programa hondatu duen beste batek nahiz, oldez edo moldez, sistema informatikoa kontrolatu duen edo kontrolatzen duen pertsona edo entitate batek suntsitu, ezabatu edo manipulatu dituela, pertsona edo entitate hori arau hausletzat joko da eta programa eta fitxategien titularra den arau hausleari ezarritako zenbateko berdinez zehatuko da, aurreko bi paragrafoetan adierazitako arauari jarraiki, kasua zein den.

d) Jardun eta ekitaldi ekonomiko bakarrarentzat kontabilitate desberdinak eramaten badira, zergapekoaren benetako egoera zein den ezagutzea oztopatzen delarik, diruzko isun finkoa ezarriko da, 5.000 eurokoa, kontuak eramateak eragiten dion ekitaldi ekonomiko bakoitzeko. Arau-hauste hori berriz egiteak diru-isuna bikoiztea ekarriko du.

Hogeita hemezortzi. 205. artikuluko 2. idatz zatiari beste letra bat gehitu zaio, g) hain zuzen ere; hona testua:

“g) Erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan, fakturazio erregistroak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan hornitzen ez badira eta, beraz, erregistro liburuak kudeatzeko betebeharrean atzerapenik gertatuz gero, diruzko isun proportzionala ezarriko da, erregistroaren xede den fakturaren ehuneko 0,5ekoa, gutxienez, 300 eurokoa hiruhilekoan eta, gehienez, 6.000 euroko seihilekoan.”

Hogeita hemeretzi. 206. artikuluko 2. idatz zatiko b) letra aldatzen da; hona testu berria:

“b) Fakturak edo ordainagiriak egin edo gorde ez badira, diruzko isun proportzionala ezarriko da, arau haustea sorrarazi duten eragiketen zenbateko osoaren ehuneko 2koa. Arau hausteari dagozkion eragiketen zenbatekoa zein den ezin jakin daitekeenean, zehapena 600 eurokoa izango da faktura edo dokumentua egin edo gorde ez den eragiketa bakoitzeko.

Zerga administrazioak egiaztatzen badu faktura egokia egiten ez dela eta ematen ez dela, eta inguruabar hori artean bukatu ez den zerga aldi batean egiaztatzen badu, 600 euroko isuna ezarriko da faktura egin ez eta eman ez den eragiketa bakoitzeko.”

Berrogei. 211 bis artikulua eranstean da; hona:

“211 bis artikulua. Zerga saihestearen aurkako klausularen operatibitate inguruabarren ziozko arau hausteak.

1. Zerga arloko arau haustea da zerga betebeharrak saihestea honako foru arau honetako 14. artikulua ezarritako aplikatuz erregularizatzen diren egintzak edo negozioak gauzatzen badira, ondoko inguruabarretako edozein egiaztatzen baldin bada:

a) Zerga zorraren guztizko zenbatekoa edo horren zati bat ez sartzea, tributu bakoitzaren araudiak ezarritako epearen barruan.

b) Tributu bakoitzaren araudiaren ziozko itzulketak bidegabe eskuratzea.

c) Itzulketa, zerga onura edo zerga pizgarriak bidegabe eskatzea.

d) Norberaren edo gainerakoen hurrengo aitortpenen oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kendu beharreko partida positiboak, negatiboak edo zerga kredituak bidegabe zehaztea edo egiaztatzea.

2. Aurreko idatz zatian azaldutako ez-betetzea zerga arloko arau haustea izango da erregularizazioaren xede den kasuaren eta administrazioaren irizpidea ezarrita duten inguruabar edo inguruabarren arteko funtsezko berdintasuna badagoela egiaztatzen denean, baldin eta aipatutako inguruabarra gizarteratu baldin bada jende orok jakin dezan aitorten edo autolikidazio egokia aurkezteko epea hasi baino lehen.

3. Halakoetan, honako zehapen hau ezarriko da:

a) Diruzko isun proportzionala, aurreko 1.a) idatz zatian adierazitako kasuan sartu ez den zenbatekoaren ehuneko 50ekoa.

b) Diruzko isun proportzionala, aurreko 1.a) idatz zatian adierazitako kasuan bidegabe itzuli den zenbatekoaren ehuneko 50ekoa.

c) Diruzko isun proportzionala, aurreko 1.a) idatz zatian adierazitako kasuan bidegabe eskatu den zenbatekoaren ehuneko 15ekoa.

d) Diruzko isun proportzionala, bidegabe zehaztutako edo egiaztatutako zenbatekoen ehuneko 10ekoa, zerga oinarrian konpentsatu edo kendu beharreko partidei dagokienez, edo ehuneko 30ekoa, kuotan kendu beharreko partidei edo itxurazko zerga kredituei dagokienez, aurreko 1.d) idatz zatiko kasua aintzat harturik.

4. Artikulu honetan ezarritako arau haustea eta zehapenak bateraezinak izango dira honako foru arau honetako 195, 197, 198 eta 199. artikuluek araututakoekin."

Berrogeita bat. 222. artikuluan 6. idatz zatia txertatzen da eta ondorioz lehengo 6., 7, 8. eta 9. idatz zatiak orain 7, 8., 9. eta 10. idatz zatiak dira, hurrenez hurren; hona idatz zati berria:

"6. Honako foru arau honetako 67. artikuluko 11. idatz zatiak jasotzen dituen kasuetan, errekurtsioak edo erreklamazioak zergapekoaren aldeko itzulketa onartzen duen zerga zor bati eragiten badiu, etetea lortzeko ezarri diren bermeek, aldi berean, errekurtsio edo erreklamazioaren osoko edo zatizko baiestearen ondorioz itzuli behar diren zenbatekoak bermatu beharko dituzte."

Berrogeita bi. 228. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

"1. Bidegabeko sarrerak itzultzeko eskubidea aintzatesten duen prozedura ofizioz edo interesdunak eskatuta hasiko da, honako kasu hauetan:

a) Zerga zorren edo zehapenen ordainketa birritan egiten denean.

b) Ordaindutako zenbatekoa administrazio egintzatik edo autolikidaziotik sortutakoa baino handiagoa denean.

c) Preskripzio epeak igaro ondoren, zerga zorrei edo zerga zehapenenei dagozkien zenbatekoak ordaindu direnean. Honako foru arau honetako 250. artikuluan ezarritako borondatezko erregularizazioan ordaindutako zenbatekoak ez dira inola ere itzuliko.

d) Zerga arloko araudiak hala ezartzen duenean.

Idatz zati honetan ezarritako prozedura erregelamendu bidez garatuko da, eta foru arau honetako 227. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko zaio.

Berrogeita hiru. 231. artikuluan 3. idatz zati txertatzen da eta ondorioz lehengo 3., 4., eta 5. idatz zatiak orain 4., 5. eta 6. idatz zatiak dira, hurrenez hurren; hona idatz zati berria:

"3. Zergapeko baten zerga betebeharrak bati lotuta dagoen beste zerga betebeharrak baten aurkako errekurtsioa osorik edo zati batez baiesten duen ebazpen bat betearazteko, honako foru arau honetako 67. artikuluko 11. idatz zatiak ezarritakoarekin bat etorritik, errekurritutakoa ez den zerga betebeharrak lotua erregularizatuko da, non Administrazioak erreklamazioaren xede den zerga betebeharraren likidazioa funtsetzeko irizpideak edo elementuak aplikatu dituen.

Erregularizazio horren ondorioz, errekurritutakoa ez den zerga betebeharrak lotua baliogabetzen bada eta errekurtsioan ebatzitakoaren arabera likidazio berria egiten bada, honako foru arau honetako 26. artikuluko 5. idatz zatia xedatutakoa aplikagarria izango da.”

Berrogeita lau. 235. artikuluko 1. idatz zatiko a) letra aldatzen da; hona testu berria:

“a) Foru arau honetako 232. artikuluan aurreikusten diren gaien inguruan Arabako Foru Al-  
dundiko organoek emandako administrazio egintzen aurka jartzen diren administrazioarekiko  
diru-erreklamazioak.”

Berrogeita bost. 236. artikulua aldatzen da; hona testu berria:

“236. artikulua. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak metatzea.

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak ondoko kasu hauetan metatu ahal izango dira,  
batera izapidetu eta ebazteko:

a) Interesdun bakarrak jarritakoak, prozedura bakarretik badatoz eta zerga berari buruzkoak  
badira.

b) Hainbat interesdunek aurkeztutakoak, zerga berari buruzkoak badira eta guztiak espe-  
diente bakarraren haritik sortu badira edo auzi berdin-berdinak mahairatzen badituzte.

c) Hainbat interesdunek administrazio egintza bakarraren aurka edo norbanakoen zerga  
jarduketa beraren aurka jarritako erreklamazioak.

d) Zehapen baten aurka jarritako erreklamazioa, hura sorrarazi duen zerga zorraren aurkako  
erreklamazioa aurkeztu bada.

2. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, arra-  
zoibidez metatu ahal izango ditu, bere aburuz, baterako ebazpenaren xede izan behar diren  
erreklamazioak, tributu bakarrari edo batzuei eragiten badieten arren, betiere erreklamazioen  
arteko lotura badago. Erreklamatzailerik batzuk badira eta haiek eskatu ez badute, bost eguneko  
epea eman beharko zaie aurretiaz egokituz jotzen dutena adierazteko metaketaren bidez koto-  
sunaren inguruan.

Atal honek jorratzen dituen metaketak baliorik gabe gera daitezke Arabako Lege eta Ad-  
ministrazio Erakundeak erreklamazioak banaka ebatzi behar direla egokituz jotzen duenean.

3. Erreklamazioak metatzeko erabakiak edo metatutako erreklamazioak baliorik gabe uzte-  
koak izapidetzeko egintzak izango dira eta ezin izango dira errekurritu.”

Berrogeita sei. 239. artikulua aldatzen da; hona testu berria:

“239. artikulua. Arau orokorrak.

1. Honako foru arau honetako 46. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako bideetako bat aurkeztu  
beharrizatik ez dela, borondatezko ordezkariak egiaztatutzat joko da Zerga administrazioak  
ordezkariak onartu bazuen aurkaratutako egintza eman zen prozeduran.

2. Prozedura ofizioz bideratuko da, eta ezarritako epeei men egingo zaie. Epeak ezin izango  
dira luzatu eta ez da beharrezkoa izango amaitu direla adieraztea.

3. Interesdunei eragiten dieten edo erreklamazio ekonomiko-administratiboari amaiera  
ematen dioten egintza eta ebazpen guztiak interesdunei jakinarazi beharko zaizkie, bitarteko  
elektronikoen bidez, adierazitako helbidean edo, bestela, foru arau honetako 108. artikulua  
ezarritakoari jarraiki.

Nahitaez, jakinarazpena bitarteko elektronikoz egingo interesdunentzat, eta erregelamendu  
bidez ezartzen diren baldintzetan, erreklamazioa bide hori erabiliz jartzea ezinbestekoa den  
kasuetan.

Jakinarazpenean, ebazpenaren testu osoa jasoko da. Gainera, zein errekurtsio jar daitekeen adieraziko da, zein organori aurkeztu behar zaizkion eta zein epetan jarri behar diren. Nolanahi ere, interesdunek egokitzat jotzen duten beste edozein errekurtsio erabili ahal izango dute.

4. Prozedura ekonomiko-administratiboa doakoa izango da. Hala eta guztiz ere, erreklamazioa edo errekurtsioa gaitzesten bada edo onartzen ez bada, eta Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak ausarkeria, gaitzuste edo asmo txarrik igartzen badu, ausarkeriaz edo asmo txarrez jokatu duen pertsona horri eskatu ahalko zaio prozeduraren kostuak ordain ditzala, erregelamendu bidez ezarritako irizpideei jarraiki.

Kostuak ordaintzeko kondena ematen den ebazpenean bertan ezarriko da, eta Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak gaitzuste edo ausarkeria antzemateko modua berariaz aipatuko da, bai eta zigorraren zenbatekoa ere.

5. Prozedura ekonomiko-administratiboa kapitulu honetan araututako xedapenen eta prozedura garatzeko ematen diren arauzko xedapenen arabera ezarriko da.

Berrogeita zazpi. 240. artikulua aldatzen da; hona testu berria:

“240. artikulua. Prozedura hastea

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboa Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen aurrean jarriko da, hilabeteko epean, aurkaratzen den egintza jakinarazten den egunaren hurrengotik hasita, edo atxikipena zein konturako sarrera, erreklamazioaren zio den jasanarazpena edo ordezkioaren eta zergadunaren arteko harremanetatik sortutako ordezkioa egin dela edo egin gabe utzi dela egiaztatzen den egunaren hurrengotik hasita.

Bestalde, erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri ahal izango da administrazioaren isiltasunak ondoreak sortzen dituen egunaren hurrengotik aurrera.

Erreklamazioa jarri ondoren eta ebatzi baino lehen, esanbidezko ebazpenik emanez gero, Arabako Lege eta Administrazio Erakundera helaraziko da, interesdunari jakinarazi ondoren.

Jakinarazpenean ohartarazi beharko da, ezen edukiaren arabera, esanbidezko ebazpena bide ekonomiko-administratiboan aurkaratutzat joko dela edo prozeduraren amaiera ekarriko duela uziak prozesutik kanpo betetzeagatik. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak ebatziko du aipatutako betetzea.

Nolanahi ere, hilabeteko epea emango da, jakinarazpena bidaltzen den egunaren hurrengotik hasita, interesdunak egokitzat jotzen dituen alegazioak Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen aurrean egitea izan dezan. Alegazio horietan, interesdunak aurreko paragrafoan adierazitako ondorioez aritu ahalko da. Eta egin ezean, aipatutako ondorioekin bat datorrela ulertuko da.

Enpresaburu eta profesionalen fakturak egin eta emateko betebeharrari buruzko erreklamazioei dagokienez, aurreko paragrafoak aipatzen duen epea betebeharrari gauzatzeko formalki eskatu denetik hilabete igarotzen denean hasiko da zenbatzen.

Aldian-aldean mugaeguneratzen diren eta taldeka jakinarazi behar diren zorrak direnean, erreklamazioa ordaintzeko borondatezko aldean jar daiteke edo, bestela, hilabeteko epean, errekurtsioa amaitzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.

2. Prozedurari ekiteko, idazkia aurkeztu beharko zaio Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari; idazki horretan, nahikoa izango da erreklamazioa aurkeztutzat jo dezala eskatzea, erreklamazioa identifikatzea, zein egintza edo jarduketari aurka egiten zaion adieraztea eta jakinarazpenetarako helbidea ematea. Gainera, erreklamazioak alegazioak erantsi ahalko ditu, bere eskubidea funtsatzeko xedez.

Atxikipen, konturako sarrera, jasanarazpen, faktura egin eta emateko betebeharrak eta ordezkaren eta zergadunaren arteko harremanei buruzko erreklamazioetan, errekurritutako pertsona identifikatzeko datuak eta haren egoitza ere adierazi beharko dira idazkian. Horrez gain, erreklamatzailerak eskura dituen edo erregistro publikoetan dauden aurrekari guztiak erantsi beharko ditu.

3. Erreklamazioa nahitaez aurkeztu beharko da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa erabiliz, erreklamatzailerak komunikazioak eta jakinarazpenak ezinbestean bitarteko elektronikoa erabiliz jaso behar dituztenean.”

Berrogeita zortzi. 241. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“1. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak, espedientea jaso eta, behar izanez gero, osatu ondoren, espedientea ikusgai jarriko du erreklamazioan agertu diren baina idazkian alegaziorik egin ez duten interesdunentzat, baita idazkian alegazioak egin eta berariaz izapide hori eskatu duten interesdunentzat ere, eta denei hilabeteko epea ezarriko die espedientea aztertu eta alegazio-idazkia aurkez dezaten, egoki deritzeten frogekin batera.

Espediente elektronikoen agerrarazpena bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa bidez egin ahal izango da eta, era berean, alegazioak eta frogabideak bitarteko horiek erabiliz aurkeztu ahal dira. Erreklamazioa era elektronikoz jarri behar dutenek bide hori erabiliz aurkeztu beharko dituzte alegazioak, frogak eta beste edozein idatzi. Bide hori erabiliz, izapidetza galarazten duen akatsa, Zerga administrazioari egotzi ahal zaiona, gertatuz gero, Arabako Foru eta Administrazio Organoak neurriak hartu beharko ditu interesdunari kalterik ez eragiteko; ildo horretan, besteak beste, beste epe bat eman ahal izango du, aurretiaz emandako epea luzatu ahal izango du edo beste bitarteko batzuk erabiliz egiteko baimena eman ahal izango du.”

Berrogeita bederatzia. 3. idatz zati berria sartzen da 242. artikuluan; hona testua:

“3. Prozedura erregelamendu bidez garatuko da, judizio aurreko auziak Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean aurkeztu ahal izateko. Interesdunek auzi prejudizialaren proposamena erreklamazioan edo errekurtsio ekonomiko-administratiboan eskatu ez badute, epaiketa gertatu baino lehen, hamabost eguneko epea emango zaie interesdunei alegazioak egitea izan dezaten, bakar-bakarrik lehen esandako proposamenaren aukerari dagokionez.

Nolanahi ere, auzi prejudiziala proposatu aurretik, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak hamabost eguneko epea emango dio egintzaren sustatzailea den administrazio organoari, alegazioak egin ditzan.

Uzi prejudizialen bat Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean aurkeztuz gero, aurreko ataletan esandakoaren arabera, prozedura ekonomiko-administratiboa eten egingo da hasieratik bertatik, harik eta auzi prejudiziala ebazten duen ebazpena jaso arte. Era berean, proposatutako auzi prejudizialaren emaitzaz jakin behar duten prozedura ekonomiko-administratibo guztiak eten egingo dira. Etendura interesdunei jakinaraziko zaie, prozedura ekonomiko-administratiboan bertan, eta hortaz, honako foru arau honetako 65. artikulua jasotzen dituen eskubideen preskripzioaldiaren etendura sorraraziko du jakinarazpenak, baina aldia berriro zenbatzen hasiko da proposatutako auziaren ebazpena Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak jaso ondotik.”

Berrogeita hamar. Honela geratzen da 243. Artikulua:

“243. artikulua. Bukatzea.

1. Prozedura honako kasuetan amaituko da: erreklamazioak oinarritzat duen eskubideari uko egiten zaionean, eskaera edo auzialdia bertan behera uzten denean, berau iraungitzen denean, prozeduraren xedea galtzen denean edo auzia prozesutik kanpo konpontzen denean, eta ebazpena ematen denean.

2. Erreklamatzailleak uko egiten badu edo atzera egiten badu, auzialdia iraungitzen bada, prozeduraren xedea galtzen bada edo auzia prozesutik kanpo konpontzen bada, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak jarduketak artxibatzea erabakiko du, arrazoiak azalduta.

Jarduketak artxibatzeko erabakia honako foru arau honetako 244. artikuluko 245.bis idatz zatian xedatutakoarekin bat etorri berrikusi ahal izango da.”

Berrogeita hamaika. Honela geratzen da 244. artikulua:

“244. artikulua. Ebazpena.

1. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak ezin izango du ebatzi gabe utzi bere esku jarritako erreklamaziorik. Hori dela eta, ezin izango du arrazoizko zalantzarik alegatu, ezta legezko manueta hutsunerik ere.

2. Ematen diren ebazpenetan, oinarritzat hartu diren egitatezko aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak jaso beharko dira, eta horien arabera espedientean agertzen diren auzi guztiak erabakiko dira, interesdunak aurkeztutakoak izan zein ez.

3. Ebazpena baiestekoa, ezestekoa edo onartezintasuna deklaratzekoa izan daiteke. Ebazpena baiestekoa izanez gero, aurkaratutako egintza osorik edo zati batean deuseztatu ahal izango da, funtsezko oinarriak edo formazko okerrak direla medio.

Ebazpenean erreklamatzaillea babesteko aukerak murrizten dituen formazko akatsen bat antzematen bada, egintza deuseztatu egingo da akatsa duen zatian, eta jarduketetan atzera egiteko aginduko da, formazko okerra gertatu zen unera itzultzeko.

Aurreko paragrafoan jasotako kasuan izan ezik, Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen erabakien ondoriozko egikaritze egintzak, baita likidazioak gauzatzea ere, ez dira sartuko aurkaratzearen xedea duen egintzan jatorria daukan prozeduran.

Atzeraeraginezko kasuetan izan ezik, ebazpena gauzatzeko egintza guztiak hilabeteko epean jakinarazi beharko dira, ebazpena betearazteko eskumena daukan organoaren erregistroan sartzen den egunetik zenbatzen hasita. Ez da berandutza interesik eskatuko administrazioak hilabeteko epea urratzen duenetik.

4. Erreklamazioa onartezina dela deklaratu da ondoko kasuetan:

a) Bide ekonomiko-administratiboko erreklamazio edo errekurtsorik ezin jar dakiekeen egintzak edo ebazpenak aurkaratzen direnean.

b) Erreklamazioa epez kanpo aurkezten denean.

c) Erreklamazioa zein egintza edo jarduketaren aurka jartzen den adierazten ez denean.

d) Erreklamazioa jartzeko idazkian ageri den eskaerak errekurritu den egintza edo jarduketarekin zerikusirik ez duenean.

e) Legitimazio edo ordezkaritzak akatsak daudenean.

f) Erreklamazioa jarri zaion egintzaren oinarri bakarra beste egintza irmo eta onartu bat denean; lehenagoko egintza irmo eta behin betikoen berdinak diren egintzak errekurritzen direnean; onartutako beste egintza batzuk berresten dituzten egintzak errekurritzen direnean; eta gauza epaitua dagoenean.

5. Ematen den ebazpenak eragin osoa izango du erreklamazioa jakinarazi zaien interesdun guztientzat.

Honako foru arau honetako 233. artikuluko 4. idatz zatian jasotzen diren norbanakoek jarduketa edo ez-betetzei buruzko erreklamazioetan, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak ematen dituen ebazpenak irmoak direnean, Zerga administrazioa lotetsiko dute, ebazteko aintzat hartu diren egitateen kalifikazio juridikoari dagokionez, egiaztatzeko eta ikertzeko eskumenei kalterik egina gabe. Ondore horretarako, ebazpenak Zerga administrazioari jakinaraziko zaizkio.

6. Faktura egiteko betebeharra ezartzen duen Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen ebazpena legez ezarritako epean betetzen ez denean, erreklamatazaileak, erreklamatuaren izenean eta haren kontura, eragiketa dokumentatzen den faktura egin ahal izango du, honako arau hauei jarraiki:

1. Ahalmen horren erabilera idatziz jakinarazi beharko zaio Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari, epaitza bete ez, eta faktura egokia egingo dela adierazita. Era berean, erreklamatuari jakinarazi beharko dio, hartu agiria egiaztatzen duen zeinahi bide erabilita, arestian aipatutako ahalmena erabili egingo duela.

2. Erreklamatazaileak prestatu beharko du eragiketa dokumentatzeko faktura, eta eragiketaren hartzaile gisa agertuko da; igorlea, berriz, betebeharra urratu duena izango da.

3. Erreklamatazaileak fakturaren kopia bidaliko dio erreklamatuari eta jatorrizko faktura gordeko du. Halaber, faktura horren kopia eta, emandako ebazpenaren ez-betetzearen berri jakinarazteko, Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen aurrean aurkeztutako idazkiaren kopia bidali beharko dio Zerga administrazioari.

7. Zergapeko baten zerga betebeharrak bati lotuta dagoen beste zerga betebeharraren aurkako errekurtsua osorik edo zati batez baiesten duen ebazpen bat betearazteko, honako foru arau honetako 67. artikuluko 67.11. idatz zatiak ezarritakoarekin bat etorritik, errekurritutakoa ez den zerga betebeharrak lotua erregularizatuko da, non Administrazioak erreklamazioaren xede den zerga betebeharraren likidazioa funtsatzeko irizpideak edo elementuak aplikatu dituen.

Erregularizazio horren ondorioz, errekurritutakoa ez den zerga betebeharrak lotua baliogabetzen bada eta errekurtsuan ebaztitakoaren arabera likidazio berria egiten bada, honako foru arau honetako 26. artikuluko 5. idatz zatiak xedatutakoa aplikagarria izango da."

8. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak behin eta berriz ezartzen duen doktrinak Zerga Administrazioa lotetsiko du."

Berrogeita hamabi. 245 bis artikulua berria eranstean da; hona:

"245.bis artikulua. Deuseztatzeko errekurtsua.

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboaren ebazpenaren aurka, deuseztatzeko errekurtsua jarri ahal izango da Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen aurrean, hamabost eguneko epean, bakar-bakarrik ondoko kasuetan:

a) Erreklamazioaren onartezintasuna behar bezala adierazten denean.

b) Bide ekonomiko-administratiboan aurkeztu diren alegazioak edo frogak hutsalak deklaratu direnean.

c) Ebazpenaren erabateko eta ageriko kongruentziarik eza dagoela alegatzen denean.

2. Era berean, honako foru honen 243. artikuluan jasota dagoen jarduketak artxibatzeko erabakiaren aurkako deuseztatzeko errekurtsua jarri ahal izango da.

3. Errekurtsu hori ezin izango da berriro erabili ebazpenaren aurrean. Deuseztatzeko errekurtsua ez da bidezkoa izango berrikusteko errekurtsu bereziaren ebazpenaren aurrean.

4. Errekurtsu idazkian alegazioak jasoko dira eta bidezko frogak erantsiko dira. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak hilabeteko epean ebaztuko du, beste izapiderik gabe, eta horrela ez bada, ezetsi dela ulertu beharko da.

5. Deuseztatzeko errekurtsua jartzeak ez du etengo administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzeko epea.

Berrogeita hamahiru. 245.ter artikulua eranstean da; hona:

"245 ter artikulua. Betearazpenaren aurkako errekurtsua.

1. Ebazpen ekonomiko-administratiboak betearazteko egintzak zehatz-mehatz lotuko zaizkie horien erabakiei.



2. Interesduna ebazpen ekonomiko-administratibo bat betearaztearren eman diren egintzekin bat ez badator, honako errekurtsio hau aurkeztu ahal izango du.

3. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak eskumena izango du errekurtsio horretaz jakiteko. Hala, emandako ebazpenak gauzatu beharreko baldintza zehatzak ezarri ahal izango ditu, epaitza taxuz betearazteko.

4. Hilabeteko epea egongo da errekurtsio hau jartzeko, errekurritu daitekeen egintza jakinarazten den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.

5. Errekurritutako egintzaren etendura ez da inola ere onartuko gai berririk proposatzen ez badira, betearazten ari den ebazpen ekonomiko-administratiboa aintzat hartuta.

6. Ezin izango da berraztertze errekurtsorik jarri betearazpenaren aurkako errekurtsioaren aurretik.

7. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak betearazpenaren aurkako errekurtsioa onartezina dela deklaratu du betearazten ari den ebazpenean bertan aurkezten diren auziei dagokienez, dagoeneko erabaki diren gaiei buruz, ebazpena betearazten ari deneko erreklamazioan aurkez zitezkeen gaiei dagokienez, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 244. artikuluko 4. idatz zatian aipatutako kasuetako bat gertatzen denean.”

Berrogeita hamalau. 246. artikuluari 5. idatz zatia gehitzen zaio; hona:

“5. Berrikusteko errekurtsio bereziaren ebazpena sei hilabeteko epean emango da. Epe hori igarotzen bada berriazko ebazpenik jakinarazi gabe, interesdunak errekurtsioa ezetsi dela ulertu beharko du.”

Berrogeita hamabost. VI. titulu berria erantsi da, behean ageri den eran:

## “VI. TITULUA

### **Tributuak aplikatzeko jarduketak eta prozedurak Ogasun Publikoaren aurkako delitu kasuetan**

#### **248. artikulua. Likidazioen gauzapena Ogasun Publikoaren aurkako delituen zantzuak agertzen direnean**

1. Zerga administrazioak Ogasun Publikoaren aurkako delitu zantzuak hautematen ditue-nean, prozeduraren izapidetzeari eutsiko zaio aplikagarriak diren arau orokorre jarraiki, erruduntasun testigantza jurisdikzio eskumendunari emateari edo espedientea Fiskaltzara helarazteari kalterik egin gabe, honako titulu honetan ezarritako araei jarraiki.

Hurrengo artikuluan jasotako kasuetan izan ezik, egiaztapenaren xede den zerga betebeharra osatutako elementuen likidazioa ematea bidezkoa izango da, eta zenbait likidaziotan banatuko dira Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delituari lotutako kasuak eta Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delituari lotzen ez zaizkion kasuak.

2. Hala badagokio, ematen den likidazioak, Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delituari lotzen zaizkion zerga betebeharraren elementuei doakiena, honako titulu honetan ezarritakoari men egingo dio.

Honako atal honetan jasotzen diren inguruabarretan, administrazioak ez du hasiko, edo hala badagokio, ez jarraituko, egitate horiei lotutako zehapen prozedura. Zehapen prozedura hasi bada, prozedura aurretiaz bukatu ez bada, bukaera gertatu dela ulertuko da, hala dagoki-nean, erruduntasun testigantza jurisdikzio eskumendunari ematen zaionean edo espedientea Fiskaltzari helarazten zaionean, zehapen prozedura berria hasteko aukerari kalterik egin gabe, atal honen azken paragrafoan jasotako kasuetan.

Agintaritzea judizialaren kondena epaiak administrazio zehapena ezartzea eragotziko du.

Deliturik badagoela hautematen ez bada, Zerga administrazioak, bidezkoa denean, administrazioaren zehapen prozedura hasaraziko du auzitegiek frogatutzat jotako egitateetan oinarriturik.

3. Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delituari lotzen ez zaizkion zerga kontzeptuen inguruan ematen den likidazioaren izapidetzea prozedura arrunt egokiaren arabera egingo da, honako foru arau honetako III. tituluaren IV. kapituluan xedatutakoari jarraiki, eta V. tituluaren ezarritako berrikuspen araubideari men egingo dio.

#### **249. artikulua. Likidazioen gauzapenaren salbuespenak, Ogasun Publikoaren aurkako delituen zantzuak agertzen direnean**

1. Zerga administrazioak Ogasun Publikoaren aurkako delitu zantzuak hautematen ditueanean, erruduntasun testigantza emango dio jurisdikzio eskumendunari edo espedientea helaraziko dio Fiskaltzari, baina ez du gauzatuko honako foru arau honetako 248.2 artikuluan jasotzen den likidazioa, honako inguruabar hauetan:

a) Likidazio administratiboaren izapidetzeak delituaren preskripzioa sorraz dezakeenean, Zigor Kodearen 131. artikuluan ezarritako epeak aintzat hartuta.

b) Ikerketaren edo egiaztapenaren ondorioz, likidazioaren zenbatekoa zehazterik ez dagoenean edo zergapeko jakin bati egozterik ez dagoenean.

c) Likidazio administratiboak eraren batean kalterik eragin diezaiokenean zerga iruzurraren ikerketari edo egiaztapenari.

Arestian azaldutako kasuetan, Zerga administrazioak aurkeztutako salaketa edo kereila idazkiaz gain, likidazioa ez emateko erabaki administratiboa ekarri duten inguruabarrak gertatzen direlako erabaki arrazoitua ere helaraziko da.

Kasu horietan, ez zaio entzunaldirik edo alegazioak egiteko aukerarik emango zergapekoari.

2. Aurreko atalean azaldutako inguruabarretan, administrazioak ez du prozedura administratiborik hasaraziko edo, hala badagokio, ez jarraituko. Prozedura hori etenda geratuko da agintaritzak judizialak epai irmoa eman arte, jarduketak largetsi edo artxibatu arte edo Fiskaltzak espedientea itzuli arte.

Hala eta guztiz ere, zehapen prozedura hasarazi bada, bukatutzat joko da, hala dagokionean, erruduntasun testigantza jurisdikzio eskumendunari ematen zaionean edo espedientea Fiskaltzari helarazten zaionean, zehapen prozedura berria hasteko aukerari kalterik egin gabe, azkenean, deliturik hauteman ezean eta, hala badagokio, auzitegiek frogatutzat emandako egitateen arabera.

Erruduntasun testigantzaren emateak edo espedientea helarazteak zerga zorra zehazteko eskubidea preskribatzeko eta zehapena ezartzeko epeak etengo ditu, honako foru arau honetako 67.1 eta 193.3 artikuluetan ezarritakoei jarraiki.

Agintaritzak judizialaren kondena epaiak administrazio zehapena ezartzea eragotziko du.

Salatutako egitatez den bezainbatean, etendura aldi egin diren egiaztapen eta ikerketa prozeduraren jarduketak hutsaltzat hartuko dira.

3. Aurreko kasuetan, deliturik badagoela hauteman ezean, Zerga administrazioak jarduketak hasarazi edo garatuko ditu jurisdikzio organoek honako foru arau honetako 147. artikuluko 1. idatz zatian jasotako epea amaitu arteko aldi egin edo, hori luzeagoa izango balitz, sei hilabeteko epean frogatutzat emandako egitateetan oinarriturik. Aipatutako epea zenbatzen hasiko da prozedurari eutsi behar dion organo eskumendunak ebazpen judiziala edo Fiskaltzak itzulitako espedientea jasotzen duen unetik aurrera.

Preskripzio epeen zenbaketa berriro hasiko da indarrean ebazpen judiziala Zerga administrazio eskumendunaren erregistroan sartzen den unean.

**250. artikulua. Borondatezko erregularizazioa**

Zerga administrazioak ez dio erruduntasun testigantza jurisdikzio eskumendunari emango, ez espedientea Fiskaltzari helaraziko, zergapekoak zerga egoera erregularizatu duela agertzen ez bada. Erregularizazioa gauzatzeko, zergapekoak zerga zorra erabat aitortu eta ordaindu beharko du erregularizazioaren xede den zerga zorra zehazteko egiaztapen eta ikerketa jarduketak hasaraziko direla jakinarazi baino lehen edo, jarduketak egin ezean, Fiskaltzak, Estatuko abokatuak edo Arabako Foru Aldundiko ordezkari prozesalak zergapekoaren aurkako kereila edo salaketa jarri baino lehen, edo Fiskaltzak edo instrukzio epaileak eginbideak hasi direlako jakintza formalaren berri ematen dioten jarduketak hasi baino lehen.

Zerga zorra honako foru arau honetako 57. artikuluan jasotzen diren elementuek osatzen dute. Zergapekoak autolikidazioa egin eta aldi berean ordaindu beharko ditu zergaren kuota, berandutza interesak eta ordaintzeko data izan arte legez sortu diren errekariguak. Hala eta guztiz ere, nork bere borondatez erregularizatutako tributuak autolikidazio prozeduraren bidez eskatzen ez direnean, zergapekoak aitorten egokia aurkeztu beharko du, eta Zerga administrazioak likidatutako zerga zorraren zenbateko osoa ordaindu beharko du zerga arloko araudian ezarri den ordainketa epearen barruan.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikagarria izango da, zerga zorraren zenbatekoa zehazteko helburuz, erregularizazioa administrazioaren eskubidea preskribatuta dagoela egiten denean.

Artikulu honen lehen paragrafoan jasotzen den erabateko aitortpena eta ordainketa zilegi direla zehazteko, Zerga administrazioak bidezko egiaztapen edo ikerketa jarduketak garatu ahalko ditu, nahiz eta jarduketa horiek honako foru arau honetako 65.a) artikuluan arautzen den preskripzioa bete duten zergaldi eta zerga kontzeptuei eragin.

**251. artikulua. Ikuskapen prozedura izapidetzea, likidazioa egitea bidezkoa denean**

1. Zerga administrazioak Ogasun Publikoaren aurkako delitu zantzuak hautematen dituzenean eta likidazioa ematea galarazten duten arrazoiak gertatzen ez direnean, honako foru arau honetako 249. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoari jarraiki, delituari lotutako likidazioa formalizatzea bidezkoa izango da, eta bertan, proposamena zer egitatetan eta zuzenbideko oinarritan funtsatzen den adieraziko da.

Proposamena zergapekoari jakinaraziko zaio eta entzunaldia emango zaio, haren eskubideari doakiona alegatzea izan dezan, egutegiko hamabost eguneko epean, proposamena jakinarazten den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.

Inongo kasutan, administrazio izapidetzean gertaturiko prozedurazko akatsek iraungiaraziko dute delituari lotutako zerga betebeharra, ez osorik, ez zati batean, ezta honako foru arau honetako 147. artikuluko 2. atalean ezarritakoak ere, Zerga administrazioak zerga zorraren likidazioa gauzatzeko helburuz garatu dituen jarduketei dagokienez, horietatik eratorritakoei kalterik egin gabe, Fiskaltzak espedientea itzultzen badu edo honako foru arau honetako 255.2 c) artikuluko araututako doiketa gauzatzeko beharra agintzen duen ebazpen judizial irmoa ematen bada, Ogasun Publikoaren aurkako deliturik badagoela hauteman ez delako.

Entzunaldiaren izapidea baliatzeko epea igarota eta, hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertuta, organo eskumendunak likidazio administratiboa emango du, eta Zerga administrazio eskumendunaren baimena izango du, aurretiaz edo aldi berean, salaketa edo kereila aurkezteko, bidezko erregularizazioak Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delitua agerian jartzen duenean.

Likidazio administratiboa eman ondoren, Zerga administrazioak erruduntasun testigantza jurisdikzio eskumendunari emango dio edo espedientea Fiskaltzari helaraziko dio eta egiaztapen prozedura bukatuko da, likidazio horren bidez erregularizatu diren zerga betebeharraren elementuei dagokienez, zergapekoak likidazioaren jakinarazpena jasotzen duenean. Jakinarazpenean, ohartaraziko da ordainketaren borondatezko aldia bakar-bakarrik zenbatzen hasiko dela salaketa edo kereilaren izapidetzea onartu dela jakinarazten denean, honako foru arau honetako 253. artikuluko ezarritako baldintzei jarraiki.

Erruduntasun testigantzaren emateak edo espedientea helarazteak zerga zorra zehazteko eskubidea preskribatzeko eta zehapena ezartzeko epeak etengo ditu, honako foru arau honetako 67.1 eta 193.3 artikuluetan ezarritakoei jarraiki.

2. Salaketa edo kereila ez onartzeak ikuskapen jarduketan atzeraeragina ekarriko du delituari lotutako likidazioaren proposamena eman zeneko unearen aurrekora, eta kasu horretan, bidezkoa izango da akta egokia formalizatzea. Akta izapidetuko da honako foru arau honetan eta hori garatzeko araudian ezarritakoei jarraiki.

Ikuskapen jarduketan bukaerak men egingo dio honako foru arau honetako III. tituluaren IV. kapituluaren 3. atalaren 3. azpiatalean xedatzen denari.

Prozedurak amaitu beharko du jarduketek atzera egiten duten unetik honako foru arau honetako 147. artikuluko 1. idatz zatian jasota dagoen epea amaitu arte doan aldiaren barruan, edo bestela, sei hilabeteko epean, esandako aldia luzeagoa bada. Aipatutako epea zenbatzen hasiko da prozedurari eutsi behar dion organo eskumendunak ebazpen judiziala edo Fiskaltzak itzulitako espedientea jasotzen duen unetik aurrera.

Prozedurari amaiera ematen dion likidazio berriagatiko berandutza interesak eskatuko dira. Berandutza interesak zenbatzen hasteko data izango da, honako foru arau honetako 26. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz, baliogabetutako likidazioari egokituko zitzaion data berdina, eta interesa likidazio berria eman arte joan den unera arte sortuko da.

Halako kasuetan, zorraren zenbatekoa zehazteko eskubidea preskribatzeko epeak zenbatzen hasiko dira eta zehapena ezarriko da, honako foru arau honetako 67. artikuluko 7. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz.

3. Zerga kontzeptu eta zergaldi bakarrari erreparaturik, Ogasun Publikoaren aurkako delitua eragin dezakeen doloeko jokabidea hauteman deneko elementuak eta aipatutako doloeko jokabide hori hauteman ez deneko elementu eta erregularizatu beharreko zenbatekoak bereizi behar direneko kasuetan, bi likidazio bereiz egingo dira.

Bi likidazio horien zenbateko zehazteko, delituari lotutako likidazioaren proposamena eta ikuskapen akta formalizatuko dira, ondoko araei jarraiki:

a) Delituari lotutako likidazioaren proposamenak aitorpenaren xede izan diren elementuak bilduko ditu eta, hala badagokio, doloa edo iruzurra hauteman den elementu guztiak erantsiko zaizkie lehenengoei; bestetik, zergapekoak eskubidez balia ditzakeen aldeko doiketak kenduko dira, bai eta, izaera osagarri, oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kendu beharreko partidak ere. Aurkeztutako aitorpenean ordaindu beharreko kuota zehaztu bada, zenbateko hori kenduko da likidazioaren proposamena kalkulatzeko helburuz.

b) Aktan jasotako likidazioaren proposamenak egiaztatutako elementu guztiak bilduko ditu, ustezko delituari lotutakoak zein loturarik ez dutenak, eta aurreko letran jasotzen den likidazio proposamenean ateratzen den zenbatekoa kendu egingo da.

Hala ere, zergapekoak bi kuotak kalkulatzeko sistema aplikatu ahal izango du. Sistema horren funtsa dugu oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kendu behar diren partiden proportziozko aplikazioa, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzei jarraiki. Aukera horren berri eman beharko zaio administrazioari delituari lotutako likidazioaren proposamena jakinarazi ondoko alegazioen epearen barruan.

## **252. artikulua. Likidazioak aurkaratzea**

1. Foru arau honetako 248.2 artikulua ezarritakoaren ondorioz emandako likidazio administratiboaren aurrean, ezin da errekurtsorik edo erreklamaziorik jarri administrazio bidean, zigor prozesuan ebazten denaren arabera, bidezkoa den doiketari kalterik egin gabe, Zigor Kodeko 305. artikuluan eta honako foru arau honetako 255. artikuluan ezarritakoekin bat etorriz; hala, bada, zigor arloko epaileari dagokio epai bidez zehaztea Ogasun Publikoaren aurkako delituei lotutako iruzurrezko kuota, Zigor Kodeko 305. artikuluko 5. idatz zatian eta honako foru arau honetako VI. tituluaren araututakoaren eredura likidatuko litzatekeena.

Inongo kasutan, administrazio izapidetzean gertaturiko prozedurazko akatsek iraungiara-ziko dute delituari lotutako zerga betebeharra, ez osorik, ez zati batean, ezta honako foru arau honetako 147. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoak ere, Zerga administrazioak zerga zorraren likidazioa gauzatzeko helburuz garatu dituen jarduketei dagokienez.

2. Ustezko delituari lotzen ez zaizkion elementu eta zenbatekoen erregularizazioaren ondorioz sortutako likidazioaren aurrean, honako foru arau honetako V. tituluaren ezarritako errekurtsioak eta erreklamazioak jarri ahalko dira.

### **253. artikulua. Likidatutako zorraren bilketa, Ogasun Publikoaren aurkako delituen zantzuak agertzen direnean**

Foru arau honetako 248. artikuluko 2. idatz zatian jasotzen diren inguruabarretan, Ogasun Publikoaren aurkako delituagatiko zigor prozedura abiarazteak ez ditu likidatutako zerga zorra kobratzeko administrazio jarduketak geraraziko, epaileak betearazpen jarduketak etetea erabaki ezean.

Aurreko paragrafoan aipatu diren kobratzeko administrazio jarduketek honako foru arau honetako III. tituluaren V. kapituluaren ezarritako arau orokorreari men egingo diete, honako titulu honetan jasotako jarduketa bereziek izan ezik.

Ogasun Publikoaren aurkako delituagatiko salaketa edo kereila onartu eta gero, Zerga administrazioak zergapekoari jakinaraziko dio ordaintzeko borondatezko epea noiz hasten den, eta likidatutako zerga zorraren zenbatekoa honako foru arau honetako 61. artikuluko 2. idatz zatian jasotako epearen barruan ordaintzeko errekerimendua egingo dio.

### **254. artikulua. Diru bilketaren aurreko aurkakotzaren arrazoiak**

Foru arau honetako 248. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoari jarraiki likidatutako zerga zorra kobratzeko garatzen diren diru bilketaren egintzen aurrean, honako foru arau honetako 171.3, 174.3 eta 176.1 artikuluko bigarren paragrafoan agertzen diren arrazoiak baino ezin izango dira aurkaratu, eta horien berrikuspina honako foru arau honetako V. tituluaren ezarritakoari jarraiki egingo da.

### **255. artikulua. Ebazpen judizialaren ondorioak zerga likidazioaren gainean**

1. Foru arau honetako 248. artikuluko 2. idatz zatian jasotzen diren inguruabarretan, zerga administrazioak emandako likidazioak zigor prozesuan azkenean erabakitzen denari men egingo dio, iruzurrik egon dela ebazteari eta iruzurraren zenbatekoari dagokienez.

2. Doiketa honela egingo da:

a) Zigor prozesuan Ogasun Publikoaren aurkako delituagatiko kondena epaia emango balitz eta, prozesu horretan, administrazio bidez likidatutako iruzurrezko kuota berdina zehaztuko balitz, ez da egindako likidazioa aldatu behar, berandutza interesen eta dagozkion errekarguen likidazioari kalterik egin gabe.

Zigor arloan zehaztutako iruzurrezko kuota eta administrazio bidez zehaztutakoa desberdina izango balira (lehenengoa bigarrena baino handiagoa ala txikiagoa izango balitz), honako foru arau honetako 248. artikuluko 2. idatz zatian araututakoaren eredura emandako likidazioa aldatu behar litzateke. Kasu horretan, hasierako egintzak iraungo du, eta zuzendu egingo da epaiaren edukiarekin bat etorritik, zigor prozesuan iruzurrezko kuotatzat finkatu denari egokitzeke.

Zerga administrazioak aurreko paragrafoan ezarritakoaren eredura egikaritutako aldaketak ez du eraginik izango lehendik egindako diru bilketako jarduketan baliozkotasunean, zigor prozesuan berretsi den zenbatekoari dagokionez.

Aldatzeko erabakia auzitegi eskumendunari helaraziko zaio, hark betearaz dezan, bai eta ordaindu behar duen zergapekoari eta zigor prozesuan bertaratu diren gainerako alderdiei ere.

Zigor prozesuan zehazten den iruzurrezko zenbatekoa administrazio bidez zehaztutakoa baino txikiagoa izango balitz, zerga arloko araudian ondore horretarako ezarritako arau orokorrrak aplikagarriak izango dira, sarreren itzulketari eta bermeen kostuaren itzulketari dagokienez.

b) Azkenik, zigor prozesuan deliturik aurkitzen ez bada zerga betebeharririk ez dagoelako, administrazio bidez egindako likidazioa deuseztatu egingo da, eta zerga arloko araudian ondore horretarako ezarri diren arau orokorrak aplikagarriak izango dira, sarreraren itzulketari eta bermeen kostuaren itzulketari dagokienez.

c) Zigor prozesuan ebazpen irmorik emango balitz, zerga betebeharraren ez-izatez besteko arrazoi baten ziozko deliturik ez dagoela ebatzita, emaitzak ikuskapen jarduketan atzeraeragina ekarriko du honako foru arau honetako 251. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako eta delituari lotutako likidazioaren proposamena eman zeneko unearen aurrekora, organo judizialak frogatutzat eman dituen egitateak aintzat hartuta. Halakoetan akta formalizatuko da, eta honako foru arau honetan eta hori garatzeko araudian ezarritakoei jarraiki izapidetuko da.

Ikuskapen jarduketan bukaerak men egingo dio honako foru arau honetako III. tituluaren IV. kapituluaren 3. atalaren 3. azpiatalean xedatzen denari.

Prozedurak amaitu beharko du jarduketek atzera egiten duten unetik honako foru arau honetako 147. artikuluko 1. idatz zatian jasota dagoen epea amaitu arte doan aldiaren barruan, edo bestela, sei hilabeteko epean, esandako aldia luzeagoa bada. Aipatutako epea zenbatzen hasiko da prozedurari eutsi behar dion organo eskumendunak espedientea jasotzen duen unetik aurrera.

Prozedurari amaiera ematen dion likidazio berriagatiko berandutza interesak eskatuko dira. Berandutza interesak zenbatzen hasteko data izango da, honako foru arau honetako 26. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz, baliogabetutako likidazioari egokituko zitzaion data berdina, eta interesa likidazio berria eman arte joan den unera arte sortuko da.

Honako foru arau honetako V. tituluaren araututako berrikuspen araubideari eta zerga likidazio ororen berezko baliabideei men egin beharko die, baina ebazpen judizialean frogatutzat emandako egitateak ezin izango dira aurkaratu.

Halako kasuetan, zorraren zenbatekoa zehazteko eskubidea preskribatzeko epeak zenbatzen hasiko dira eta zehapena ezarriko da, honako foru arau honetako 67. artikuluko 7. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz.

## **256. artikulua. Erantzuleak**

1. Foru arau honetako 248.5 artikulua xedatutakoari jarraiki likidatutako zerga zorraren erantzule solidarioak izango dira likidazioa sorrarazi duten egintzen kausatzaileak edo egintzetan gogotik parte hartu dutenak, baldin eta salatutako delituagatik hasarazi den zigor prozesuan inputaturik badaude edo aipatutako prozesuaren zioz kondenaturik badaude.

Likidazio prozeduran ageri diren edo prozedura horren bitartez lortu diren datuak, frogak edo inguruabarrak, artikulua honetan ezarritako erantzukizuna galdatzeko prozeduran kontuan hartzekoak badira, era formalean txertatu behar dira bertan, ebazpen proposamena eman baino lehen.

2. Foru arau honetako 248. artikuluko 2. idatz zatian jasotzen diren likidazioei dagokienez, honako foru arau honetako 42. artikuluko 4. idatz zatian araututako erantzukizun inguruabarrak ere aplikagarriak izango dira.

3. Aurreko 1 idatz zatian araututako erantzukizuna deklaratzeko duen erabakiaren aurkako errekurtsioan edo erreklamazioan, aipatutako erantzukizunaren irismen globala baino ezin izango da aurkaratu.

4. Zigor prozesuan, aurreko 1 idatz zatian aipatzen diren erantzuleen largespena edo absolutzioa erabakitzen bada, erantzukizunaren adierazpena deuseztatu egingo da, zerga arloko araudian ondore horretarako ezarritako arau orokorrak aplikagarriak izango dira, sarreraren itzulketari eta bermeen kostuaren itzulketari dagokienez.

5. Foru arau honetako 67. artikuluko 9. idatz zatian xedatutakoari kalterik egin gabe, 1 idatz zatian agertzen diren erantzukizun inguruabarretan, zergapeko baten preskripzio epea eteten bada, etenduraren eragina zergapeko guztiei hedatuko zaie, bai eta erantzuleei ere.

6. Aurreko 1 eta 2 idatz zatietan arautzen diren inguruabarretan, erantzukizuna adierazteko erabakiak emateko eskumena diru bilketako organoari dagokio.

7. Erantzukizun adierazpenaren prozedurari atxikitako epea etentzat hartu da salaketa edo kereila Fiskaltzaren edo organo judizialaren aurrean aurkezten denetik auzipetuen egozpen formala gertatu arte.

Artikulu honetan araututako erantzukizun adierazpenaren prozeduraren izapidetzeak irauten duen artean hartutako kautelazko neurriei honako foru arau honetako 78.5.e) artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaio.”

Berrogeita hamasei. VI. titulua eransten da; hona testua:

## “VII. TITULUA

### Zerga arloari eragiten dioten Estatuko laguntzak berreskuratzea

#### I. KAPITULUA

##### XEDAPEN OROKORRAK

#### **257. artikulua. Xedapen orokorrak**

1. Zerga administrazioari dagokio beharrezko jarduketak egitea zerga arloan eragina duten Estatuko laguntzak berreskuratzeko erabakiak gauzatzeko.

2. Tributuen aplikaziotzat hartzen da zerga arloan eragina duten Estatuko laguntzak berreskuratzeko erabakiak gauzatzeko aldera beharrezkoak diren administrazio egintzak egikaritzea, bai eta zergapekoen jarduketak egikaritzea haien eskubideak erabiliz edo erabaki horien ondorioz sortzen diren zerga betebeharrak betetzeko xedez.

3. Artikulu honen aurreko atalek jasotzen dituzten inguruabarrez gain, titulu honetan xedatutakoa zeinahi inguruabarretan aplikagarria izango da, non Europar Batasuneko Zuzenbidea betetzeko xedez, zerga arloan eragina duten Estatuko laguntza gisa jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatzea bidezkoa den.

4. Arabako Foru Aldundiaren eskumenen esparruan, zerga arloan eragina duten Estatuko laguntzak berreskuratzea xede duten prozeduren hasiera eta ebazpena erabakitzeke eskumena Ogasun zuzendariarena izango da.

#### **258. artikulua. Estatuko laguntzak berreskuratzea xede duten erabakiak betearazteko prozedurak**

Estatuko laguntzak berreskuratzea xede duten erabakiak betearazteko prozedurak ondokoak dira:

a) Berreskuratzeko prozedura erabakiak eragindako zerga betebeharraren elementuak erregularizatzeko inguruabarretan.

b) Berreskuratzeko prozedura beste kasu batzuetan.

#### **259. artikulua. Preskripzioa**

1. Hala badagokio, berreskuratzeko erabakiaren betearazpenaren ondorioz sortzen den zerga zorra zehaztu eta ordainketa galdatzeko administrazioaren eskubidea hamar urtera preskribatuko da.

2. Preskripzio epea zenbatzen hasiko da erregularizazioaren xede den zerga betebeharra betetzeko Estatuko laguntzaren aplikazioak zerga arloko araudiaren arabeko ondore juridikoak sorrarazten dituen unean.

3. Preskripzio epea ondoko zioengatik etengo da:

a) Zerga Batzordeak edo Zerga Administrazioak Estatuko laguntzarekin zerikusia daukan batzordearen eskariz bideratzen duen zeinahi jarduketaren zioz.

b) Zergapekoak era formalean dakiela, Zerga administrazioak bideratzen duen zeinahi ekintzaren zioz, berreskuratzeko erabakiak eragindako elementuei atxikitzen zaien zerga zorra aitortzeko, erregularizatzeko, egiaztatzeko, ikuskatzeko, ziurtatzeko eta likidatzeko helburuz edo ordaintzeko helburuz.

c) Zergapekoak gauzatzen duen zeinahi jarduketa sinesgarriren zioz, zerga zorra likidatzeko edo ordaintzeko helburuz, edo bidezko errekurtsioak jartzearen zioz.

4. Preskripzio epea eten beharko da berreskuratzeko erabakia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurreko prozeduraren barruan dagoen denbora guztian.

#### **260. artikulua. Berreskuratzeko erabakia betearaztearen ondorioak**

1. Zerga administrazioak gauzatutako ebazpena edo aurrelikidazioa egin denean, estatuko laguntza berreskuratzeko erabakiak eragindako zerga betebeharrari dagokionez, erabaki horren betearazpenak zehaztuko du ebazpena edo likidazioa aldatu beharko den, irmoa izan arren.

2. Berandutza interesek Europar Batasuneko araudian xedatutakoei men egingo diete.

#### **261. artikulua. Betearazpen egintzaren aurkako errekurtsioak**

Berreskuratzeko erabakiaren betearazpenak sortutako ebazpena edo likidazioaren aurrean, berraztertzeo errekurtsioa jarri ahalko da eta, hala badagokio, erreklamazio ekonomiko-administratiboa, honako foru arau honetan ezarritako baldintzei jarraiki.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat, ebazpena edo likidazioa berrikusten bada, administrazio egintzen betearazpenaren etendura bakarrik onartuko da bermeak emanda, hain zuzen ere, dirua gordailututa Zerga administrazioan.

## II. KAPITULUA

### BERRESKURATZEKO PROZEDURA BERRESKURATZEKO ERABAKIAK ERGAINDAKO ZERGA BETEBEHARRAREN ELEMENTUAK ERREGULARIZATZEKO INGURUABARRETAN

#### **262. artikulua. Berreskuratzeko prozedura erabakiak eragindako zerga betebeharraren elementuak erregularizatzeko inguruabarretan**

1. Erabakiak eragindako zerga betebeharraren elementuak erregularizatzeko inguruabarretan, berreskuratzeko prozeduran, Zerga administrazioak erabakiak eragindako betebeharraren elementuak egiaztatu, besterik ez du egingo.

2. Prozedura honetan, Zerga Administrazioak ondoko jarduketak soilik egin ditzake:

a) Zergapekoek aitorten edo autolikidazioetan adierazitako datuak eta haiek aurkeztutako frogagiriak edo eskatzen direnak aztertzea.

b) Administrazio zergak eskuratutako datuak eta aurrekariak aztertzea.

c) Erregistroak eta zerga araudian eskatzen diren gainerako agiriak aztertzea, bai eta bes-telako liburu, erregistro eta agiri ofizial guztiak ere, adibidez, merkataritzako kontabilitatea, eta liburu, erregistro eta agiri horietan adierazitako eragiketak frogatzen dituzten fakturak edo agiriak miatzea.

d) Hirugarrenei informazio errekerimenduak bidaltzea.

3. Prozedurari lotutako jarduketak Zerga administrazioaren bulegoetatik kanpo egin ahalko dira; ondore horretarako, foru arau honetako 136.2 eta 140 artikuluetan jasotako arauak aplikagarriak izango dira.



4. Aurreko ataletan jasotako agirien azterketa eta jarduketaren egikaritzea burutuzat joko dira Estatuko laguntza berreskuratzeko bidezkontasuna zehazte aldera, eta horrela ez da eragotziko, ez mugatuko, egitate edo agiri berdinak gerora egiaztatzeke aukera.

#### **263. artikulua. Hasiera**

1. Erabakiak eragindako zerga betebeharraren elementuak erregularizatzeko inguruabarretan, berreskuratzeko prozedura ofizioz hasaraziko da, Zerga administrazioaren erabakiz.

2. Zergapekoei komunikazio bidez jakinaraziko zaie prozedurako jarduketak hasi direla. Komunikazio horretan, jarduketak nolakoak izango diren eta noraino helduko diren azaldu behar zaie eta haien inguruan dituzten eskubideak eta betebeharrak argitu behar zaizkie.

Zerga Administrazioak eskura dauzkan datuak ebazpen proposamena egiteko nahikoak badira, proposamena jakinarazita has daiteke prozedura.

#### **264. artikulua. Izapidetzea**

1. Erabakiak eragindako zerga betebeharraren elementuak erregularizatzeko inguruabarretan, berreskuratzeko prozedurari lotutako jarduketak honako foru arau honetako 95. Artikuluko 8. idatz zatian jasotzen diren komunikazio eta eginbideetan dokumentatuko dira.

2. Zergapekoek arreta eskaini beharko diote Zerga administrazioari eta haren eginkizunak betetzen lagundu beharko diote.

Errekerimendua bidaliz gero, bertan adierazitako leku, egun eta orduan, zergapekoa bertaratu beharko da jarduketak gauzatzera; horrez gainera eskatutako agiri eta elementu guztiak aurkeztu beharko ditu edo Zerga administrazioan aurkezteko prest izan beharko ditu.

3. Behin-behineko likidazioa egin aurretik, Zerga administrazioak likidazio-proposamena jakinarazi behar dio zergapekoari, eskubidez komeni zaiona alegatzea izan dezan hamar eguneko epean.

#### **265. artikulua. Prozedura amaitzea**

1. Erabakiak eragindako zerga betebeharraren elementuak erregularizatzeko inguruabarretan, berreskuratzeko prozedura Zerga administrazioaren berariazko ebazpenez amaituko da. Ebazpen horrek, gutxienez ondoko edukiak jaso beharko ditu:

a) Berreskuratzeko erabakiak eragindako zerga betebeharraren elementuak eta erabakien xede diren denborazko esparrua.

b) Ebazpena arrazoitzen duten egitateak eta zuzenbideko oinarriak.

c) Behin-behineko likidazioa edo, bestela, berreskuratzeko erabakiaren ondorioz zerga egoera erregularizatu beharrik ez dagoelako adierazpen berariazkoa.

2. Foru arau honetako 100. artikuluan araututako prozeduraren iraunaldiaren ez-betetzeak ez du prozeduraren iraungipena ekarriko eta prozedura amaitu arte bideratuko da. Kasu horretan, preskripzioa ez da etentzat joko aipatutako epe horren barruan garatutako administrazio egintzen ondorioz.

Halako inguruabarretan, aurreko paragrafoan aipatutako epea amaitu ondoren, jarduketak gauzaten direnean etentzat joko da preskripzioa, interesdunak era formalean jakinda.

3. Ebazpen judizial batek formazko akatsak hautematen baditu eta administrazio jarduketek atzera egiteko agintzen badu, jarduketek atzera egiten duten unetik honako foru arau honetako 100. artikuluan jasota dagoen epea amaitu arte doan aldiaren barruan bukatu beharko dira, edo bestela, hiru hilabeteko epean, esandako aldia luzeagoa bada. Aipatutako epea zenbatzen hasiko da organo eskumendunak Estatuko laguntzak berreskuratzeko prozedura berriro hasteko espedientea jasotzen duenean.

4. Aurreko atalean jasotako ebazpen judizialaren betearazpenak ezin du ekarri, inola ere, zergapekoari berreskuratutako zenbatekoak bueltatzea. Hala, zenbateko horiek gordailututa geratuko dira Zerga administrazioan erabiltzen diren arte, prozedurari azkena ematen dion administrazio egintzan xedatutakoari jarraiki.

### III. KAPITULUA

#### BERRESKURATZE PROZEDURA BESTE KASU BATZUETAN

##### **266. artikulua. Berreskuratze prozedura beste kasu batzuetan**

1. Berreskuratze erabakia betearazteak ez badakar zerga betebeharrak bat erregularizatzea, bete beharreko prozedura kapitulu honetan araututakoa izango da.

2. Berreskuratze erabakia betearazteko, organo eskudunak zerga administrazioari foru arau honetako 166. artikuluan aitortzen zaizkion ahalmenak izango ditu, bertan ezarritako betekizunekin.

##### **267. artikulua. Hasiera**

Berreskuratze prozedura ofizioz hasiko da.

Zergadunei prozedurako jarduketak hasi direla jakinarazi behar zaie. Horretarako komunikazioa bidaliko zaie eta bertan jarduketak nolakoak izango diren eta nora helduko diren azaldu behar zaie eta haien inguruan dituzten eskubideak eta betebeharrak argitu behar zaizkie

Hasierari buruzko komunikazioan ebazpen proposamena sartu behar da, eta zergadunari hamar eguneko epea emango zaio bere eskubideei komeni zaiena alega dezan.

##### **268. artikulua. Prozedura amaitzea**

1. Berreskuratze prozedura zerga administrazioaren berriazko ebazpenaren bidez amaituko da, zergadunari prozedura hasi dela jakinarazten zaion egunetik lau hilabeteko epean jakinarazi beharko dena, salbu eta berreskuratze erabakiak beste epe bat ezartzen badu. Foru arau honen 265. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoa aplikatu beharko da.

2. Prozedura azkentzen duten ebazpenek ondokoak zehaztu behar dituzte, gutxienez:

a) Administrazioak aurretik emandako ebazpena aldatzeko erabakia, berreskuratze erabakiaren zentzu berean, edo, bestela, berreskuratze erabakiaren ondorioz aldaketarik ez dela egin behar berriaz esaten duen adierazpena.

b) Ebazpenaren arrazoi diren egitateak eta Zuzenbideko oinarriak.

c) Likidazioa, baldin eta berreskuratze erabakia betearazteak zerga zorraren exigentzia zehazten badu, zehazki berandutza interesen sortzapenetik datorrena, foru arau honetako 260. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz.

3. Ebazpen judizial batek akats formalak atzematen baditu eta administrazio jarduketak atzera ekartzeko agintzen badu, jarduketa horiek jarduketak atzera ekartzen diren unetik aurrera 1. idatz zatian aipatzen den epea amaitu arte dagoen denboran amaitu beharko dira, edo bi hilabeteko epean, azken epe hori lehenengoa baino luzeagoa bada. Estatuaren laguntzak berreskuratze prozedura berriro hasteko eskumena duen organoak espedientea jasotzen duenetik aurrera zenbatuko da epe hori.

4. Aurreko idatz zatia dagokion ebazpen judizialak ezin izango du inola ere ekarri zergadunarengandik eskuratutako zenbatekoak itzultzea; diru hori zerga administrazioak edukiko du gordeta, harik eta administrazioari amaiera ematen dion administrazio egintzan xedatutakoaren arabera aplikatu arte."

Berrogeita hamazazpi. Laugarren xedapen gehigarriko 4. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“4. Esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakiaren ezeztapena Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, zenbaki horrek zergen eremuan balioa galduko du identifikazio ondorioetarako.

Era berean, aipatutako argitaratuz gero, kreditu entitateek ez dute kargurik edo ordainketarik egingo ezeztatutako zenbaki horien titularrak titular edo baimendu gisa dauzkaten banku gordailuen kontuetan, salbu eta zenbaki hori birgaitzen bada edo identifikazio fiskaleko zenbaki berri bat esleitzen bada.

Ezeztapena entitate bati dagokionean, argitalpen horrek berekin ekarriko du entitate motaren arabera erregistratuta dagoen erregistro publikoak entitatearen orrian alboko idaztoharra egitea adierazteko ordutik aurrera ezin izango dela horren gaineko inskripziorik egin, zenbakia birgaitu edo identifikazio fiskaleko zenbaki berria esleitu ezean.

Idatz zati honetan xedatutakoak ez du eragozten zerga betebeharrak bete behar izatea; horretarako, ezeztatu den identifikazio fiskaleko zenbakia aldi batean erabiliko da.”

Berrogeita hemezortzi. Zazpigarren xedapen gehigarria aldatzen da; hona testu berria:

“Zazpigarrena. Erantzukizun zibilaren ordainarazpena eta isuna Ogasun Publikoaren aurkako delituagatik.

1. Ogasun Publikoaren aurkako delituen prozeduretan, Zerga Administrazioak preskripzioagatik edo beste legezko kausa batengatik Foru Arau honetan ezarritako moduan likidatu ez duen zerga zorraren zenbatekoa barnean edukiko du erantzukizun zibilak, berandutza interesak eta isunaren zigorra barne, eta erantzukizun zibila premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez exijituko da.

2. Behin epaia irmoa denean, hura betearazi behar duen epaileak edo auzitegiak lekukotasuna bidaliko die Zerga Administrazioko organoei eta zorra ordainaraz dadila aginduko du. Modu berean jardungo da epaileak edo auzitegiak errekurritutako epai bat behin-behinean betearaztea erabakitzen duenean.

3. Zigor Kodeko 125. artikularekin bat etorri erantzukizun zibilaren edo isunaren ordainketa zatikatzea erabakitzen denean, epaileak edo auzitegiak Zerga Administrazioari jakinaraziko dio. Kasu horretan, premiamenduzko prozedura hasiko da baldin eta zatikapenaren baldintzak betetzen ez badira.

4. Zerga Administrazioak epaia eman duen epaileari edo auzitegiari izapidearen berri emango dio, Espainiako Konstituzioaren 117.3 artikuluko ondorioetarako; eta, hala badagokio, agindutako betearazpenari buruzko gorabeheren berri ere emango dio.”

Berrogeita hemeretzi. Hamabosgarren xedapen gehigarria aldatzen da; hona testu berria:

“Hamabosgarrena. Paradisu fiskalaren, tributazio ezaren eta zergei buruzko informazio trukearen definizioa

1. Arau bidez ezartzen diren herrialde edo lurraldeak joko dira paradisu fiskaltzat.

2. Paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde eta lurraldeak eguneratu ahalko dira, ondoko irizpideok kontuan izanik:

a) Herrialde edo lurralde horrekin hitzarmen bat egotea, nazioarteko egozpen bikoitza garaizteko, informazioa trukatzeko klausularekin, edo zerga gaietan informazioa trukatzeko akordio bat egotea, edo ELGaren eta Europako Kontseiluaren zerga gaietako administrazioen arteko laguntzaren hitzarmena egotea, 2010eko Protokoloaren bidez zuzendua, eta aplikatu behar izatea.

b) Zerga informazioaren benetako trukerik ez egotea xedapen gehigarriaren 4. idatz zatian ezarritako baldintzetan.

c) Zergen Alorreko Gardentasunaren eta Informazio Trukearen Foro Globalak egindako inter pares ebaluazioen emaitzak.

3. Tributazio eza dago baldin eta dagokion herrialde edo lurraldean ez bada Pertsona fisikoaren errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren errentaren gaineko Zergaren, kasu bakoitzean doakionaren, berdin-berdina edo antzekoa den zergarik aplikatzen.

Xedapen honek ezartzen duenaren ondorioetarako, errenta, zati batean besterik ez bada ere, zergapetzea helburu duten zergak zerga berdin-berdin edo antzekotzat joko dira, zergaren xedea errenta bera, sarrerak edo errenta egotearen zantzua ematen duen beste edozein elementu dela ere. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko Zergaren kasuan, zerga berdin-berdin edo antzekotzat joko dira Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak, arau bidez ezarriko diren baldintzetan.

Zerga berdin-berdina edo antzekoa aplikatzen dela iritziko zaio dagokion herrialde edo lurraldeak Espainiarekin zerga bakoitzaren kasuan nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmena izenpetuta badauka, hitzarmenean bertan ezartzen diren berezitasunekin.

4. Zerga informazioaren benetako trukea dago paradisu fiskaltzat jotzen ez diren herrialde edo lurraldeekin, ondoko hauetako bat aplikatu ahal bazaie:

a) nazioarteko ezarpen bikoitza ekiditeko hitzarmena, informazioa trukatzeko klausula duena, betiere hitzarmen horrek ez badu berariaz ezartzen zergei buruzko informazio trukearen maila ez dela nahikoa xedapen honen ondorioetarako; edo

b) zergen alorreko informazioa trukatzeko akordio bat; edo

c) ELGaren eta Europako Kontseiluaren zerga gaietako administrazioen arteko laguntzaren hitzarmena, 2010eko Protokoloaren bidez zuzendua.

Aurrekoa hala izanik ere, arau bidez ezar daiteke informazio trukearen mugak direla-eta zein kasutan ez dagoen zergei buruzko informazio trukea.

5. Zerga bakoitzaren arauetan berezitasunak ezar daitezke xedapen honetako arauak aplikatzeko.

6. Foru Aldundiari ahalmena ematen zaio xedapen gehigarri honetan araututakoa garatzeko eta aplikatzeko, baita paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde eta lurraldeen zerrenda eguneratzeko ere”

Hirurogei. Hogeita hirugarren xedapen gehigarria eransten da; hona:

“Hogeita hirugarrena. Bertan behera uztea, adiskidetasunezko prozedurak izapidetzen direnean.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arauaren laugarren xedapen gehigarriaren 1. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritik, baldin eta nazioarteko hitzarmen edo itunetan aurreikusitako zuzeneko egozpenaren alorrean adiskidetasunezko prozedura bat eta foru arau honetako V. Tituluan araututako berrikuspen prozeduretako bat aldi berean egiten badira, azken hori bertan behera utziko da, harik eta adiskidetasunezko prozedura amaitu arte.”

## II. TITULUA Zerga taldeak

### 2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua aldatzea

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan aldaketa hauek egiten dira:

Bat. 2. artikuluko 5. idatz zatia honela geratzen da:

“5. Foru arau honetan araututako zerga taldeen tributazio erregimena aplikatu ahal izateko bi baldintza hauek bete behar dira: batetik, aurreko lehen hiru idatz zatietan xedatutakoarekin bat etorritik, entitate nagusiari foru arau hau aplikagarria izatea; bestetik, mendeko entitate guztiei Sozietateen gaineko Zergari buruzko lurralde historikoetako bateko arautegia aplikagarria izatea.

Foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera eraturako zerga taldeak badira, foru arau honetan ezarritako tributazio erregimena aplikagarria izango zaie baldin eta aurreko ekitaldian eragiketa bolumenik handiena eduki duen taldeko entitateari foru arau hori aplikagarria bazaio, eta taldeko gainerako entitate guztiei Sozietateen gaineko Zergari buruzko lurralde historikoetako baten arautegia aplikagarria bazaie.

Atal honetan xedatzen denaren ondorioetarako, lurralde erkideko erregimena aplikatzen zaien entitateak ez daude zerga taldean.”

Bi. 83. artikuluko 2., 3. eta 4. idatz zatiak honela idatzita geratzen dira:

“2. Zerga taldearen ordezkariak zerga baterakuntzaren erregimeneko zerga betebeharrak materialak eta formalak bete behar ditu.

Zerga taldearen ordezkaria izango da egoitza Espainiako lurraldean duen entitate nagusia; bestela, taldean ez badago entitate nagusi izateko betekizunak bete eta egoitza Espainiako lurraldean daukan entitaterik, orduan aurreko ekitaldian eragiketa bolumenik handiena izan duen entitatea izango da entitate ordezkaria.

Hala ere, entitate nagusia ez badago Espainiako lurraldean, beste entitate bat izendatu dezake ordezkari, hain zuzen ere aurreko ekitaldian eragiketa bolumenik handiena eduki duen taldeko entitatearen erregimen bera aplikatu ahal bazaio.

3. Zerga taldea osatzen duten entitateek banaka ordaintzeko erregimeneko zerga betebeharrak bete behar dituzte, zerga zorra ordaindu beharra ez beste guztiak.

4. Zerga taldeko entitateren bat (sozietate ordezkaria formalki jakinaren gainean dagoela) egiaztatzeko edo ikertzeko egiten diren administrazio jarduketek zerga taldeari eragiten dion Sozietateen gaineko Zergaren preskripzio aldia etengo dute.”

Hiru. 84. artikulua honela geratzen da idatzita:

“84. artikulua. Zerga baterakuntzaren araubidea aplikatzen eratorritako zerga ardurak

Zerga taldeko sozietateek modu solidarioan ordaindu behar dute zerga zorra (zehapenak ez beste guztia).”

Lau. 85. artikuluko izenburua eta 85. artikuluko 4. idatz zatiko e) eta f) letrak honela geratzen dira:

“85. artikulua. Zerga taldearen definizioa. Entitate nagusia. Mendeko entitateak”

“e) Zerga taldearen entitate ordezkariarekin konparatuta, Sozietateen gaineko Zergaren karga tasa desberdina duten mendeko sozietateak.

Hala ere, foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan ezarri bezala eraturako zerga talde baten kasuan, aurreko ekitaldian eragiketa bolumenik handiena izan duen taldeko entitateari dagokion karga tasa hartu beharko da kontuan.

“f) Urtaldia, legeak aginduta, entitate ordezkariarenera egokitu ezin duten mendeko entitateak.

Hala ere, foru arau honetako 85. artikuluko 1. ataleko bigarren paragrafoan ezarri bezala eraturako zerga talde baten kasuan, aurreko ekitaldian eragiketa bolumenik handiena izan duen taldeko entitateari dagokion urtaldia hartu beharko da kontuan.

Bost. 86. artikulua honela geratzen da idatzita:

“86. artikulua. Entitateak zerga taldean sartzea edo irtetea

1. Aurreko artikuluko 2. idatz zatiko b) letran definitutako partaidetza eskuratzen bada entitate bati dagokionez, entitate hori zerga taldean sartu behar da nahitaez, hurrengo zergaldiko ondorioekin. Entitateak sortu berriak direnean, eratzten diren unean bertan sartuko dira taldean, baldin eta, eratzean zerga talde bateko kideak izateko gainerako betekizun guztiak betetzen badira.

2. Mendeko izateari uzten dioten entitateak zerga taldetik irtengo dira hori gertatzen den ekitaldian bertan.”

Sei. 87. artikuluko 2., 3. eta 3. idatz zatiak honela idatzita geratzen dira:

“1. Entitate batek beste entitate batean partaidetza badauka eta bigarren entitate horrek, berriz, hirugarren batean partaidetza badauka, eta horrela jarraituz gero, lehenengo entitateak besteetan zeharka daukan partaidetza zenbatekoa den kalkulatzeko kapital sozialaren gaineko partaidetza ehunekoak biderkatu behar dira, hurrenez hurren, eta biderketaren emaitza sozietatearen kapitalaren ehuneko 75 izan behar da, gutxienez, edo, bestela, sozietatearen kapitalaren ehuneko 70, gutxienez, baldin eta entitateon akzioak araututako merkatu batean negoziatzeko onartuta badaude edo azken entitate horiek zuzenean zein zeharka partaidetutako entitateak badira.

2. Zerga talde bateko kideen artean hainbat partaidetza harreman badaude, zuzenekoak eta zeharkakoak, sozietate batek beste baten kapitalean zuzenean zein zeharka daukan partaidetza kalkulatzeko zuzeneko eta zeharkako partaidetza ehunekoak batu behar dira. Partaidetutako sozietate bat zerga taldean sartu ahal eta behar izateko ezinbestekoa da aurreko batura gutxienez kapital sozialaren ehuneko 75 izatea, edo ehuneko 70, akzioak araututako merkatu batean negoziatorako onartuta badaude edo honelako sozietateek badute partaidetza, zuzenean zein zeharka, eta kopuru horretara heltzen badira.

3. Taldeko kideen artean elkarrekiko partaidetzak, partaidetza zirkularrak edo partaidetza konplexuak badaude, partaidetza kapital sozialaren gutxienez ehuneko 75 dela frogatu beharko da (edo kapital sozialaren ehuneko 70, sozietatearen akzioak negoziatorako onartuta badaude araututako merkatu batean edo honelako sozietateek badute partaidetza, zuzenean zein zeharka, eta kopuru horretara heltzen bada).”

Zazpi. 88. artikulua honela geratzen da:

“88. artikulua. Zerga baterakuntzaren araubidearen aplikazioa.

1. Zerga baterakuntzaren araubidea aplikatzeko ezinbestekoa da zerga taldeko sozietate guztiak horretan bat etortzea.

2. Aurreko idatz zatian adierazten diren akordioak Administrazioaren kontseiluak edo pareko entitateak hartu beharko ditu, zerga baterakuntzaren araubidea aplikagarri bihurtu baino aurreko zergaldiko edozein unetan.

3. Zerga talde bati atxikitzen zaizkion entitateek aurreko ataletan azaldutako betebeharrak bete behar dituzte; horretarako epealdia zerga baterakuntzaren erregimenean dauden lehen zergaldiko azken egunera artekoa izango da.

4. Artikulu honetako 1. eta 2. idatz zatietan aipatutako erabakiak hartu ezean, ezin da aplikatu zerga baterakuntzaren araubidea.

Etorkizunean zerga taldean sartu behar diren entitateek hizpide ditugun erabakiak ez hartzea entitate ordezkariaren zergen arloko arau haustea izango da. Zehapena 20.000 euroko isun finkoa izango da betekizun hori bete gabe erregimena aplikatu den lehenengo zergaldiari dagokionez; bigarren eta hurrengo zergaldiei dagokienez, isuna 50.000 eurokoa izango da; ez du eragotziko ukitutako entitateak taldean integratzea.

5. Aukera baliatuta, zerga taldea erregimenari lotuta egongo da hurrengo zergaldietan, hain zuzen ere foru arau honetako 85. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen diren artean, kasuan kasuko errolda aitorenaren bidez aplikatzeari uko egin ezean. Uko egin nahi izanez gero, erregimena aplikatzen den azken zergaldia amaitu eta hurrengo bi hiletan egin behar da.

6. Zerga taldearen entitate ordezkariak artikulu honetako 1. idatz zatian aipatzen diren erabakien berri emango dio zerga arloko administrazioari erregimena aplikatu nahi den zergaldia hasi baino lehen.

Foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera eraturako zerga talde baten kasuan, entitate ordezkariak aurreko paragrafoan xedaturako baldintza berdinetan jakinarazi behar du egoitza Espainiako lurraldean ez duen entitateak hartutako erabakia, zerga taldeko entitate ordezkaria ebatziko duena, salbu eta entitate ordezkaria foru arau honetako 83. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren edo hirugarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera eratu bada; hala izanez gero, atal honetako azken paragrafoan xedaturakoa izango da aplikagarria. Erabaki horren berri ez emateak artikuluko lehen zatian ezarritako ondorioak izango ditu.

Halaber, zerga taldearen osaera aldatzen bada, entitate ordezkariak aldatetaren berri eman behar dio zerga administrazioari: zer sozietate sartu den eta zer sozietate irten den zehaztu behar du. Horretarako epealdia hilabetekoa izango da zergaldia amaitzen denetik.

Foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera eraturako zerga talde baten kasuan, entitate ordezkaria foru arau honetako 83. artikuluko bigarren idatz zatiko bigarren edo hirugarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera xedatzen bada, orduan entitate ordezkariaren jakinarazpena zergaldiaren lehen hiru hileen barruan egin beharko da.”

Zortzi. 89. artikuluko 4. idatz zatia eta 1. idatz zatiko a) letra honela geratzen dira, hurrenez hurren:

“a) Zerga taldeko entitate guztiei dagozkien banakako zerga oinarriak, kopuru horietan banakako zerga oinarri negatiboen konpentsazioak jaso gabe, ezta foru arau honetako IV. tituluko V. kapituluaren ezarritakoaren araberrako emaitzen aplikazioan egin beharreko zuzenketak ere.”

“4. Foru arau honetako IV. tituluko V. kapituluaren ezarritakoaren arabera emaitzaren aplikazioan egin beharreko zuzenketen zenbatekoa kalkulatzeko, zerga taldearen magnitudeak kalkulatzeko zergaldiko azken eguneko urteko kontu bateratuak hartu behar dira aintzat.

Hala ere, erreserba taldeko edozein entitatearen bitartez hornituko dira.

Zerga taldeei inolaz ere ezin zaie aplikatu foru arau honetako 51. artikuluko 5. idatz zatiko lehen paragrafoan xedaturakoa, ezta 52. artikuluko 4. idatz zatiko lehen paragrafoan xedaturakoa ere.”

Bederatzi. 89. artikuluko 6., 7. eta 8. idatz zati berriak gehitzen zaizkio; hona:

“6. Foru arau honetako 51. artikuluan aurreikusitako emaitzen aplikazio arloan zuzenketak zerga taldean integratu aurretik egin duten entitateen kasuan, 51. artikuluko 3. idatz zatian aurreikusitakoaren babesean taldearen parte diren zergaldietan zerga oinarria areagotu behar badute, kasuan kasuko zenbatekoak taldearen zerga oinarria areagotuko dute.

Horrez gain, kasuan kasuko erreserba foru arau honetako 51. artikuluan aurreikusitako emaitza aplikatzeko arloan zerga taldean integratu aurretik zuzenketa hornitu duten entitateen kasuan, eta 51. artikuluko 4. idatz zatian ezarritako baldintzetan zerga oinarria nahikoa ez delako zenbatekoak kentzeke baldin badituzte, zerga taldeak zenbateko horiek zerga oinarritik kendu ahalko ditu, entitateak zergaldian lortuko duen banakako zerga oinarri positiboaren mugarekin.

7. Foru arau honetako 52. artikuluan araturako onurak orekatzeko erreserba bereziari dagozkion zenbatekoak, zerga taldean integratzen diren entitateenak, entitatearen zerga oinarria areagotzeke baldin badaukate, taldearen zerga oinarria areagotuko dute hain zuzen ere aipaturako 52. artikuluko 2. eta 3. idatz zatietan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean; emaitzaren aplikazio arloan kasuan kasuko zuzenketa aplikatu zuen entitatearen banakako zerga oinarriaren kopurua kontuan hartu behar da.

8. Foru arau honetako 53. artikuluan araturako ekoizpen jarduna indartzeko eta ekintzaitza sustatzeko erreserba berezia zerga taldean sartu baino lehen hornitu duten entitateen kasuan, eta taldean integratzerakoan erreserba gauzatzeko izanez gero, orduan taldeko edozein entitatek gauzatu ahalko du.

Foru arau honetako 53. artikuluko 3. eta 4. idatz zatietan aurreikusitako kasuetan, kasuan kasuko zenbatekoek zerga taldearen zerga oinarria areagotuko dute.”

Hamar. 90. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoa honela idatzita geratzen da:

“Barne eragiketatzat joko dira zerga baterakuntzaren araubidea aplikatzen den zergaldian zerga taldeko entitateek euren artean egiten dituzten eragiketak.”

Hamaika. 91. artikuluko 2. eta 3. idatz zatiak honela geratzen dira:

“2. Zerga talde baten barruko eragiketaren batean parte hartu duen entitate bat zerga taldetik irteten bada, eragiketa horren emaitza ezabatua zerga taldearen zerga oinarriari erantsiko zaio, hain zuzen ere banaketa gertatu aurreko zergaldiko zerga oinarriari.

3. Taldetik irteten den entitate batek balio zuzenketa ekarri zuen galerari dagokion zerga oinarri negatiboaren konpentsazioa jasotzeko eskubidea bereganatzen badu, zerga taldeko entitateen partaidetzen balioaren ezabaketa erantsi behar da. Partaidetza eduki den entitatea zerga taldeko kidea izan ez den zergaldietan egindako balio zuzenketa ezin dira itzuli.”

Hamabi. 92. artikuluko 2. idatz zatia honela geratzen da:

“2. Zerga taldean sartzean entitate batek konpentsatu gabe dauzkan zerga oinarri negatiboak taldearen zerga oinarrian konpentsatu ahal izango dira, muga honekin: entitatearen banakako zerga oinarria.”

Hamahiru. 93. artikuluko 1. idatz zatia honela geratzen da:

“1. Zerga taldeko entitateek foru arau honetako 36. artikuluan aipatzen den aparteko mozkinen berrinbertsioa aplikatu ahal izango dute; berrinbertsioa aparteko mozkin lortu zuen entitateak berak zein taldeko beste batek egin dezake. Berrinbertsioa zerga taldeko beste entitate batetik eskuratutako elementu batean egin daiteke, baldin eta elementu berria bada.”

Hamalau. 94. artikulua honela geratzen da:

“94. artikulua. Zergaldia

1. Zerga taldearen zergaldia entitate nagusiarena izango da.

Hala ere, foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan ezarri bezala eraturako zerga talde baten kasuan, aurreko ekitaldian eragiketa bolumenik handiena izan duen taldeko entitateari dagokion urtaldia hartu beharko da kontuan.

2. Zerga taldea osatzen duten gainerako talderen batek banakako erregimenaren tributa-zioko arau arautzaileekin batera zergaldia bukatuz gero, bukatze horrek ez du zerga taldearena ebatziko.”

Hamabost. 95. artikulua honela geratzen da:

“95. artikulua. Zerga taldearen kuota osoa.

Zerga taldearen kuota osoa kalkulatzeko haxe egin behar da: entitate nagusiaren zerga tasa aplikatu zerga taldearen zerga oinarriari.

Hala ere, foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan ezarri bezala eraturako zerga talde baten kasuan, aurreko ekitaldian eragiketa bolumenik handiena izan duen taldeko entitateari dagokion karga tasa hartu aplikatu beharko da.”

Hamasei. 96. artikuluko 2. idatz zatia honela geratzen da:

“2. Entitate baten kenkariak aplikatu gabe badaude zerga talde batean sartzen denean, kenkariok zerga taldearen kuota osotik ken daitezke, muga honekin: gehienez ere entitateak banakako tributazio erregimenean eduki duen kenkaria.”



Hamazazpi. 97. artikulua honela geratzen da:

“97. artikulua. Informazioa eman beharra.

1. Zerga taldearen entitate ordezkariak ondoko hauek egin behar ditu zergaren ondorioetarako: zerga taldearen balantzea, galera eta irabazien kontua, ekitaldian taldearen ondare garbian gertatu diren aldaketak azaltzen dituen egoera orria, eta eskudiru fluxu bateratuen egoera orria. Horiek guztiak egiteko taldeko entitate guztiak integratzeko metodoa aplikatu behar du.

2. Egoera bateratuak zerga taldeko entitate nagusiko urteko kontuen aldi eta itxiera data berberekoak izango dira; entitate nagusiak urtaldia ixten duenean itxi beharko dute zerga taldeko gainerako entitateek ere.

Hala ere, foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan ezarri bezala eraturako zerga talde baten kasuan, aurreko ekitaldian eragiketa bolumenik handiena izan duen taldeko entitateari dagokion zergaldia eta itxiera data hartu beharko dira kontuan.

3. 1. idatz zatian aipatzen diren dokumentuekin batera hauen berri eman behar da:

a) Erantsi gabe dauden aurreko zergaldietako ezabaketak

b) Zergaldian egindako ezabaketak (sorburua eta zenbatekoa behar bezala azalduta)

c) Zergaldian egindako eransketak (sorburua eta zenbatekoa behar bezala azalduta)

d) Zerga taldearen zerga oinarria kalkulatzeko egindako ezabaketen eta eransketen eta aurreko 1. idatz zatian aipatutako dokumentuak prestatzeko egindakoen arteko diferentziak (behar bezala azalduta).”

Hemezortzi. 98. artikulua honela geratzen da:

“98. artikulua. Zerga baterakuntzaren araubidea galtzeko arrazoi erabakigarriak

1. Zerga baterakuntzaren araubidea kasu hauetan galduko da:

a) Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera zerga taldeko entitatearen batek edo batzuek zeharkako zenbatespena aplikatu behar duenean.

b) Informazio betebeharrak, aurreko artikuluko 1. idatz zatian azaldutakoak, betetzen ez direnean

2. Zerga baterakuntzaren araubidea galdu egingo da aurreko idatz zatian aipatutako inguruabarretako bat gertatzen den zergaldian. Hala gertatzen denean, zergaldi horretan zerga taldeko entitateek banakako erregimenean ordaindu beharko dute zerga.”

Hemeretzi. 99. artikulua honela geratzen da:

“99. artikulua. Zerga baterakuntzaren araubidearen galeraren eta zerga taldea desagertzearen ondorioak.

1. Zerga taldea desagertu edo zerga baterakuntzaren araubidea galtzen den zergaldian ezabaketak eransteke baldin badaude, foru arau honetako 51. artikuluko 4. idatz zatian aurreikusitakoaren arabera zerga oinarrian integratzeke dauden zuzenketak baldin badaude, edo zerga taldearen zerga oinarri negatiboak edo konpentsatzeke dauden kuoten kenkariak baldin badaude, orduan honela jokatuko da:

a) Sartu gabeko ezabaketak zerga baterakuntzaren araubidea aplikatu ahal den azken zergaldian zerga taldeak daukan zerga oinarrian integratuko dira.

Aurrekoa ez da aplikatuko entitate nagusia berehala beste zerga talde baten mendeko entitate bihurtzen bada, ez eta foru arau honetako VI. tituluko VII. kapituluan ezarritako erregimen bereziari heldutako bat-egite prozesu batean beste talde bateko entitate batek irensten badu ere. Batera zein bestera, mendeko entitate guztiak beste taldean sartuko dira. Ezabatutako emaitzak beste zerga taldearen zerga oinarriari gehituko zaizkio, foru arau honetako 91. artikuluan xedatu den bezala.

Foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera eraturako zerga taldeen kasuan, arau berberak aplikatuko zaizkie baldin eta taldea osatzen duten entitateak beste zerga talde bateko mendeko bihurtzen badira.

Aurreko bi paragrafoetan xedatutakoa aplikatzeko ezinbestekoa da aipatutako inguruabarren arabera eraturako zerga taldeak zerga baterakuntzaren araubidea aplikatzea zerga ordaintzeko aurreko taldeak zerga baterakuntzaren araubidea azkenekoz aplikatu duen zergaldiaren ondoko zergaldiko lehenengo egunetik aurrera.

b) Erregimen horren azkentze edo galera gertatzen den zergaldian zerga taldea eratzen zuten entitateek zuzenketak egiteko eskubidea hartuko dute haien gain, hain zuzen ere foru arau honetako 51. artikuluko 4. idatz zatian xedatutakoa aplikatuz zerga oinarrian integratzeko dagoen zerga taldearen emaitza aplikatzeko arloan, zuzenketak egiteko izandako ekarpenaren neurrian.

Bidenabar, zerga taldeak egindako emaitzen aplikazioaren esparruan, zuzenketei dagozkien zenbatekoak zerga oinarrian integratzeko betebeharra ere hartuko dute haien gain, foru arau honetako 51. artikuluko 3. idatz zatian, 52. artikuluko 2. eta 3. idatz zatietan eta 53. artikuluko 3. eta 4. idatz zatietan aipatutakoak, zuzenketak egiteko izandako ekarpenaren neurrian.

Aurreko a) letrako bigarren edo hirugarren paragrafoan ezarritakoa aplikagarria baldin bada, foru arau honetako 89. artikuluko 6., 7. eta 8. idatz zatietan ezarritako arauak aplikatzerakoan aintzat hartuko da izaera hori galdu duen talde nagusiaren gidaritzapean zerga taldea eratzen zuten entitate multzoa, edo foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik eraturako zerga taldeen kasuan, eratzen zuten entitateen multzoa hartuko da kontuan.

c) Erregimena galtzen edo azkentzen den zergaldian zerga taldean dauden entitateek konpentsatu gabe dauden zerga taldearen zerga oinarri negatiboak konpentsatzeko eskubidea hartuko dute, hain zuzen ere haien sorkuntzan parte hartu duten proportzioan.

Kompentsazioa foru arau honetako 55. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako epealdia amaitzeko falta diren zergaldietan zerga banaka ordaintzeko erregimenean ebatziko diren zerga oinarri positiboekin egingo da. Epealdia zerga taldeak zerga oinarri negatiboa dauzkan zergaldiaren hurrengotik aurrera zenbatuko da.

Aurreko a) idatz zatiko bigarren edo hirugarren paragrafoan ezarritakoa aplikagarria baldin bada, foru arau honetako 92. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako arauak aplikatzerakoan aintzat hartuko da izaera hori galdu duen talde nagusiak gidatutako zerga taldea eratzen zuten entitateen multzoa, edo foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik eraturako zerga taldeen kasuan, eratzen zuten entitateen multzoa hartuko da kontuan.

d) Erregimena galtzen edo azkentzen den zergaldian zerga taldean dauden entitateek aplikatu gabe dauden zerga taldearen kuota kenkariak konpentsatzeko eskubidea hartuko dute, hain zuzen ere haien sorkuntzan parte hartu duten proportzioan.

Kompentsazioa foru arau honetan aplikatu gabeko kenkariak aplikatzeko ezarritako epealdia amaitzeko falta diren zergaldietan zerga banaka ordaintzeko erregimenean sortzen diren kuota oso edo likidoetan egingo da. Epealdia kendu beharreko zenbatekoak zehazten diren zergaldiaren edo zergaldien hurrengotik aurrera zenbatuko da.

Aurreko a) idatz zatiko bigarren edo hirugarren paragrafoan ezarritakoa aplikagarria baldin bada, foru arau honetako 96. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako arauak aplikatzerakoan aintzat hartuko da izaera hori galdu duen talde nagusiak gidatutako zerga taldea eratzen zuten entitateen multzoa, edo foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik eraturako zerga taldeen kasuan, taldea eratzen zuten entitateen multzoa hartuko da kontuan.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa zerga taldeko entitatearen bat taldetik irteten denean aplikatuko da.

a) letrako bigarren paragrafotik laugarren paragrafora eta artikuluko honetako aurreko idatz zatiko b), c) eta d) letretako hirugarren paragrafoetan jasotako arauak honako kasu hauetan izango dira aplikagarriak:

a) Zerga taldeko entitate nagusiak izaera hori galtzen badu, eta mendeko entitate bat zerga talde berriko entitate nagusi bihurtzen bada, zerga talde berriko kide guztiak aurreko taldeko kide ere baldin baziren.

b) Foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoaren arabera eraturako zerga talde batean entitate kide bat zerga talde berriko entitate nagusi bihurtzen bada, betiere zerga talde berriko kide guztiak aurreko taldeko kide ere baldin baziren.

c) Foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko lehenengo paragrafoaren arabera eraturako zerga talde bat aipaturako ataleko bigarren paragrafoaren arabera eraturako talde zerga berri bihurtzen bada, betiere zerga talde berriko kide guztiak aurreko taldeko kide ere baldin baziren.

Aurreko hiru letretan xedatutakoa aplikatzeko ezinbestekoa da aipaturako inguruabarren arabera eraturako zerga taldeak zerga baterakuntzaren araubidea aplikatzea zerga ordaintzeko aurreko taldeak zerga baterakuntzaren araubidea azkenekoz aplikatu duen zergaldiaren ondoko zergaldiko lehenengo egunetik aurrera.”

Hogei. 100. artikuluko 2. eta 3. idatz zatiak honela geratzen dira:

“2. Zerga taldearen aitortpena entitate ordezkariak banakako tributazioaren erregimenaren arabera aitortpena aurkezteko daukan epealdian aurkeztu behar da.

3. Zerga taldea azkendu, zerga baterakuntzaren araubidea galdu edo zerga taldeko entitateak bananduz gero egin beharreko aitortpen osagarriak epealdi honetan aurkeztu behar dira: azkentzea, galera edo banaketa eragiten duena gertatzen denetik sei hilabete pasatu eta ondoko hogeita bost egun naturalak.”

Hogeita bat. 132. artikuluari 5. idatz zatia gehitzen zaio; hona testua:

“5. Foru arau honetako VI. tituluko VI. kapituluaren xedatutakoarekin bat etorritik tributazioaren duten zerga taldeei dagokien zergaren ikuskaritza Arabako Foru Aldundiari dagokio entitate nagusia aldundiaren ikuskaritza eskumenaren mende baldin bada, aurreko 1. idatz zatian aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatian bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera eraturako zerga taldeen kasuan, zerga taldearen ikuskaritza Arabako Foru Aldundiari dagokio, baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketa bolumenik handiena izan duen taldeko entitatearen ikuskaritza egitea administrazio eskumenduna baldin bada, aurreko 1. idatz zatian aurreikusitakoarekin bat etorritik.”

### III. TITULUA

#### Zenbait zerga aldatzea

##### I. KAPITULUA

#### PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

#### **3. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren aldatzea**

Lehenengoa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 9. artikuluko 12. zenbakiko lehen paragrafoa aldatu da, eta zenbaki horri azken paragrafo bat gehituko zaio; 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta honela idatzita geldituko dira:

“Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko II. tituluko X. eta XV. kapituluak eta VI. tituluko I. kapituluak arautzen diren familia prestazioak, eta Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboaren erregimen publikoetatik jasotzen diren zurtasun pentsioak eta hartzeko pasiboak eta hogeita bi urtetik beherako biloben eta anai-arreben alde edo lan orotarako ezinduen alde aitortutakoak.”

“12. zenbakian aipatutako xede berdinak erantzuteko prestazioak arauz salbuetsita bezala aitortu ahalko dira.”

Bigarrena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan aldaketa hauek egin dira (ondorioak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte):

Bat. 9. artikuluko 9. zenbakia berriro idatzi da, eta honela geratu da:

“9. Irabazteko asmorik gabeko entitateek emandako bekak eta beka publikoak, irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga erregimena arautzen duen araudia aplikagarria bazaie, eta Aurrezki kutxa eta banku fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen II. tituluan araututako banku fundazioek dagokien gizarte ekintzako jarduera garatzean emandako bekak, ikasketak egiteko emandakoak, Espainian zein atzerrian, hezkuntza sistemako gradu eta maila guztietan, unibertsitateko hirugarren ziklora arte.

Halaber, salbuetsita daude urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuak, trebatzen ari diren ikertzaileen estatutua onartzen duenak, ezarritako eremuan ikerketarako ematen diren bekak, publikoak zein aurreko paragrafoan aipatzen diren irabazteko asmorik gabeko entitateek ematen dituztenak, bai eta ikerketa xede duten entitateek administrazio publikoaren zerbitzuko funtzionario eta gainerako langileei eta unibertsitateetako irakasleei eta ikertzaileei ematen dizkietenak ere.”

Bi. 9. artikuluko 13. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“13. Entitate kudeatzaile eskudunak onetsitako langabezi prestazioak, ekainaren 19ko 1.044/1985 Errege Dekretuaren bidez ezarritako ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen direnean, hau da, ordainketa bakarreko modalitatean ordaintzen diren langabezi prestazioak arautzen dituen dekretuan ezarritakoaren arabera jasotzen direnean, baldin eta jasotako zenbaterakoak aipatutako errege dekretuan ezarritako helburuetara bideratzen badira eta bertan aipatzen diren kasuetan emandakoak badira.

Aurreko paragrafoan ezarritako salbuespena aplikatzeko ezinbestekoa da hauetako bat gertatzea: zergaduna lan sozietate edo lan elkartuko kooperatiba batean sartu bada edo ekarpena egin badu merkataritzako entitate baten kapitalera, akzioa edo partaidetza bost urtean mantentzea; langile autonomoa bada, jarduerari bost urtean eustea. Akzioa edo partaidetza mantentzeko bost urteko epea ez da eskatuko hura ez betetzearen zioa enpresa edo jarduera ekonomikoa lehiaketa prozedura baten ondorioz likidatzea denean. Langile autonomoen kasuan, epe hori mantentzea ez da eskatuko hura ez betetzearen zioa urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko 331. artikuluko 1. ataleko a) letrako 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoaren ondorio baldin bada. Ez betetzearen zioak egiaztatzeko zergadunak aurkeztu beharreko ziurtagiriak arauz definituko dira, eta, zehazki, aipatutako 331. artikuluko 1. ataleko a) letrako 1. zenbakian eskatutako galera maila erregistratzen duen kontabilitate dokumentazioa.

Halaber, salbuetsita egongo dira borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek desegintzat jotako kooperatiben bazkide langileei eta lan-bazkideei –Gizarte Segurantzaren norberaren konturako langileen edo langile autonomoen araubideari atxikitakoei– behin betiko birkokatzen diren kooperatiben kapital sozialerako ekarpenak egiteko behin betiko birkokapenagatik onartutako enplegurako laguntza ekonomikoak.

Aurreko paragrafoan jasotako kasuetan, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak halako kontzeptuan onartzen duen gehieneko prestazioa izango da zenbaterako salbuetsiaren muga. Gai-dikina lanaren etekin gisa kargatuko da.”

Hiru. 9. artikuluari 36. idatz zatia gehitzen zaio; hona testua:

“36. Eskola Kiroleko Egitarauaren barnean edo eskola adinean dauden kirolarientzako Arabako Foru Aldundiak baimendutako jardueretan edo lurraldeko kirol federazioen jardueretan diharduten monitore, arbitro, epaile, ordezkari, kirol arduradun, federazioko zuzendari tekniko eta entrenatzaileen etekinak, lanbide arteko soldataren mugaraino.”

Lau. 11. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Sozietate zibilen (nortasun juridikoa izan zein ez), jaraunspen banatugabeen, ondasun erki-degoen eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako gainerako entitateen errentak bazkideei, jaraunslerei, erkideei edo partaideei eratzikiko zaizkie, hurrenez hurren, foru arau honetako IV. tituluko VI. kapituluko 2. atalean ezarritakoaren arabera.

Atal horretan xedatutakoa ez da aplikagarria izango foru arau honetako hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian aipatutako sozietate zibilen bazkideen kasuan.”

Bost. 18. artikuluko a) letrako. 3. idatz zatiko b') letra aldatzen da; hona testu berria:

“b') Pentsio planen onuradunek jasotako prestazioak, barruan sartuta, baita ere, 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginaren 8. artikuluko 8. apartatua jasotako kasuetan modu aurreratuan erabilitako kopuruak, eta Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enpleguko pentsio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruz emandako 2003/41/EE Zuzentarauan araututako pentsio planetatik jasotakoak”

Sei. 18. artikuluko a) letrako 7. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“7. Aurreikuspen plan aseguratuen onuradunek jasotako prestazioak, barruan sartuta, baita ere, 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginaren 8. artikuluko 8. apartatua jasotako kasuetan modu aurreratuan erabilitako kopuruak.”

Zazpi. 27. artikuluko 1. araua aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Ez dira gastu kengarrizat joko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 31. artikuluko 4. zenbakian aipatutako kontzeptuak, ez eta enpresaburuak edo profesionalak berak gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak ere, foru arau honetako 70. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Hala ere, gastu kengarrizat joko dira norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabeko profesionalek sinatutako aseguru kontratuengatik ordaindutako kopuruak, Aseguru pribatuen antolamendu eta ikuskapenari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legeko hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betebeharrak betetzeko, aipatutako Gizarte Segurantzako erregimen bereziaren ordezkari lanak egiten dituztenean, erregimen berezi horrek hartutako kontingentzien estaldura xedetzat daukan zatian, aipatutako erregimen berezian ekitaldi ekonomiko bakoitzerako ezarritako kontingentzia arrunten gehienezko kuota muga gisa izanik.”

Zortzi. 36. artikuluko 1. idatz zatiko a) letra aldatzen da; hona testu berria:

“a) Kapital geroratua jasotzen denean, jasotako kapitalaren eta ordaindutako primen arteko diferentzia izango da kapital higikorren etekina.

Hala ere, aseguru kontratuak biziraupen kontingentzia eta ezintasun edo heriotza kontingentzia uztartzen baditu eta jasotako kapitala biziraupen kontingentziari badagokio, kapitalari dagozkion ordaindutako primak ere kendu ahalko dira ezintasun edo heriotza arriskuan, ordura arte kontsumitutakoa, betiere kontratuaren indarraldi osoan arrisku kapitala hornidura matematikoaren ehuneko 5en parekoa edo txikiagoa bada. Ondorio horietarako, hornidura matematikoaren eta ezintasun edo heriotzarako aseguratutako kapitalaren arteko aldea kapital arrisku gisa hartuko da.”

Bederatzi. 39. artikuluko 2. idatz zatiko hirugarren paragrafoa aldatzen da; hona testu berria:

“Atal honetako lehenengo paragrafoan jasotakoa gorabehera, Hiri errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2. artikulua aipatutako etxebizitzaren gaineko azpierrete eratorritako errentamenduak direnean, errentamendu garbia lortzeko kengarriak izango dira azpierreteak errentamendu kontzeptuan ordaindutako zenbatekoak, azpialokatutako elementuaren zati proportzionalan eta, horrez gain, azpialokatutako higiezin bakoitzeko lortutako etekin guztien eta gastu kengarri gisa zenba daitekeen zenbatekoaren arteko aldeari ehuneko 20ko hobaria aplikatuko zaio.”

Hamar. 41. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“1. Ondarearen eraketan aldaketarik ez dagoela ulertuko da, betiere gehiegizko esleipenik ez badago:

a) Gauza erkidea zatikatzen denean.

b) Irabazpidezko sozietatea desegiten denean, ondare partaidetzako erregimen ekonomikoa azkentzen denean eta izatezko bikote baten erregimen ekonomikoa azkentzen denean, baldin eta aurreko erregimen ekonomikoetako bat itundu badute.

c) Ondasun erkidegoak desegitean edo erkideak banantzen direnean.

Zenbaki honetan aipatzen diren kasuek ezingo dute inola ere ekarri jasotako ondasunen edo eskubideen balioa eguneratzea.”

Hamaika. 42. artikuluar f) letra gehitzen zaio; hona:

“f) 65 urtetik gorako zergadunek ondare elementuen eskualdaketa dela bide agerian geratzen diren ondare etekinak, betiere eskualdaketatik lortutako zenbateko guztia sei hileko epean bere aldeko biziarteko errenta batera bideratzen bada, arauz ezarritako baldintzetan. Biziarteko errentara bideratu daitekeen gehienezko zenbatekoa 240.000 eurokoa da.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada eskualdaketa jasotako zenbateko osoa baino, lortutako ondare-irabazian berrinbertitutako zenbatekoari dagokion zati proportzionala baino ez da utziko zergapetu gabe.

Eratutako biziarteko errentatik eratorritako eskubide ekonomikoak erabat edo partzialki aurreratzeak kasuan kasuko ondare irabazien tasaren mende egotea ekarriko du.”

Hamaika bis. Idazkera berria ematen zaio 43. artikuluar e) letrari. Honela geratuko da:

“e) Zerga-aldian izandako joko-galaren ondorioz gertatzen direnak, baldin eta zerga-aldi berean jokoan lortutako irabaziaz baino handiagoak badira.

Ez dira inola ere kontuan izango Foru Arau honen Hamazortzigarren Xedapen Gehigarrian aipatzen diren jokoetan parte-hartzetik eratorritako galerak.”

Hamabi. 47. artikuluko 1. idatz zatiko b) letrako bigarren paragrafoa aldatzen da; hona testu berria:

“Benetan ordaindutako zenbatekoa alderdi independenteek merkatuko baldintza arruntetan hitzartuko zutenarekin bat datorrela frogatu ezean, eskualdaketa balioak ezingo du honako bi hauek handiena baino txikiagoa izan:

- Zergaren sortzapen data baino lehen itxizko azken ekitaldiko balantzetik ateratako eskualdatutako balioei dagokien ondare garbiaren balioa.

- Zergaren sortzapen egunaren aurretik itxizko hiru ekitaldien emaitzen batez bestekoari ehuneko 20ko kapitalizazio tasa aplikatzearen emaitzako kopurua. Horretarako, mozkin gisa konputatuko dira banatutako dibidenduak eta erreserbarako kopuruak, baina bazter utziko dira balantzeak erregularizatzeko edo eguneratzeko erreserbetarako kopuruak.”

Hamahiru. 47. artikuluko 1. idatz zatiko d) letrako lehenengo eta bigarren paragrafoak aldatzen dira; hona testu berriak:

“d) Balioa aldatzen bada inbertsio kolektiboko entitateen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzen kostu bidezko eskualdaketa edo itzulketagatik, akzio partaidetzon eskuraketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko diferentzia izango da eragiketa horretako irabazia edo galera. Eskualdaketa balioa eskualdaketa edo itzulketa egiten den egunean aplikagarria den likidazio balioak emango du, edo, halakorik ezean, argitaratutako azken likidazio balioak. Likidazio baliorik ez badago, zergaren sortzapen data baino lehen itxitako azken ekitaldiko balantzetik ateratako eskualdatutako partaidetza edo akzioei dagokien ondare garbiaren balioa hartuko da.

Partaidetzen itzulketa ez beste kasu guztietan, eskualdaketa balioa ezin da izan bi hauetatik handiena baino gutxiago:

- Eskualdaketan benetan itundutako prezioa.

- Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 21ean finantza tresnen merkatuez emandako 2004/39/CE Zuzentarauan azaldutako bigarren mailako balore merkatuetako eta, bereziki, urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Balore Merkatuei buruzko Legearen Testu Bategineko 43. artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoaren arabera baimendutako balore negozioko sistemetako kotizazio balioa, eskualdaketa egunekoa.”

Hamalau. 51. artikuluko 2. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“2. Egoitza Espainiako lurraldean ez duen entitate batek lortutako errenta positibo osoa zergadunei egotziko zaie, baldin eta entitate horrek ez badu errenta hori gauzatzeko baliabide materialen eta giza baliabideen antolaketa egokirik, nahiz eta eragiketa errepikariak izan. Hala ere, partaidetzen eskualdaketatik eratorritako errenta edo etekinen partaidetza edo dibidendu kasuetan, atal honetako azken hiru paragrafoetan jasotakoari erreparatuko zaio.

Errenta osotzat hartuko da Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan eta horretarako zerga horri buruzko gainerako xedapenetan ezarritako printzipio eta irizpideak aplikatzearen ondoriozko zerga oinarriaren zenbatekoa.

Aurreko paragrafo bietan ezarritakoa ez da aplikatuko baldin eta zergadunak egiaztatzen badu eragiketa horiek Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera talde berekoa den eta egoitza Espainiako lurraldean ez duen entitate baten baliabide material eta giza baliabideekin egiten direla, entitateon egoitzaren lurraldea eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra kontuan hartu gabe, edo egiaztatzen badu arrazoi ekonomiko baliadunak daudela entitatea eratzeko eta haren jardunerako.

Zenbaki honen lehenengo bi paragrafoetan ezarritakoa aplikatzen ez bada, dela haietan ezarritako inguruabarrak betetzen ez direlako dela aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatu delako, bakarrik egotziko da honako iturri hauetako bakoitzetik datorren errenta positiboa:

a) Landa ondasun edo hiri ondasun higiezinaren titulartasuna edo haien gaineko eskubide errealea, ondoko kasuetan izan ezik: enpresa jarduera bati atxikita badaude, foru arau honetan xedatutakoarekin bat etorritik, edo egoiliar ez den sozietate talde bereko (Merkataritzako Kodeko 42. artikulua) entitate bati erabiltzeko lagata badaude.

b) Denetariko entitateen funts propioen partaidetzak eta norberaren kapitalak hirugarrenei lagatzea (foru arau honetako 34. eta 35. artikulua, hurrenez hurren).

Ez da letra honetan sartuko honako finantza aktibo hauetatik eratorritako errenta positiboa:

Lehenengoa. Ekonomia jarduerak egiteagatik sortutako legezko eta arauzko obligazioak betetzeko edukitako finantza aktiboak.

Bigarrena. Ekonomia jarduerak egitearen ondorioz finkatutako kontratu harremanetatik sorturiko kreditu eskubideak jasotzen dituzten aktiboak.

Hirugarrena. Baloreen merkatu ofizialetan bitartekaritza jarduerak egitearen ondorioz edukitako aktiboak.

Laugarrena. Kreditu eta aseguru entitateek beren jardueren ondorioz edukitako aktiboak, jarraian datorren c) letran finkatutakoaren kalterik gabe.

Kapital propioak hirugarrenei lagatzetik eratorritako errenta positiboa hurrengo c) letran aipatuko diren kreditu eta finantza jarduerak buruzetik datorrela ulertuko da, baldin eta lagatzailea eta lagapen hartzailea sozietate talde batekoak badira, Merkataritzako Kodeko 42. artikuluko zehaztutakoaren arabera, eta lagapen hartzailearen diru sarreren ehuneko 85 gutxienez ekonomia jarduerak egitetik badator.

c) Kreditu, finantza, aseguru eta zerbitzu jarduerak, salbu esportazio jarduerekin zuzenean lotuta daudenak, baldin eta zuzenean edo zeharka Espainian egoitza duten eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arau honetako 42. artikuluko 3. idatz zatiaren zentzuan lotuta dauden pertsona edo entitateekin batera burutu badira, entitate egoiliar horientzat gastu kengarriak sortzen dituztenean.

Baldin eta kreditu jardueren, finantza jardueren, aseguru jardueren edo zerbitzugintzen ondoriozko sarreren ehuneko 50 baino gehiago (esportazioarekin zuzenean lotutako jarduerenak ez dira zenbatzen) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko honetako 42. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoaren arabera lotuta ez dauden pertsona eta entitateekin egindako jarduerak sortu badute, errenta positiboa ez da sartu behar.

d) Kapitalizazio eta aseguru eragiketak, haien onuraduna entitatea bera bada.

e) Jabetza industrial eta intelektuala, laguntza teknikoa, ondasun higigarriak, irudi eskubiak eta negozio edo meatzeen errentamendu eta azpierreantamendua, foru arau honetako 37. artikuluan ezarritakoaren inguruabarretan.

f) Finantza tresna deribatuak, salbu eta jarduera ekonomikoak egitetik datorren eta berariaz identifikatuta dagoen arrisku bat estaltzeko izendatutakoak.

g) Aurreko a), b), d) eta e) letretan aipatutako ondasun eta eskubideak eskualdatzea, errentak sortzen direnean.

Aurreko b) eta g) letretan ezarritako errentak, egoiliar ez den entitateak lortutakoak, ez dira sartu behar kasu honetan: entitate horrek zuzenean edo zeharka ehuneko 5ekoa baino partaidetza handiagoa daukan entitate batetik badatoz (edo ehuneko 3koa baino handiagoa, sozietate horrek antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen badu), ondoko bi beharizunak betez gero:

- Lehenengoa: Entitate ez egoilarrak partaidetzak zuzentzea eta kudeatzea, baliabide materialak eta giza baliabideak antolatuz.

- Bigarrena: Errentak sortzen dituzten entitateen sarreren ehuneko 85 gutxienez jarduera ekonomikoetan lortzea.

Honetarako, jarduera ekonomikoetan lortuzat joko dira b) eta g) letretan aipatutako errentak, baldin eta bigarren betekizuna betetzen duten entitateetatik badatoz, hain zuzen ere entitateak zuzenean edo zeharka ehuneko 5ekoa baino partaidetza handiagoa daukan entitateetatik (edo ehuneko 3koa baino handiagoa, sozietate horrek antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen badu).

Entitateak Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera sozietateen talde berekoak badira, urteko kontu bateratuak aurkezteko betebeharra eta egoitza gorabehera, partaidetzari dagozkion betekizunak eta partaidetza kudeaketa eta helburu bat izateak horren parte diren guztiak aintzat hartuta ebatziko da.”



Hamabost. 51. artikuluko 3. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“3. Artikulu honetako bigarren idatz zatian aurreikusitako errentak ez dira zenbatuko bertako zenbatekoen batura entitate ez egoiliarrek lortutako errenta osoaren ehuneko 15 baino txikiagoa baldin bada, atal horretako c) letrak aipatutako errentak izan ezik; kasu horretan, guztira zenbatuko dira.

Merkataritzako Kodearen 42. artikuluko araberako sozietate talde batean Espainiako lurraldean egoiliarrek ez diren entitateen multzoak lortutako errentari edo diru sarrerei buruzkoak izan daitezke aurreko paragrafoan ezarritako mugak.

Inola ere ezingo da sartu entitate ez egoiliarren errenta osoa baino handiagoa den zenbatekorik.

Sozietate ez egoiliarrek Sozietateen gaineko Zergaren berdina edo antzekoa den zergaren batengatik ordaindutakoa ez da egotziko zergadunaren zerga oinarrian, sartu beharreko errenta zatiari dagokionez.

Artikulu honetako 2. zenbakian aipatutako iturri bakoitzeko errenta positiboak zerga oinarri orokorrean egotziko dira, foru arau honetako 62. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.”

Hamasei. 51. artikuluari 14. idatz zatia gehitzen zaio; hona testua:

“14. Artikulu honen ondorioetarako, Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan aipatutako sozietate taldean sartzen dira talde anitzeko entitateak eta entitate elkartuak, merkataritzako legeriarekin bat etorritz.”

Hamazazpi. 53. artikuluari hirugarren paragrafoa gehitzen zaio; hona testua:

“Atal horretan xedatutakoa ez da aplikagarria izango foru arau honetako hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian aipatutako sozietate zibilen bazkideen kasuan.”

Hamazortzi. 57. artikuluko 2. idatz zatiko h) arauko b) letrako bigarren idatz zatiko 2. eta 3. betekizunak aldatzen dira; hona:

“2. Horniduren inbertsioa hornidura teknikoen inbertsiorako baliagarriak diren aktiboetan egin behar da, Aseguru eta berraseguru entitateen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuan jasotakoak, higiezinaren errege eskubideak eta ondasun higiezinak salbu.

3. Aktibo multzo bakoitzeko inbertsioak bete egin behar ditu dibertsifikazioaz eta barreiatuz aseguru kontratuetarako Entitate aseguratzaile eta berraseguratzzaileen antolamendu, ikuskaritza eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legeak eta Entitate aseguratzaile eta berraseguratzzaileen antolamendu, ikuskaritza eta kaudimenari buruzko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak onetsitako aseguru kontratuen eta hura garatzeko ematen diren arau guztiek ezarritako mugak.

Dena den, aktibo multzoek baldintza horiek betetzen dituztela ulertu behar da, baldin eta haien helburua hau bada: Europar Batasuneko bigarren mailako balore merkatu ofizialetako baten adierazgarri den burtsako edo errenta finkoko indize jakin bat erreproduzitzera zuzenduta dagoen inbertsio politika bat garatzea.”

Hemeretzi. 57. artikuluko 2. idatz zatiari k) letra gehitzen zaio; hona:

“k) Laguntza publikoetatik eratorritako ondare irabaziak kobratzen diren zergaldian zenbatuko dira.”

Hogei. 70. artikuluko 1. idatz zatiko 5. azpiataleko e) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“e) Erregelamendu bidez ezarritako dira hornidura matematikoa beste aurreikuspen plan aseguratuta batera aldatzeko betekizunak eta baldintzak.

Foru arau honetan eta araua garatzeko arauetan berariaz erregulatuta ez dauden alderdie-tan, kontratu horien ekarpen, kontingentzia eta prestazioen araubidea pentsio-planen arautegi erregulatuarekin araberakoa izango da, salbu hornidura teknikoan alderdi finantzario eta aktuarialetan. Bereziki, bermatutako aurreikuspen planen eskubideak ezin dira bahitu eta ezin zaie ezarri epai edo administrazio trabarik harik eta prestaziorako eskubidea sortu arte edo eskubideok, gaixotasun larria edo langabezia luzea dela eta baliatu arte, edo gutxienez hamar urteko antzinasunez ordaindutako hobariei badagozkie.”

Hogeita bat. 70 artikuluko 6. idatz zatiko lehendabiziko paragrafoa honela geratzen da:

“6. Halaber, erretiroagatik edo estalitako kontingentziak ez beste batzuk gertatzeagatik edo azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategineko 8. artikuluko 8. idatz zatian ezarritako egoerengatik kapital prestazioen bat jasotzen den zergaldian gizarte aurreikuspeneko sistemetara ekarpenik edo kontribuziorik (1. idatz zatian arautu direnetako bat) egiten bada, murrizketak muga hau edukiko du: ekitaldiko zerga oinarrian sartzen diren jasotako diru kopuruei dagozkien ekarpenen zenbatekoa.”

Hogeita bi. 90. artikuluko 2. idatz zatiko a) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“a) Batetik, sozietate anonimo, erantzukizun mugatuko sozietate, kooperatiba, lan sozietate anonimo edo erantzukizun mugatuko lan sozietate anonimoaren forma izan behar dute, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean (uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) eta Lan Sozietateen eta parte hartuen urriaren 14ko 44/2015 Legean ezarritako moduan, eta ezin egongo dira negoziatzeko onartuta ezein merkatu antolatutan. Baldintza hau akzioa edo partaidetza edukitzen den urte gutzietan bete behar da.”

Hogeita hiru. 102. artikuluko 2. idatz zatiko c) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak batuta (kasu bietan, salbuetsiak barne), haien urteko kopuru gordina 1.600 euro baino gehiago ez bada.

Letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko talde inbertsioko entitateen akzioen edo partaidetzen eskualdaketek edo itzulketek sortzen dituzten ondare irabaziei, baldin eta araudiz ezarritakoaren arabera atxikipen oinarria ez bada zehaztu behar zerga oinarrian integratu beharreko zenbatekoa aintzat hartuta.”

Hogeita lau. 107. artikuluko 1. idatz zatiko hirugarren eta laugarren paragrafoak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“Egoitza Europako Espazio Ekonomikoko kide den beste estatu batean daukaten entitate aseguratzaileak Espainian aritzen badira, zerbitzuen prestazio libreko erregimenean, Espainian egiten dituzten eragiketei dagokienez atxikipena edo konturako sarrera egin beharko dute.

Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliartutako pentsio funtsak Espainiako legeriari lotuta dauden laneko pentsio planak garatzen baditu, laneko pentsio funtsen jarduerak eta gainikuspena arautzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentarauan ezarritakoaren arabera, entitate kudeatzaileek Espainian egiten dituzten eragiketei dagokienez atxikipena egin beharko dute.”

Hogeita bost. 109. Artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoa honela geratzen da:

“Atxikipenik egin ez denean edo behar baino gutxiago egin denean, atxikitzailari edo kontura sartzera behartutakoari bakarrik egotzi dakiokkeen arrazoi batengatik, atxiki beharreko kopurua kenduko du kuotatik jasotzaileak”

Hogeita sei. 116. artikuluko f) eta g) letrak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“f) Egoitza Europako Espazio Ekonomikoko kide den beste estatu batean izan eta zerbitzuen prestazio libreko erregimenean Espainian aritzen diren entitate aseguratzaileetarako, Espainian egiten dituzten eragiketei dagokienez.

g) Espainian egiten diren eragiketei dagokienez, foru arau honetako 107. artikuluko 1. idatz zatiaren azkenaurreko paragrafoan aurreikusitako entitateetarako.”

Hogeita zazpi. 116. artikuluari l) letra gehitzen zaio; hona:

“l) Ekarpenen itzulketarekin kapitala murriztu edo jaulkipen prima banatzen duten entitateetarako, atxikipenen mende ez dauden banaketei dagokienez.”

Hogeita zortzi. Hamargarren xedapen gehigarriko 3. idatz zatiko b) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“b) Finantza entitateei, merkaturatzen dituzten aurrezpen sistematikoko banakako planei dagokienez, foru arau honetako laugarren xedapen gehigarriak aipatutakoak, edo foru arau honetako 42. artikuluko f) letran aurreikusitako biziarteko errenta aseguratuei dagokienez.”

Hogeita bederatz. Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria eransten da; hona:

“Hogeita bederatzigarrena. Sozietateen gaineko Zergaren mende dauden sozietate zibilak.

1. Sozietateen egoitza fiskaleko araudia dela-eta Sozietateen gaineko Zergaren zergadun diren sozietate zibiletako bazkideek ez dute beren zerga oinarrian sartuko foru arau honetako 11. artikuluan ezarritakoaren arabera egotzi beharko litzaizkiekeen errenten parte proportzionala

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, sozietate zibil horietako bazkideek beren zerga oinarriaren barruan sartu beharko dute sozietate zibilak lortutako errenta positiboa, bakoitzari dagokion proportzioan, eta erregela hauek aplikatuko zaizkie:

a) Errenta positibo hori zerga oinarrian sartuko dute, hain zuzen, sozietate zibilak bere ekitaldi soziala amaitzen duen egunaren ostean amaitzen den zergaldian

b) Foru arau honetan nahiz zerga honi buruzko gainerako xedapenetan zerga oinarria zehazteko finkatu diren printzipio eta irizpideen arabera kalkulatu da zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa.

Errenta osotzat joko da, hain zuzen, irizpide eta printzipio horiek aplikatuz ateratzen den zerga oinarriaren zenbatekoa.

c) Xedapen gehigarri honetan jasotakoa aplikagarria zaien zergadunek, zerga honen autolikidazioarekin batera, sozietate zibilari buruzko datu hauek aurkeztu behar dituzte:

i) Sozietatearen izen edo izendazioa, eta sozietatearen egoitzaren lekua.

ii) Administrazioaren zerrenda.

iii) Balantzea eta galera irabazien kontua.

iv) Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa

d) Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboa dela eta ordaindutako zergen frogagiriak Xedapen gehigarri hau aplikagarria zaien zergadunek zerga honen kuota osotik Sozietateen gaineko Zergaren pareko edo izaera berdineko zergak edo kargak kendu ahalko dituzte, behar bezala ordaindu badituzte, zerga oinarrian jasotako errenta positiboari dagokion neurrian.

Benetan ordaindutzat joko dira egoiliar ez den sozietate zibilak eta hark partaidetza daukan entitateek ordaindutakoak, baldin partaidetza ehunekoa Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauko 33. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran ezarritakora heltzen bada.

Letra honetan aipatutako kenkariak ezin du gainditu zerga oinarrian sartutako errenta dela-eta zerga honetan ordaindu beharreko kuota osoa, eta atzerrian ordaindutako zergak kenduz gero, kenkariaren zenbatekoa ezin da izan errenta Arabako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren arautegiaren menpean dagoen entitate batek ordainduz gero errenta hori dela-eta ordaindu beharreko kuota osoa baino gehiago.

3. Ez dira zerga oinarrian sartuko sozietate zibiletatik jasotako dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, ez eta sozietate horietako partaidetza eskualdatuz lortutako errentak ere, baldin eta errenta horiek zerga honen zerga oinarrian integratu badira xedapen gehigarri honetan ezarritakoa aplikatuz.

Tratamendu bera aplikatuko zaie konturako dibidenduei.

Errenta positibo bera behin bakarrik sar daiteke, edozein modutan eta edozein entitatek sortua delarik ere.

Hogeita hamar. Lehenengo xedapen iragankorreko lehenengo ataleko lehenengo arauko b) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“b) Eskualdatutako ondare elementuak ondasun higiezinak, horien gaineko eskubideak edo Baloreen Merkatuari buruzko Legearen Testu Bategineko 314. artikuluan (urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoa) aipatutako entitateen baloreak badira, kanpoan utzita higiezinaren inbertsio sozietate edo funtsen kapital sozialaren edo ondarearen akzio edo partaidetzak, murrizketa ehuneko 11,11koa izango da aurreko letran adierazitako iraupen urteak bitik gora gainditzen diren urte bakoitzeko.”

Hogeita hamaika. Hogeita laugarren xedapen iragankorra gehitzen da; hona:

“Hogeita laugarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen eta Sozietateen gaineko, ez egoiliarren errentaren gaineko eta ondarearen gaineko zergen legeak partez aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legeko hemeretzigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera desegin eta likidatutako sozietate zibilen bazkideen erregimena.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko, ez egoiliarren errentaren gaineko eta ondarearen gaineko zergen legeak partez aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legeko hemeretzigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikagarria zaien sozietate zibilen bazkideak badira, xedapen iragankor horren 2. ataleko c) letran xedatutakoa aplikatuko dute.

Hirugarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan aldaketa hauek egin dira (ondorioak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte):

Bat. 34. artikuluko e) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“e) Akzio edo partaidetzen jaulkipen primaren banaketa. Banaketatik lortutako zenbatekoak gutxitu egingo du banaketa horrek eragindako akzio edo partaidetzen eskuraketa balioa, hura deuseztatu arte, eta handik atera daitekeen soberakina kapital higigarriaren etekin gisa zergapetuko da.

Aurreko paragrafoan jasotakoa gorabehera, sozietate edo entitateko funts propioen partaidetzaren ordezkari eta finantza tresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan definitutako balioen merkatu arautuetan negoziatziorako onartu gabeko balioei dagozkien jaulkipen primak banatuz gero, prima banatzeko data aurretik itxitako azken ekitaldiari dagozkion partaidetza edo akzioen funts propioen balioaren eta eskuraketa balioaren arteko desberdintasuna positiboa baldin bada, lortutako zenbatekoa edo jasotako eskubide edo ondasunen merkatuko balio normala kapital higigarriaren etekin gisa hartuko da, desberdintasun positiboaren mugarekin.

Ondorio horietarako, aurreko paragrafoak aipatutako funts propioen balioa gutxitu egingo da jaulkipen prima banatu aurretik banatutako etekinen zenbatekoan, funts propioetan jasotako erreserbetatik jasotakoak, baita akzioak edo partaidetzak eskuratu ondoren sortutako funts propio horietan jaso eta legalki erabilezinak diren erreserben zenbatekoan ere.

Aipatutako mugaren gaineko gehiegikeriak partaidetza edo akzioen eskuraketa balioa murriztuko du e) letra honen lehenengo paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritz.

Baldin eta e) letra honen bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatuz jaulkipen primaren banaketak zenbatutakoa lortutako zenbateko osoaren edo zati baten kapital higigarriaren etekin gisa hartzea ekartzen badu, edo jasotako ondasun eta eskubideen merkatuko balio normalarena, eta ondoren zergadunak artikulu honen a) letrarekin bat etorritz etekinetan partaidetzak edo dibidenduak lortuz gero, entitate berberetik iritsitakoak jaulkipen prima banatu zenetik bere ondarean egondako partaidetza edo akzioei dagokienez, etekinetan partaidetza edo dibidenduetatik iritsitako zenbatekoari kendu egingo zaio, aldez aurretik zenbatutako kapital higigarriaren etekinen mugarekin, aipatutako partaidetza edo akzioei dagozkienak, horien eskuraketa balioa, e) letra honen lehenengo paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritz.”

Bi. 41. artikuluko 2. idatz zatiko a) letra aldatzen da; hona testu berria:

“a) Kapital murrizketetan. Kapital murrizketak, edozein xede duela ere, balore edo partaidetzak amortizatzea dakarrenean, eskuratutako lehenak joko dira amortizatutzat, eta haien eskuraketa balioa proportzionalki banatuko da zergadunaren ondarean segitzen duten gainerako balore homogeneoen artean. Kapital murrizketak ez badie zergadunaren balore edo partaidetza guztiei maila berean eragiten, lehenago eskuratutakoei dagokiela ulertuko da.

Kapital murrizketaren xedea ekarpenak itzultzea denean, murrizketaren zenbatekoa edo jasotako ondasun eta eskubideen merkatu balio normala gutxituko zaio ukitutako baloreen edo partaidetzen eskuraketa balioari, aurreko lerroaldeko arauarekin bat etorritz, balio hori deuseztatu arte. Soberakin egonez gero, soberakin hori kapital higigarriaren etekin gisa integratuko da eta edozein motatako entitateen funts propioetan parte hartzeagatik lortu dela joko da. Integrazioa jaulkipen primen banaketarako ezarritako era berberari jarraikiz egingo da, kapital murrizketa banatu gabeko mozkinen ondorio denean izan ezik. Horrelakoetan, kontzeptu honengatik jasotzen diren kopuru guztiak foru arau honetako 34.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera zergapetuko dira. Ondorio hauetarako, kapital murrizketak, edozein xede duela ere, banatu gabeko mozkinetatik ez datorren sozietatearen kapitalaren zatiari eragingo dio lehen-dabizi, hura deuseztatu arte.

Aurreko paragrafoan jasotakoa gorabehera, kapitala murrizten bada ekarpenak itzultzeko eta banatu gabeko etekinetik ez badator, Sozietate eta entitateko funts propioen partaidetzaren ordezkari eta finantza tresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan definitutako balioen merkatu arautuetan negoziatorako onartu gabeko balioei dagozkienez, kapitala murriztu aurretik itxitako azken ekitaldiari dagozkion partaidetza edo akzioen funts propioen balioaren eta eskuraketa balioaren arteko desberdintasuna positiboa baldin bada, lortutako zenbatekoa edo jasotako eskubide edo ondasunen merkatuko balio normala kapital higigarriaren etekin gisa hartuko da, desberdintasun positiboaren mugarekin.

Ondorio horietarako, aurreko paragrafoak aipatutako funts propioen balioa gutxitu egingo da kapitala murriztu aurretik banatutako etekinen zenbatekoan, funts propioetan jasotako erreserbetatik jasotakoak, baita akzioak edo partaidetzak eskuratu ondoren sortutako funts propio horietan jaso eta legalki erabilezinak diren erreserben zenbatekoan ere.

Aipatutako mugaren gaineko gehiegikeriak partaidetza edo akzioen eskuraketa balioa murriztuko du a) letra honen bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritz.

Baldin eta a) letra honen hirugarren paragrafoan xedatutakoa aplikatuz kapitala murrizteak zenbatutakoa lortutako zenbateko osoaren edo zati baten kapital higigarriaren etekin gisa hartzea ekartzen badu, edo jasotako ondasun eta eskubideen merkatuko balio normalarena, eta ondoren zergadunak foru arau honetako 34. artikuluko a) letrarekin bat etorritz etekinetan partaidetzak edo dibidenduak lortuz gero, entitate berberetik iritsitakoak kapitala murriztu zenetik bere ondarean egondako partaidetza edo akzioei dagokienez, etekinetan partaidetza edo dibidenduetatik iritsitako zenbatekoari kendu egingo zaio, aldez aurretik zenbatutako kapital higigarriaren etekinen mugarekin, aipatutako partaidetza edo akzioei dagozkienak, horien eskuraketa balioa, a) letra honen bigarren paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritz.”

## II. KAPITULUA

## SOZietateen GAINeko ZERGA

**4. artikulua. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua aldatzea**

Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan, Sozietateen gaineko Zergarenean, aldaketak egin dira. Aldaketa horiek 2016eko urtarrilaren 1az geroztik hasitako zergaldietan izango dituzte ondorioak. Hona aldaketa horiek:

Bat. 10. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“1. Sozietate zibilek (nortasun juridikoa izan zein ez), jaraunspen banatugabeek, ondasun erkidegoek eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako gainerako entitateek lortutako errentak, bai eta jasandako atxikipen eta konturako sarrerak ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko IV. tituluko VI. kapituluko 2. atalean ezarritakoaren arabera eratzikiko zaizkie bazkideei, jaraunsleei, erkideei edo partaideei, hurrenez hurren.

Atal horretan xedatutakoa ez da aplikagarria izango foru arau honetako hogeita bigarren xedapen gehigarrian aipatutako sozietate zibilen bazkideen kasuan.”

Bi. 11. artikuluko 1. idatz zatiko e) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“e) Arrisku kapitaleko entitateak eta inbertsio kolektiboko funts itxiak, azaroaren 12ko 22/2014 Legean araututakoak; horren bitartez arrisku kapitaleko entitateak, inbertsio kolektiboko beste-lako entitate itxiak eta inbertsio kolektiboko entitate itxien entitate kudeatzaileak arautu ziren, eta Inbertsio kolektiboko entitateen azaroaren 4ko 35/2003 Legea aldatu zen.”

Hiru. 11. artikuluko 1. idatz zatiko h), i) eta j) letrak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“h) Enpresa finantzaketa sustatzeko apirilaren 27ko 5/2015 Legean araututako titulizazio funtsak.

i) Urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartutako Balio Merkatuen Legearen testu bateginean araututako Inbertsioen Berme Funtsak.

j) Banku aktiboen funtsak; funts horiek Kreditu entitateak berregituratu eta desegiteari buruzko azaroaren 14ko 9/2012 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian aipatzen dira.”

Lau. 11. artikuluko 1. idatz zatiko k) letra hutsik geratzen da.

Bost. 12. artikuluko 2. idatz zatiko e) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“e) Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginean araututako gizarte segurantzarekin kolaboratzen duten mutualitateak.

Sei. 20. artikuluko 1. eta 2. idatz zatiak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“1. Higiezin ukiezinaren amortizaziorako hornidurak kengarriak izango dira, bizitza erabilgarriari dagokionez.

Modu fidagarrian neurtzea ezinezkoa denean, amortizazioa kengarria izango da zenbatekoaren hamarrena urteko gehienezko muga izanik.

Kengarri hori aplikatzeko beharrezkoa izango da erosten duen entitatea eta saltzen duena sozietate talde batekoak ez izatea, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotako irizpideei jarraituta, alde batera utzita egoitza eta urteko kontu bateratuak egiteko obligazioa. Bi entitateak talde berekoak badira, eskualdatzen duen entitateak ordaindutako ibilgetuaren eskuraketa prezioari dagokionez aplikatuko da kenkaria, lotuta ez dauden pertsoneri edo entitatei erosi dienean.

2. Aurreko atalean esandakoa gorabehera, merkataritza funtsaren amortizaziorako funtsak ez dira kengarriak izango; nolana ere, foru arau honetako 25. artikuluan ezarritakoa aplikatu ahalko da.

Zazpi. 23. artikuluko 2. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, aipatutako entitateen kapitaleko partaidetza ehuneko 5etik gorakoa bada (edo ehuneko 3tik gorakoa, partaidetutako sozietatearen akzioek bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen dutenean), kenkariaren zenbatekoa ezin da izan partaidetzak eskuraketa prezioaren eta partaidetutako entitatearen ondare garbiaren arteko kendura baino gehiago, partaidetzaren proportzioan eta balorazio egunean dauden isilbidezko gainbalioekin zuzenduta. Balio hori kalkulatzean, baldin eta enpresak aldi berean beste batean parte hartzen badu, kontuan hartu beharko da Merkataritzako Kodean eta hori garatzen duten arauetan ezarritako irizpideei jarraituta urteko kontu bateratuen arabera kalkulaturako ondare garbia.

Partaidetutako entitatearen ondare garbiaren balioa edo eskuraketa prezioa zehazterakoan, partaidetzaren proportzioan, balorazio datan existitzen diren isilbidezko gainbalioek zuzendutakoa, ez da aintzat hartuko foru arau honetako 24. artikuluko 1. idatz zatiak aipatutako desberdintasunaren zenbatekoa, horren eskubide eta ondasunei egoztea ezinezkoa bada.

Idatz zati honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko partaidetzaren balio-narriaduragatiko galerei, foru arau honetako 34. artikuluan xedatutakoa aplikatu zaion zenbatekoaren mugaraino, salbu eta aipatutako manuko 6. idatz zatian araututako kasuetan, partaidetzaren aurreko eskualdaketa batean, balio-narriaduragatiko galera hori partaidetza eskuratzen den unean dauden isilbidezko gainbalioen balio-galerarekin bat datorrenean.”

Zortzi. 24. artikuluko 5. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“5. Artikulu honetan jasotakoaren arabera kendu diren kopuruek zerga oinarria gehituko dute, partaidetzen eskualdaketa dela-eta, eta inoiz ezin izango dira foru arau honek 33. eta 34. artikuluan jasotara bildu.

Bederatzi. 25. artikulua aldatzen da; hona testu berria:

“25. artikulua. Merkataritza funtsaren zerga tratamendua

1. Zerga oinarria zehazteko merkataritza funtsei dagokien higiezin ukiezinaren jatorrizko eskuraketa prezioa kengarria izango da, zenbatekoaren ehuneko 12,50eko gehienezko urteko mugarekin, betiere entitate saltzaile eta eroslea sozietate talde batekoak ez badira, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, alde batera utzita egoitza eta urteko kontu bateratuak egiteko obligazioa. Bi entitateak talde batekoak badira, eskualdatzen duen entitateak merkataritzako funtsa erosteko ordaindu duen prezioari dagokionez aplikatuko da kenkaria, lotu gabeko pertsoneri edo entitateei erosi badie.

Aurreko paragrafoan ezarritako baldintza betetzen ez denean, merkataritza funtsaren balioaren narriaduragatik izandako galerak bakarrik izango dira kengarriak, horiek frogatu daitezkeenean.

2. Artikulu honetan aipatutako zenbatekoen kenkaria aplikatzeko (aurreko ataleko azken paragrafoan araututakoa izan ezik), ez da beharrezkoa izango galera eta irabazien kontuan haren kontabilitate egozketa egitea.

3. Artikulu honetako aurreko bi ataletan ezarritakoa dela bide zerga oinarria zehazteko zenbateko kengarriak zerga oinarria areagotuko dute merkataritza funtsa eskualdatu edo narriatzeagatik balioa zuzentzen bada.

4. Merkataritza funtsaren eskualdaketa sortutako errentak foru arau honetako 36. artikuluan xedatutakoaren babesean jartzen badira aparteko mozkinen berrinbertsioa dela eta, honako errenta honek bakarrik izango du zerga onura hori: eskualdaketa balioaren eta kontabilitateko balioaren arteko kendura, diruaren balio galeraren arabera zuzenketa egin eta gero.”

Hamar. 32. artikuluko 4. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“4. Foru arau honetako 13. artikuluko 1. idatz zatiak aipatutako mikroenpresek zerga oinarritik zerga oinarri positiboaren ehuneko 20ko pareko zenbatekoa kengarriztat jo ahalko dute, aldez aurretik atal honetan aurreikusitakoa aplikatuz, foru arau honetako 48. artikuluko edo foru arau honetako hogeita bigarren xedapen gehigarriak aipatutako eta errenta positiboak eta horien VI Tituluaren III. Kapituluaren aurreikusitakotik eratorriak aplikatu aurretik, eta foru arau honetako 55. artikuluan aurreikusitako zerga oinarri negatiboak konpentsatu aurretik, dimentsioa dela-eta berez dituen zailtasunen zerga konpentsazio gisa.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikagarria izango mikroenpresa Espainiako edo Europako interes ekonomikodun talde bat denean, edo enpresen aldi bateko batura denean, foru arau honetako VI. tituluko III. kapituluaren aurreikusitako erregimen berezian tributatzen duenean.

Idatz zati honetan xedatutakoa aplikatzea bateraezina izango da titulu honetako V. kapituluaren ezarritako zuzenketak egitearekin.”

Hamaika. 33. artikuluko 3. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“3. Nolanahi ere, honako kasu hauetan ez da aplikatuko artikuluko honen aurreko zenbakietan xedatutakoa:

a) Sozietateen gaineko Zergan edo horren berdina edo antzekoa den beste zergaren batean ehuneko 10etik beherako karga tasa izan duten entitateek banatutako errentak, inguruabar hauek gertatzen direnean izan ezik: partaidetutako entitateak egoitza duen herrialdeak Espainiako Erresumarekin hitzarmena edukitzea nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko, hitzarmen hori partaidetutako entitateari aplikagarria izatea, eta barruan edukitzea informazioa trukatzeko klausula.”

b) Foru arau honetako 14. artikuluan aipatutako ondare sozietateek banatutako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak, entitate banatzaileak izaera hori eduki duen ekitaldietan sortutako mozkinen kargura banatuak badira

c) Foru arau honetako 14. artikuluan aipatzen diren ondare sozietateek jasotako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak.”

Hamabi. 39. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren paragrafoa berriro idatzi da, eta honela geratu da:

“Atxikipenik egin ez bada edo behar baino zenbateko txikiagoa atxiki bada, soilik atxikitzaileari egotzi ahal zaion zioak direla medio, orduan hartzaileak atxiki behar zen zenbatekoa kenduko du kuotatik.”

Hamahiru. 40. artikuluko 2. idatz zatiko a) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“b) Kontraprestazioan jasotako balioak eta entitateei emandakoak, salbu eta artikuluko honetako 11. idatz zatian jasotakoa aplikagarria baldin bada.”

Hamalau. 40. artikuluko 3. idatz zatiko lehenengo paragrafoa aldatu da eta honela geratu da

“3. Aurreko idatz zatiko a), b), c) eta d) letretan aurreikusitako kasuetan, entitate eskualdatzaileak bere zerga oinarrian sartuko du eskualdatutako elementuen merkatuko balioaren eta kontabilitateko balioaren arteko diferentzia. Hala ere, kreditu konpentsazioagatik funts propioak edo kapitala areagotuz gero, entitate saltzaileak zerga oinarrian integratuko du funts propio edo kapitala areagotzeko zenbatekoaren eta kapitalizatutako kredituaren balio fiskalaren arteko desberdintasuna.”

Hamabost. 40. artikuluko 11. idatz zatia gehitzen zaio; hona testua:

“11. Kredituak konpentsatuz funts propio edo kapitalak handitzeko eragiketarik handitze horren zenbatekoaren arabera baloratuko dira fiskalki merkataritzaren ikuspuntutik, kontabilitateari dagokion balorazioa edozein dela.”



Hamasei. 42. artikuluko 3. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“3. Honakoak joko dira pertsona edo entitate lotutzat:

a) Entitate bat eta bertako bazkide edo partaideak

b) Entitate bat eta bertako kontseilari edo administrariak, salbu eta betebeharrak betetzeko ordainsariari dagokionez.

c) Entitate bat eta bertako bazkide, partaide, kontseilari edo administratzaileen ezkontideak edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteetako lagunak, edo haiekin hirugarren gradura arteko zuzeneko zein alboko ahaidetasuna (odolkidetasuna zein ezkon ahaidetasuna) duten pertsonak.

d) Talde bereko bi entitate

e) Entitate bat eta beste entitate bateko kontseilari edo administratzaileak, baldin eta bi entitateak talde berekoak badira

f) Bi entitate, baldin eta lehenengoak gutxienez ehuneko 25eko zeharkako partaidetza badauka bigarrenaren kapital sozialean edo haren funts propioetan

g) Bi entitate, baldin eta horietan bazkide edo partaide berek edo haien ezkontideek, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteetako lagunek edo zuzeneko zein alboko ahaidetasunez (odolkidetasuna zein ezkon ahaidetasuna, edo izatezko bikotea eratzean sortzen dena, hirugarren mailaraino) lotutako pertsonak gutxienez ehuneko 25eko partaidetza badaukate kapital sozialean edo funts propioetan, zuzenean nahiz zeharka.

h) Espainiako lurraldean egoitza duen entitate bat eta atzerrian dituen establezimendu iraunkorrak

i) Espainiako lurraldean egoitzarik ez duen entitate bat eta lurralde horretan dituen establezimendu iraunkorrak

j) Talde bereko bi entitate, talde horrek sozietate kooperatiboen taldeen araubidean tributatzen duenean

Lotura bazkide edo partaideek entitatearekin duten harremanaren arabera definitzen bada, partaidetza ehuneko 25ekoa edo gehiagokoa izan beharko da. Administratzaileei egindako aipamenak zuzenbidezkoak eta izatezkoak hartuko ditu barnean.

Taldea existitzen da entitate batek beste bat edo batzuk kontrolatzen duenean edo kontrolatu ditzakeenean Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan ezarritako irizpideei jarraikiz, alde batera utzita non duen egoitza eta urtero kontu bateratuak aurkeztu behar dituen ala ez.”

Hamazazpi. 42. artikuluko 4. idatz zatiari paragrafo bat gehitzen zaio, azkenurrekoa; hona testua:

“Aurreko metodoak aplikatzea ezinezkoa denean, lehia librearen printzipioa errespetatzen duten beste balorazio teknika eta metodo onartu batzuk erabili ahalko dira.”

Hemezortzi. 43. artikuluko 3. eta 4. idatz zatiak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“3. Taldeari buruzko agiriak honako hauek dira:

a) Taldearen antolamendu egituraren, egitura juridikoaren eta jarduteko egituraren deskripzio orokorra, baita bertako edozein aldaketa garrantzitsu ere.

b) Taldea osatzen duten eta eragiketa lotuak egiten dituzten entitateen identifikazioa, baldin eta zergadunak egindako eragiketei zuzenean edo zeharka eragiten badiete.

Era berean, aktibo garrantzitsuak berrantolatzeke, eskuratzeko edota lagatzeko eragiketei buruzko deskripzioa jaso beharra dago, eragiketok zergaldi barruan egin badira.

c) Taldeko entitateen arteko eragiketa lotuen izaeraren, zenbatekoen eta fluxuen deskripzio orokorra, baldin eta zergadunak egindako eragiketei zuzenean edo zeharka eragiten badiete.

Bereziki, taldearen jarduera nagusiak azaldu eta taldeak jarduten duen merkatu geografiko nagusiak zehaztuko dira, bai eta etekinen iturri nagusiak eta taldearen eragiketen bolumenaren ehuneko 10era gutxienez iristen diren ondasun eta zerbitzuen hornidura katea ere, baldin eta zergaldiaren barrukoak badira.

d) Taldeko entitateek betetzen dituzten eginkizunen eta entitateok euren gain hartzen dituzten arriskuen deskripzio orokorra, baldin eta zergadunak egindako eragiketei zuzenean edo zeharka eragiten badiete, aurreko zergaldiarekin konparatuta izandako aldaketak barne.

e) Patente, marka, izen komertzial eta gainerako aktibo ukiezinaren titularren zerrenda, baldin eta zergadunak egindako eragiketei zuzenean edo zeharka eragiten badiete, bai eta haiek erabiltzean izandako kontraprestazioen zenbatekoa ere.

Zentzu horretan, taldearen estrategia orokorraren deskripzio orokorra egingo da aktibo ukiezinaren garapenari, jabetzari eta ustiapenari dagokienez. Deskripzioaren barnean ikerketa eta garapen jarduerak aurrera eramaten diren instalazio nagusien kokapena sartuko da, bai eta haien helbidea ere; era berean, taldearen entitateen artean aktibo ukieziari buruz egindako akordioen zerrenda jasoko da, kostuak banatzeko akordioak, ikerketa zerbitzuen gaineko akordio nagusiak eta lizentzia akordioak barnean direla; eta, deskripzio orokor bat egingo da zergaldian aktibo ukiezinaren gainean izandako transferentzia garrantzitsu guztiei buruz, haren barnean entitateak, herrialdeak eta zenbatekoak jasoz betiere.

f) Taldeak hartutako prezioen ezarpenaren metodoa edo metodoak barne hartzen dituen transferentzia prezioen arloan, taldeko politikaren deskripzioa. Horrek lehia libreko printzipioaren egokitzapena justifikatu behar du.

g) Zerbitzuak emateko kontratuen eta kostuen banaketari buruz taldeko entitateen artean egindako akordioen zerrenda, baldin eta akordio horiek zergadunak egindako eragiketei zuzenean edo zeharka eragiten badiete.

h) Taldeko entitateei buruzko aurretiazko balorazio akordioen eta eginak diren edo egiten ari diren adiskidetasunezko prozeduren zerrenda eta deskripzio laburra, baldin eta zergadunak egindako eragiketei zuzenean edo zeharka eragiten badiete.

Halaber, agintaritza fiskalekiko erabakiak jaso beharko dira, baldin eta herrialdeen artean taldearen etekinen banaketari eragiten badiete.

i) Taldearen urteko finantza egoera finkatuak, baldin eta taldearentzat nahitaezkoak badira edo borondatez egiten badira.

Zergadunak taldeko beste edozein entitaterekin eragiteka lotuak egin dituen zergaldiari buruzkoak izango dira idatz zati honetan ezarritako dokumentazio betebeharrak, eta foru arau honetako 13. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan xedatutakoa betetzen ez duten taldeei eskatu ahal izango zaizkie, artikuluko bereko 7. idatz zatian ezarritakoa aintzat hartuta.

Zergaldi baterako prestatutako agiriek ondorengo beste batzuetan baliozkoak izaten jarraitzen badute, ez da beharrezkoa izango agiri berriak prestatzea, baina, behar izanez gero, egokitzapenak egingo dira.

4. Zergadunaren dokumentazio berariazkoan honakoak jaso beharko dira:

a) Zergadunaren eta horrekin batera eragiketa egiten duten pertsona edo entitateen izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izendapen osoa, zerga egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia, bai eta eragiketaren izaeraren deskripzio zehatza, ezaugarriak eta zenbatekoa ere.

Era berean, paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren pertsona edo entitateekin egindako eragiketak direnean, pertsona edo entitate horien izenean eragiketan esku hartu duten pertsonak identifikatu behar dira, eta, eragiketak entitateekin egiten badira, horien administratzaileen identifikazioa aurkeztu behar da.

b) Alderagarritasun azterketa, foru arau honetako 42. artikuluko 1. idatz zatian azaldutako moduan egina.

c) Hautatutako balorazioaren metodo aukeraketari buruzko azalpena aukeraketa hori justifikatu zuten arrazioen deskripzioa barne hartuz, baita aplikatzeko modua eta horren ondoriozko balioaren edo balio tartearen zehaztapena ere.

Halaber, lotutako eragiketen izaerari, ezaugarriei eta zenbatekoari buruzko deskripzio zehatza jaso beharra dago.

d) Hainbat pertsona edo entitate loturi elkarrekin emandako zerbitzuengatikoko gastuak banatzeko irizpideak, eta dagozkien akordioak, halakorik bada, eta kostuak banatzeko akordioak, foru arau honetako 44. artikuluan aipatzen direnak.

e) Zergadunak bere eragiketa lotuen balorazioa zehazteko erabilitako beste edozein informazio garrantzitsu, eta beste bazkide batzuekin sinatutako itun parasozialak.

Horrenbestez, zuzendaritza egiturari, organigramari eta zergadunaren jardueren bilakaerari buruzko txostenen jasotzaile diren pertsona edo entitateei buruzko informazioa ere sartu behar da, eta adierazi behar da pertsona edo entitate horiek zer lurralde edo herrialdetan duten egoitza fiskala; orobat deskribatu behar dira zergadunaren jarduerak, haren negozio estrategia eta, halakorik badago, zergaldian zehar berregituratze eragiketetan edo aktibo ez materialak laga edo eskualdatzeko eragiketetan izandako partaidetza.

Aurrekoek gainera, hauek ere jaso behar dira: zergadunaren urteko finantzako egoera orriak; transferentzia prezioen metodoak aplikatzeko erabilitako datuen eta urteko finantzako egoera orrien arteko berdinkatzea, hala egin behar bada eta esanguratsua bada; eta erabilitako aldegarrien datu finantzarioak eta haien iturria.

Azkenik, merkatu balioa zehazteko foru arau honetako 42. artikuluko 4. zenbakiko a) eta e) letren artean aipatutako metodoak barik oro har onartutako beste balorazio metodo eta teknika batzuk erabiltzen badira —esaterako, etorkizuneko diru fluxu zenbatetsien deskontu metodoak—, zehatz-mehatz deskribatu behar da zer metodo edo teknika aukeratzan den eta zergatik aukeratzan den.

Hain zuzen ere, deskribatu behar da metodo eta teknika horiek zer magnitude, portzentaje, ratio, interes tasa, eguneratze tasa eta beste aldagaitan oinarritzen diren, eta justifikatu behar da ea arrazoizkoak eta koherenteak diren datu historikoei, negozio planei edo balioa zuzen zehazteko funtsezkotzat jotzen den beste edozein elementuri buruz onartutako hipotesiak, bai eta lehia askearen printzipioari egokitzen zaizkion ere.

Maximizatu egin behar da merkatuko datu behagarrien erabilera —datuok egiaztatuz betiere—, eta ahal den gutxien erabili behar dira kontsiderazio subjektiboak eta behagarriak eta kontrastagarriak ez diren datuak.

Zerga Administrazioaren eskura mantendu behar den dokumentazioak hauek hartuko ditu: balioespen metodoa zuzen aplikatu dela eta balioespenaren ondorioz lortutako merkatu balioa zuzena dela egiaztatzeko beharrezkoak diren txostenak, dokumentuak eta euskarri informatikoak.

Zergadunak eragiketa lotua egin duen zergaldiari buruzkoak izango dira idatz zati honetan ezarritako dokumentazio betebeharrak.

Zergaldi baterako prestatutako agiriek ondorengo beste batzuetan baliozkoak izaten jarraitzen badute, ez da beharrezkoa izango agiri berriak prestatzea, baina, behar izanez gero, egokitzapenak egingo dira.

Idatz zati honetan ezarritako dokumentazio betebeharrak beren osoan eskatu ahal izango dira, salbu eta eragiketan esku hartzen duen alderdiren bat foru arau honetako 13. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan aipatzen diren entitateetako bat denean edo pertsona fisikoa denean, eta zerga paradisutzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan egoitza duten pertsona edo entitateekin egindako eragiketak ez direnean; kasu horretan, zergadunaren berariazko dokumentazio betebeharrak erraztuak ezarri ahal izango dira arau bidez.”

Hemeretzi. 45. artikuluko 2. idatz zatiari paragrafo bat gehitzen zaio, azkenaurrekoa; hona testua:

“Zerbaki honetan ezarritakoa ez da aplikatuko ondare itzulketa egiten bada pertsona edo entitate lotuen artean, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan. Itzulketa dela-eta ez da errentarik sortuko alderdientzat.”

Hogei. 46. artikuluko 2. idatz zatiko a) letra aldatzen da; hon testu berria:

“a) Zerga Administrazioak balorazioa zuzentzea egokia ez denean Sozietateen gaineko Zergaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapeko eragiketei dagokionez, diruzko isun finkoa jarriko da: isilean gordeta, zehaztu gabe edo faltsututa dagoen datu bakoitzeko 1.500 euro eta, berriz, 15.000 euro datu multzo bakoitzeko, betiere zergaduna den aldetik foru arau honetako 43. artikuluan taldearentzat edo entitate bakoitzarentzat ezartzen den dokumentazio betebeharrak bakoitzari dagokionez.

Aurreko paragrafoan ezarritako zigorraren gehieneko muga zenbateko bi hauetako txikiena izango da:

- Zergaldian egin diren zerga honen, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapeko eragiketen baterako zenbatekoaren ehuneko 10.

- Entitatearen eragiketa bolumenaren ehuneko 1.

Letra honetan ezarritakoaren ondorioetarako, datu multzo banatzen hartuko dira, taldeari buruzko dokumentazioari dagokionez, foru arau honetako 43. artikuluko 3. idatz zatiko a), c), d), f) eta i) letretan jasotako informazioak. Ondorio horietarako, datutzat joko da idatz zati horretako b) eta e) letretan aipatzen diren pertsona, entitate edo zenbatekoei buruzko informazioa. Datutzat hartuko da, halaber, idatz zati bereko g) eta h) letretan jasota dauden hauetako bakoitza: kostuak banatzeko akordioak, zerbitzuak emateko kontratuak, aurretiazko balorazio akordioak eta adiskidetasuneko prozedurak.

Bestalde, zergadunaren dokumentazio berariazkoa dela eta, eragiketa bakoitzari edo eragiketa multzo bakoitzari dagokionez, horiek elkarrekin lotura estua badute edo zergapekoak etenik gabe egin baditu, foru arau honetako 43. artikuluko 4. idatz zatiko b), c), d) eta e) letretan aipatzen diren informazioak datu multzo banatzen hartuko dira. Ondorio horietarako, datutzat joko da aurreko idatz zati horretako a) letrak aipatzen duen pertsona edo entitate bakoitzari buruzko informazioa.

Baldin eta arau bidez, foru arau honetako 43. artikuluko 4. idatz zatiko azken paragrafoan ezarritakoaren babesean, dokumentazio betebeharrak erraztuak ezartzen badira idatz zati horretan aipatutako zergadunentzat, arau bidezko garapenean zehaztu egingo da eskatzen diren informazioetatik zeintzuek osatzen duten aparteko datu multzoak, letra honetan xedatutakoa aplikatzeari dagokionez.”

Hogeita bat. 48. artikuluko 2, 3 eta 4. idatz zatiak aldatzen dira. Hona nola geratzen diren idatzita:

“2. Egoitza Espainiako lurraldean ez duen entitate batek lortutako errenta positibo osoa zergadunei egotziko zaie, baldin eta entitate horrek ez badu errenta hori gauzatzeko baliabide materialen eta giza baliabideen antolaketa egokirik, nahiz eta eragiketa errepikariak izan. Nolanahi ere, dibidenduen, mozkinetako partaidetzen edo entitateen partaidetzak eskualdatuta lortzen diren errenten kasuan, artikuluko honen 3. idatz zatian ezarritakoa beteko da beti.

Errenta osoa izango da, hain zuzen, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan zein zerga horri buruzko gainerako xedapenetan zerga oinarria zehazteko ezartzen diren irizpideak eta printzipioak aplikatuz ateratzen den zerga oinarriaren zenbatekoa.

Aurreko paragrafo bietan ezarritakoa ez da aplikatuko baldin eta zergadunak egiaztatzen badu eragiketa horiek Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera talde berekoa den eta egoitza Espainiako lurraldean ez duen entitate baten baliabide material eta giza baliabideekin egiten direla, entitateon egoitzaren lurraldea eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra kontuan hartu gabe, edo egiaztatzen badu arrazoi ekonomiko baliadunak daudela entitatea eratzeko eta haren jardunerako.

Zenbaki honen lehenengo bi paragrafoetan ezarritakoa aplikatzen ez bada, dela haietan ezarritako inguruabarrak betetzen ez direlako dela aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatu delako, bakarrik egotziko da honako iturri hauetako bakoitzetik datorren errenta positiboa:

a) Landa ondasun edo hiri ondasun higiezinaren titulartasuna edo haien gaineko eskubide errealea, ondoko kasuetan izan ezik: jarduera ekonomiko bati atxikita badaude, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, edo titularrarekin batera sozietate talde berean dauden entitate ez-egoiliarrei (Merkataritzako Kodeko 42. artikulua) erabiltzeko lagata badaude.

b) Edozein entitate motaren funts propioetan partaidetza izatea eta funts propioak hirugarrenei lagatzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritako eran.

Ez da letra honetan sartuko honako finantza aktibo hauetatik eratorritako errenta positiboa:

a') Zergadunak jarduera ekonomikoetan aritzeak berekin dakartzan legezko eta arauzko betebeharrak betetzeko daukan finantza aktiboak.

b') Jarduera ekonomikoak burutzeko finkatutako kontratu harremanetatik sorturiko kreditu eskubideak dituztenak.

c') Baloreen merkatu ofizialetan bitartekaritzako jardueren ondorioz edukitakoak.

d') Kreditu entitateek eta aseguru etxeek beren jardueren ondorioz edukitakoak, c) letran jasotakoa eragotzi gabe.

Kapital propioak hirugarrenei lagatzen eratorritako errenta positiboa hurrengo c) letran aipatuko diren kreditu eta finantza jarduerak burutzetik datorrela ulertuko da, baldin eta lagatzailea eta lagapen hartzailea sozietate talde batekoak badira, Merkataritzako Kodeko 42. artikulua zehaztutakoaren arabera, eta lagapen hartzailearen diru sarreren ehuneko 85 gutxienez ekonomia jarduerak egitetik badator.

c) Kreditu, finantza, aseguru eta zerbitzu jarduerak, salbu esportazio jarduerekin zuzenean lotuta daudenak, baldin eta zuzenean edo zeharka Espainian egoitza duten eta foru arau honetako 42. artikuluko 3. idatz zatiaren zentzuan lotuta dauden pertsona edo entitateekin batera burutu badira, entitate egoiliar horientzat gastu kengarriak sortzen dituztenean.

Ez da errenta positiboa sartuko baldin eta entitate ez-egoiliarraren kreditu, finantza, aseguru edo zerbitzu jardueretatik eratorritako diru sarreren ehuneko 50 baino gehiago, esportazioarekin zuzenean lotutakoak izan ezik, foru arau honetako 42. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoaren zentzuan lotuta ez dauden pertsona edo entitateekin batera burututako eragiketetatik badator.

d) Kapitalizazio eta aseguru eragiketak, haien onuraduna entitatea bera bada.

e) Jabetza intelektuala eta industrial, laguntza tekniko, ondasun higigarriak, irudi eskubideak eta negozio edo meategien errentamendu edo azpierrementamendua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 37. artikuluan ezarritako baldintzetan.

f) Finantza tresna deribatutakoak, salbu eta jarduera ekonomikoak egitetik datorren eta berariaz identifikatuta dagoen arrisku bat estaltzeko izendatutakoak.

g) Aurreko a), b), d) eta e) letretan aipatutako ondasun eta eskubideak eskualdatzea, errentak sortzen direnean.

3. Artikulu honetako aurreko idatz zatiko a), b) eta d) letretan ezarritako errentak, egoiliar ez den entitateak lortutakoak, ez dira sartuko zerga oinarrian kasu honetan: entitateak zuzenean edo zeharka ehuneko 5etik gorako partaidetza daukan entitate batetik badatoz (edo ehuneko 3tik gorakoa, partaidetutako sozietatearen akzioek antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen badute), ondoko beharkizunak betez gero.

a) Entitate ez egoiliarrak partaidetzak zuzendu eta kudeatzea, bitarteko materialak eta giza baliabideak antolatuz.

b) Errentak sortzen dituzten entitateen sarrerren ehuneko 85 gutxienez jarduera ekonomi-koetan lortzea.

Horretarako, enpresa jardueretan lortutzat joko dira artikulu honetako aurreko idatz zatiko b) eta g) letretan aipatutako errentak, baldin eta b) letra honetan ezarritako betekizuna betetzen duten entitateetatik badatoz, hain zuzen ere egoiliar ez den entitateak zuzenean edo zeharka ehuneko 5etik gorako partaidetza daukan entitateetatik (edo ehuneko 3tik gorakoa, partaidetutako sozietatearen akzioek antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen badute).

Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera talde berekoak diren entitateen kasuan, entitateen egoitzaren lurraldea eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra kontuan hartu gabe, partaidetza portzentajeari buruzko betekizunak zein partaidetza eta kudeaketa egoteko betekizuna betetzen diren zehazteko, taldearen parte diren entitate guztiak hartuko dira kontuan.

4. Artikulu honetako 2. zenbakian adierazitako errentak egotzi gabe geratuko dira beren zenbatekoen batura txikiagoa bada entitate ez-egoiliarrak lortutako errenta osoaren ehuneko 15 baino, zenbaki horretako c) letrako errenten kasuan izan ezik, halako errentak osorik egotziko baitira.

Merkataritzako Kodearen 42. artikuluko araberako sozietate talde batean Espainiako lurraldean egoiliarrak ez diren entitateen multzoak lortutako errentari edo diru sarrereri buruzkoak izan daitezke aurreko paragrafoan ezarritako mugak.

Inola ere ezingo da sartu entitate ez-egoiliarraren errenta osoa baino handiagoa den zenbatekorik."

Hogeita bi. 51. artikuluko 1. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

"1. Zergadunek zerga oinarritik kendu ahal izango dute zerga ondorioetarako euren ondare garbian aurreko ekitaldiko batez bestekoaren aldean gertatutako gehikuntzaren ehuneko 10. Kenkaria aplikatuz gero, gehikuntzaren besteko zenbatekoa erreserba batean sartu behar dute eta ezin dute erreserba hori baliatu gutxienez bost urte pasatu arte kenkaria aplikatzen den zergaldia amaitzen denetik, kapitalean sartutako gehikuntzaren zatia izan ezik.

Bost urteko epe horretan, entitatearen zerga ondorioetarako ondare garbiaren zenbatekoak lehengoan jarraitu edo gora egin beharko du, salbu eta kontabilitateko galeren ondorioz jaitsiera gertatzen denean.

Entitate berrien kasuan, lehenengo ekitaldian, aurreko ekitaldiko zerga ondorioetarako ondare garbitzat hau hartuko da: entitatea eratu zenetik igaro den denboran zerga ondorioetarako ondare garbiak izandako batez besteko zenbatekoa.

Lege edo estatutuetan hala aginduta, erreserbetarako zuzkidura nahitaez egiten denean, horrek zerga ondorioetarako ondare garbian eragiten duen gehikuntzari ezingo zaio aplikatu artikulu honetan xedatutakoa."

Hogeita hiru. 54. artikuluari 10. idatz zatia gehitzen zaio; hona testua:

“10. Konkurtso Legea aplikatzearen ondoriozko kita eta itxaronaldien kontabilitateko erregistroari dagokion sarrera zordunaren zerga oinarrian egotziko da, zor beraren ondoriozko finantza gastuak ondoren erregistratzeko beharra egon ahala eta sarrera horren mugaraino betiere.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aipatzen den sarreraren zenbatekoa handiagoa bada zor beraren ondorioz erregistratzeko dauden finantza gastuen zenbateko osoa baino, sarrera hori modu proportzionalen egotziko da zerga oinarrian, kontuan hartuta zergaldi bakoitzean erregistratutako finantza gastuak zenbat diren zor beraren ondorioz erregistratzeko dauden finantza gastu osoei dagokienez.”

Hogeita lau. 73. artikuluko 1. idatz zatiko a) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“b) Espainiako lurraldean egoitza duten bazkideei egotziko zaizkie:

a') Entitate horiek lortutako zerga oinarri positibo zein negatiboak. Zerga oinarri negatiboak izan zituen entitateak ezin izango ditu bazkideei egotzitako zerga oinarri negatibo horiek konpentsatu

b') Entitateak eskubidez kuotan jaso ditzakeen kenkariak. Kenkarien oinarriak bazkideen likidazioan sartuko dira, eta kuota gutxituko dute, zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauari jarraituz

c') Entitateari dagozkion atxikipenak eta konturako sarrerak.

Edozein kasutan ere, kontabilitate irizpideen arabera bazkideek ekonomia intereseko taldeei egindako ekarpenak ezaugarri bereziak dituzten ondare tresna kalifikatu behar direnean, ordea, zerga oinarri negatiboen eta kuotaren kenkarien egozpena kalkulatzeko, kuotari dagokionez, bazkideak taldearen kapitalari ordaindutako ekarpenen zenbatekoa bider bat egingo da eta ezingo da zenbateko hori gainditu. Soberakina ezingo zaie inola ere egotzi bazkideei.”

Hogeita bost. 73. artikuluko 3. idatz zatia parafrasa bat gehitzen zaio, azkenaurrekoa; hona testua:

“Era berean, eskuraketa balioa bazkideei egotzi zaizkion galera sozialen zenbatekoan gutxituko da. Kontabilitate irizpideek hala ezartzen dutenean, ordea, eskuraketa balioa bazkideei eskuraketaren eta eskualdaketa arteko tartean bazkideei egotzitako zerga oinarri negatiboen eta kenkarien zenbatekoan gutxituko da, balio hori deuseztatu arte, eta zerga oinarrian dagokion finantza sarrera ere sartuko da.”

Hogeita sei. 77. artikuluko 1. idatz zatiko lehenengo paragrafoa aldatu da eta honela geratu da

“1. Arrisku kapitaleko entitateek, zeinak 2014ko azaroaren 12ko 22/2014 Legean arautzen diren (lege horrek arrisku kapitaleko entitateak, inbertsio kolektiboko bestelako entitate itxiak eta inbertsio kolektiboko entitate itxien entitate kudeatzaileak arautzen ditu, eta azaroaren 4ko 35/2003 Legea —Inbertsio kolektiboko entitateena— aldatzen du), foru arau honetako 34. artikuluko 1. zenbakian ezarritako araubidea aplikatu ahal izango diete lege horretako 2. artikuluan aipatzen diren enpresen kapitaleko edo funts propioetako partaidetza ordezkatzeko duten baloreak eskualdatuz lortzen dituzten errentei, edozein izanda ere partaidetzaren ehuneko edo antzintasuna, betiere hamabost urte baino gutxiago igaro badira partaidetza eskuratu zenetik.”

Hogeita zazpi. 78. artikuluko 2. idatz zatiko b) letraren lehenengo paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

“b) Azaroaren 4ko 35/2003 Legean, talde inbertsioko entitateei buruzkoan, araututako higiezinetakoa inbertsio sozietateek eta higiezinetakoa inbertsio funtsek, hurrengo c) letran ageri ez direnek, baldin eta beharrezko akziodunen edo partaideen kopurua lege horretako 5. eta 9. artikuluetako laugarren idatz zatietan ezarritakoa bada, gutxienez, eta, talde inbertsioko entitate ez-finantzarioak izanik, sozietatearen xede bakarra hiri lurreko era guztietako higiezinetan inbertitzea bada, gero errentan emateko.”

Hogeita zortzi. d) letra aldatzen da eta e) letra gehitzen zaio 102. artikuluko 1. idatz zatiari, eta honela geratu da idatzita:

“d) Egoitza Espainian izan ez baina Espainiako lurraldean egoitza duten entitateetan partaidetzak dituzten entitateek euren herrialde edo lurralde bereko entitate egoiliarren alde edo Europar Batasuneko estatu kideen lurraldeko entitate egoiliarren alde egindako eskualdaketen ondorioz agerian jartzen direnak, baldin eta azken kasu horretan entitate eskualdatzaileak nahiz eskuratzailak Kontseiluaren 2009ko urriaren 19ko 2009/133/EE Zuzentarauko I. eranskineko A zatian zehaztutako formetako bat badute, Zuzentarauko I. eranskineko B zatian aipatzen diren tributuetako baten kargapean badaude eta ez badaude salbuetsita (zuzentarau horretan zerga araubide bateratua ezarri zen Batasuneko estatu ezberdinetako sozietateen arteko bat egite, zatiketa, zatiketa partzial, aktibo ekarpen eta akzio trukeetarako eta Europako sozietate batek edo Europako kooperatiba sozietate batek sozietatearen egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzen duenerako).”

e) Europar Batasuneko estatu kideen lurraldean kokatutako establezimendu iraunkor-  
rrak dituzten eta egoitza Espainian duten entitateek egoitza estatu horietan duten entitateei eskualdatzean agerian jartzen diren errentak, baldin eta eskualdaketa horiek Kontseiluaren 2009ko urriaren 19ko 2009/133/EE Zuzentarauko I. eranskineko A zatian zehaztutako formetako bat badute, Zuzentarauko I. eranskineko B zatian aipatzen diren tributuetako baten kargapean badaude eta ez badaude salbuetsita (zuzentarau horretan zerga araubide bateratua ezarri zen Batasuneko estatu ezberdinetako sozietateen arteko bat egite, zatiketa, zatiketa partzial, aktibo ekarpen eta akzio trukeetarako eta Europako sozietate batek edo Europako kooperatiba sozietate batek sozietatearen egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzen duenerako).”

Hogeita bederatzia. 128. artikuluko 1. idatz zatiko f) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“f) Finantza merkataritzako funtseko zenbatekoen zerga oinarriaren murrizketa (25. artikulua).”

Hogeita hamar. 130. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

“Halaber, Espainian zerbitzuak libre emateko araubidean diharduten Europako esparru ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratutako aseguru entitateak behartuta daude atxikipena eta konturako sarrera egitera, Espainian egiten diren eragiketei dagokienez.”

Hogeita hamaika. Hamabosgarren xedapen gehigarria aldatzen da eta honela geratzen da:

“Hamabosgarrena. Kultura sustatzeko pizgarriak.

1. Espainiako film luzeetan edo fikziozko, animaziozko edo dokumental itxurako ikus-entzunezko serietan egiten diren inbertsioek, saldokako ekoizpen industrialaren aurretik euskarri fisikoa egitea ahalbidetzen badute, ehuneko 30eko kenkaria aplikatzeko eskubidea emango diote ekoizleari. Kenkaria ehuneko 40a izango da ekoizpena euskaraz egiten bada. Kenkariaren oinarrian ondoko kopuruak sartu behar dira: ekoizpenaren kostua, kopiak egiteko gastuak eta publizitateak eta promozioak eragiten dituzten gastuak, muga honekin: ekoizpen kostuaren ehuneko 40.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena aplikatzeko ezinbestekoa izango da kenkariaren oinarriaren ehuneko 50, gutxienez, Araban egindako gastuak izatea.

Kenkari honen zenbatekoa ezin da izan hiru milioi eurotik gorakoa egindako ekoizpen bakoitzeko.

Ekoizpena hainbaten artean eginez gero, idatz zati honetan aipatzen diren zenbatekoak ekoizle bakoitzeko kalkulatu behar dira, bakoitzak ekoizpenean daukan partaidetza ehunekoaren arabera.



Idatz zati honetan aipatzen den kenkaria ekoizpena amaitzen den zergalditik aurrera aplikatuko da. Hala ere, ekoizpenak hamabi hilabete baino gehiago irauten bada eta entitatearen zergaldi bat baino gehiago ukitzen bada, entitateak kenkaria ordainketak egin ahala aplikatzea hautatu ahal izango du, ordainketen zenbatekoaren arabera, aplikazioa hasten denean indarrean dagoen kenkari araubideari lotuta.

Hori hautatuz gero, irizpidea ekoizpenaldi osoan izango da aginduzko. hautapen honetaz baliatu nahi duen zergadunak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari jakinarazi behar dio idatziz ekoizpena hasten denetik hilabete pasatu baino lehen. Jakinarazpenean ekoizpenaren zenbatekoa eta burutzapenaren egutegia azaldu behar dira.

Kenkaria ordainketak egin ahala aplikatzea hautatzen bada, aurreko bi paragrafoetan ezartzen den bezala, eta azkenean ekoizpena burutzen ez bada, entitateak aplikatutako kenkariak direla eta ordaindu ez dituen kuotak ordaindu beharko ditu, berandutze interesak gehituta; kuoten eta interesen zenbatekoa ekoizpena amaitu gabe uzten den zergaldiko autolikidazioko kuotari gehitu beharko zaio.

Xedapen gehigarri honetako 5. idatz zatian xedatzen dena gorabehera, kenkariaren oinarritik kenkari eskubidea sortzen duten inbertsioak finantzatzeko jasotzen diren dirulaguntzen zenbatekoa kenduko da.

2. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Enpresa Zinematografikoen Erregistroan edo Eusko Jaurlaritzak sortzen duen erregistroan inskribatutako ekoizle batek atzerriko film luzea edo ikus-entzunezko lana ekoizten bada eta hori saldokako ekoizpen industrialari ekin aurretik euskarri fisikoan ezarri ahal bada, Arabako lurraldean egindako gastuen ehuneko 15 kendu ahal izango du, baldin eta gastuen zenbatekoa milioi bat eurotik gorakoa bada, gutxienez.

Kenkariaren oinarrian Arabako lurraldean ekoizpenaren inguruan egiten diren gastu hauek sartuko dira:

1. Sortzaileen gastuak, baldin eta zerga egoitza Espainian edo Europar Batasuneko estatu batean badago; muga: 50.000 euro pertsonako.

2. Industria teknikoek eta beste hornitzaile batzuek eragiten dituzten gastuak.

Kenkari honen zenbatekoa ezin da izan bi milioi eta erdi eurotik gorakoa egindako ekoizpen bakoitzeko.

3. Artikulu honetan arautzen diren kenkarien zenbatekoa eta zergadunak film luze edo ikus-entzunezko lan bakoitzeko jasotako gainerako laguntzen batura ezin da izan horren ekoizpen kostuaren ehuneko 50 baino gehiago, kasu honetan izan ezik: ekoizpena mugaz gaindikoa bada, Europar Batasuneko estatu batek baino gehiagok finantzatzen badute eta ekoizleak Europar Batasuneko hainbat estatutakoak badira; honelakoetan lehen aipatutako batura ezin da izan ekoizpen kostuaren ehuneko 60 baino gehiago.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena ez zaie aplikatuko ikus-entzunezko lan zailei, ez eta Ekonomia Lankidetzako eta Garapenerako Erakundearen Garapenerako Laguntza Batzordearen zerrendako herrialdeek parte hartzen duten koproduzioei ere.

Artikulu honetan ezartzen dena aplikatzeko ezinbestekoa izango da bateragarria izatea Batasunaren ordenamenduarekin.

4. Liburuen argitalpenean egiten diren inbertsioek saldokako ekoizpen industrialaren aurretik euskarri fisikoa egitea ahalbideratzen badute, kuota likidoaren ehuneko 5eko kenkaria aplikatu ahal izango da.

5. Xedapen gehigarri honetan ezartzen diren kenkariei foru arau honetako 67. artikuluan ezartzen diren arauak aplikatuko zaizkie."

6. Xedapen gehigarri honetako 1. atalaren bigarren paragrafoan eta 2. atalaren lehen eta bigarren paragrafoan jasotzen diren Arabari egindako erreferentziak Bizkaia eta Gipuzkoari ere egiten zaiela ulertuko da, betiere lurralde horietako foru arau aplikagarrietan atal honetan jasotako elkarreragina jasorik bada.

Hogeita hamabi. Hogeita bigarren xedapen gehigarria gehitu da eta honela geratu da:

“Hogeita bigarrena. Sozietateen gaineko Zergaren kargapeko sozietate zibilak.

Bat. Sozietateen egoitza fiskaleko araudia dela-eta Sozietateen gaineko Zergaren zergadun diren sozietate zibiletako bazkideek ez dute beren zerga oinarrian sartuko foru arau honetako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera egotzi beharko litzaizkiekeen errenten parte proportzionala

Bi. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, sozietate zibil horietako bazkideek beren zerga oinarriaren barruan sartu beharko dute sozietate zibilak lortutako errenta positiboa, bakoitzari dagokion proportzioan, eta erregela hauek aplikatuko zaizkie:

a) Errenta positibo hori zerga oinarrian sartuko dute, hain zuzen, sozietate zibilak bere ekitaldi soziala amaitzen duen egunaren ostean amaitzen den zergaldian

b) Foru arau honetan nahiz zerga honi buruzko gainerako xedapenetan zerga oinarria zehazteko finkatu diren printzipio eta irizpideen arabera kalkulatu da zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa.

Errenta osotzat joko da, hain zuzen, irizpide eta printzipio horiek aplikatuz ateratzen den zerga oinarriaren zenbatekoa.

c) Xedapen gehigarri honetan jasotakoa aplikagarria zaien zergadunek, zerga honen autolikidazioarekin batera, sozietate zibilar buruzko datu hauek aurkeztu behar dituzte:

i) Sozietatearen izen edo izendazioa, eta sozietatearen egoitzaren lekua.

ii) Administrazioaren zerrenda.

iii) Balantzea eta galera irabazien kontua.

iv) Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa

d) Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboa dela eta ordaindutako zergen frogagiriak Xedapen gehigarri honetan ezarritakoa aplikagarria zaien zergadunek zerga honen kuota osotik kendu ahal izango dituzte zergaren antzeko edo pareko zerga edo kargengatik ordaindutako zenbatekoak, zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion partean.

Benetan ordaindutat joko dira egoiliar ez den entitateak eta hark partaidetza daukan entitateek ordaindutakoak, baldin partaidetza ehunekoa foru arau honetako 33. artikuluko 1. idatz zatiaren a) letran aipatutakora heltzen bada.

Letra honetan aipatutako kenkariak ezin du gainditu zerga oinarrian sartutako errenta dela-eta zerga honetan ordaindu beharreko kuota osoa, eta atzerrian ordaindutako zergak kenduz gero, kenkariaren zenbatekoa ezin da izan errenta Arabako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren arautegiaren menpean dagoen entitate batek ordainduz gero errenta hori dela-eta ordaindu beharreko kuota osoa baino gehiago.

Hiru. Ez dira zerga oinarrian sartuko sozietate zibiletatik jasotako dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, ez eta sozietate horietako partaidetza eskualdatuz lortutako errentak ere, baldin eta errenta horiek zerga honen zerga oinarrian integratu badira xedapen gehigarri honetan ezarritakoa aplikatuz.

Tratamendu bera aplikatuko zaie konturako dibidenduei.

Errenta positibo bera behin bakarrik sar daiteke, edozein modutan eta edozein entitatek sortua delarik ere.

Hogeita hamahiru. Hogeita hirugarren xedapen gehigarria gehitu da eta honela berridatzi da:

“Hogeita hirugarrena. Beste araudi baten pean dauden interes ekonomikodun elkartzetako bazkideak.

Foru arau honetako 2. artikuluko 4. zenbakian ezarritakoaren arabera interes ekonomikodun elkartzek ez badaude Arabako Lurralde Historikoko foru araudiaren pean baina elkartzeko horietako bazkideei, aldiz, Arabako Lurralde Historikoko foru araudia aplikatu behar bazaie zerga honetan edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, bazkideei ere aplikatuko zaie foru arau honetako 73. artikuluko 1. zenbakiko b) letraren azken paragrafoan ezarritakoa.”

### III. KAPITULUA

#### KOOPERATIBEN ZERGA ARAUBIDEA

##### **5. artikulua. Kooperatiben zerga araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauaren aldaketa**

2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ondorioak izateko, honako aldaketak egin dira ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauan, kooperatiben zerga araubideari buruzkoan:

Bat. 26. artikuluari 3. idatz zatiaren amaierari beste paragrafo bat gehitu zaio; hona testua:

“Zenbaki honetan aipatzen den amortizatzeko askatasuna autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta artikuluko horretako 1. zenbakiko c) letran araututako tratamendu bera jasoko du.”

Bi. Laugarren paragrafoa gehitzen zaio 26. artikuluko 2. zenbakiari, eta honela geratu da idatzita:

“Zenbaki honetan aipatzen den kenkaria autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta ezin da aldatu borondatezko aitorten epea amaituta bada.”

### IV. KAPITULUA

#### IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ENTITATEAK ETA MEZENASGORAKO ZERGA PIZGARRIAK

##### **6. artikulua. Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Araua, irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzkoa, aldatzea**

Hainbat aldaketa egin dira uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauan, irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzkoan, (2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. Bigarren paragrafo bat gehitu zaio 22. artikuluari. Hona testua:

“Artikulu honetan zerga oinarria zehazteko aipatzen den kontabilitate emaitzaren zuzenketa autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta ezin da aldatu borondatezko aitorten epea amaituta badago.”

Bi. 26. artikuluko 2. idatz zatiari bigarren paragrafo bat gehitzen zaio; hona testua:

“Zenbaki honetan zerga oinarria zehazteko aipatzen den kontabilitate emaitzaren zuzenketa autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta ezin da aldatu borondatezko aitorten epea amaituta badago.”

Hiru. 27. artikuluko 1. idatz zatiari bigarren paragrafo bat gehitzen zaio; hona testua:

“Zenbaki honetan zerga oinarria zehazteko aipatzen den kontabilitate emaitzaren zuzenketa autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta ezin da aldatu borondatezko aitorten epea amaituta badago.”

Lau. 28. artikuluko egungo 5. zenbakia 6. zenbakia izango da aurrerantzean, eta beste 5. zenbaki bat gehitu zaio artikuluko horri. Hona testua:

“5. “Artikulu honetan zerga oinarria zehazteko aipatzen den kontabilitate emaitzaren zuzenketa autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta ezin da aldatu borondatezko aitortpen epea amaituta badago.”

Bost. 29. artikuluko 1. idatz zatiko b) letra aldatzen da; hona testu berria:

“b) Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek edo establezimendu iraunkorren bitartez diharduten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek lehentasuneko zat jotako jardueretara bideratutako kopuruaren ehuneko 18 ken dezakete kuota likidotik, baita publizitate babeseko kontratuak direla bide emandako kopuruak direnean ere.

Letra honetan ezarritako kenkariari Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 67. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko zaizkio, arau horren 1. zenbakian ezarritako baterako muga gainditu gabe eta autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat dela kontuan hartuz, betiere Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako eta borondatezko aitortpen epea aldatu gabe amaituta badago.

Sei. 30. artikuluko 3. idatz zatiko 1. zenbakiaren azken paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

“Letra honetan ezarritako kenkariari Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 67. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko zaizkio, arau horren 1. zenbakian ezarritako baterako muga gainditu gabe eta autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat dela kontuan hartuz, betiere Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako eta borondatezko aitortpen epea aldatu gabe amaituta badago.

Kenkari hori ezingo da ondasun edo gastu bereberiei begira bateratu Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arau horrek ezarritakoekin.”

## V. KAPITULUA

### OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGA

#### **7. artikulua. Maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Araua, oinordekotza eta dohaintzen gaineko zergarena, aldatzea**

Maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauan, oinordekotza eta dohaintzen gaineko zergari buruzkoan, artikuluko hauek aldatu dira:

Bat. 17. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“1. Heriotzaren ziozko eskualdaketetan eta ondareko balio garbia zehazteko, oro har, oinordetzaren kausatzaileak uzten dituen zorrak kendu ahal izango dira baldin eta horiek daudela kreditatzen bada agiri publikoaren bitartez edo Kode Zibilaren 1227. artikuluko beharkizunak betetzen dituen agiri pribatuaren bitartez, edo horiek daudela beste era batera frogatzen bada. Ezin izango dira kendu zati alikuotaren legatu hartzaileen edo jaraunseleen edo berauen ezkontideen, izatezko bikoteetako kideen (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik osatutakoak) aurrekoen, ondorengoaren edo neba-arreben aldeko zorrak, haiek jaraunsepenari uko egiten badiote ere.

Administrazioak jaraunseleei agiri publikoan zorra berresteko eskatu ahal izango die; eta hartzekodunari, agertzeko.”

Bi. 23. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da; hona testu berria:

“1. Heriotzaren zioz edo “inter vivos” egindako eskuraketetan, kausatzailearen edo dohaintza emailearen eta kausadunaren edo dohaintza hartzailearen arteko ahaidetasun mailaren arabera ordainduko da Zerga.

Kausadunak ezagunak ez badira, ahaide ez direnen arteko oinordetzari dagokion tarifaren araberako likidazioa egingo da. Hala ere, bidezkoa den itzulketa egin ahalko da, kausadunak nortzuk diren jakiten denean.”

## VI. KAPITULUA

### ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA

#### **8. artikulua. Martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarena, aldatzea**

Aldaketa batzuk egin dira martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauan, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoan; hona:

Bat. 6. artikuluko 1. idatz zatiko A) letraren 1. zenbakiaren bigarren paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

“Baloreen Merkatuari buruzko Legearen Testu Bategineko 314. artikuluan ageri diren kasuetan, eskualdatzen diren baloreei dagokien entitatearen aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak Arabako lurraldean daudenean (testu bategin hori 2015eko urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Bi. 17. artikulua berridatzi da; hona hemen testua:

“17. artikulua. Trukatzeak

Ondasun edo eskubideak trukatzean, trukatzaile bakoitzak jaso dituenen egiaztatutako balioaren arabera ordainduko du, deklaraturakoa handiagoa ez bada, jasotako ondasun edo eskubideen izaera higigarri edo higiezinari dagokion zerga tasa aplikatuz.”

Hiru. Honela geratzen da 31. artikulua:

“31. artikulua. Automobilak, ontziak eta hegazkinak.

Ibilgailu automobilak, itsasontziak eta aireontziak balioesteko, Arabako Foru Aldundiak berariaz ezartzen dituen arauak erabiliko dira.

Aurreko paragrafoak aipatzen dituen arauetatik sortutako balioa dagokion aitortpena egiteko gutxieneko balio konputagarritzat hartuko da

Aurrekoa gorabehera, subjektu pasiboak gutxieneko balio konputagarria balio erreala baino handiagoa dela uste duenean, hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du autolikidazioarekin batera.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaz gain, Administrazioak balio erreala egiaztatzeko duen eskumena hartu beharko da kontuan”.

Lau. 46. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“46. artikulua. Birmoldaketa eragiketak zer diren.

“Sozietate eragiketen gaineko karga kalkulatzeko, berregituratzeko eragiketak dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 101. artikuluko 1., 2., 3. eta 5. idatz zatietan zehaztutako bat egiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak eta balore trukaketak, bai eta foru arau horretako 111. artikuluan aipatzen diren diruzkoak ez bestelako ekarpenak ere.”

## VII. KAPITULUA

### HIRI LURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

#### **9. artikulua. Uztailaren 19ko 46/1989 Foru Araua, hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergarena, aldatzea**

Honako aldaketa hauek egin dira uztailaren 19ko 46/1989 Foru Arauan, hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergari buruzkoan:

Bat. 2. artikuluko 3. idatz zatia indargabetu da.

Bi. 3. idatz zati berria gehitzen zaio 3. artikuluari; hona testua:

“3. Zordun hipotekarioaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitzaren hipoteka, epai edo notarioaren betearazpenaren ondorioz ordainean eman beharreko eskualdaketetan kreditu entitate baten alde edo mailegu edo kreditu hipotekarioak modu profesionalean emateko jarduera aurrera eramaten duen edozein entitate profesionalaren alde, zergaduna ordeztuko duen subjektu pasibotzat hartuko da higiezin eskuratuko duen entitatea, eta ordezeko horrek ezingo dio zergadunari exijitu ordaindutako zerga betebeharren zenbatekoa.

Idatz zati honen ondorioetarako, egoera berdintzat joko da baldin eta hipoteka daukan zordunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean eman badu hura eskuratzeko sortzen diren zorrak bermatzeko abal emaeleak

Idatz zati honetan ezarritako ondorioak sor daitezzen, zordun edo bermatzaile eskualdatzaileak edo haien familia unitateko beste edozein kidek ezin du eduki jabetzan, etxebizitza besterentzea saihestu ahal izateko unean, hipotekaren zorra guztiz kitatzeko nahikoa balio daukan beste edozein ondasun edo eskubiderik. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da.

Idatz zati honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzat hartuko da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 87. artikuluko 8. idatz zatian jasotakoa.

Familia unitatearen kontzeptuari dagokionez, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauko 98. artikuluan xedatutakoa beteko da. Ondorio horietarako, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legeari jarraituz eraturako izatezko bikoteak ezkontzaren izaera bera izango du.

## VIII. KAPITULUA

### LEHENTASUNeko PARTAIDETZAK

#### **10. artikulua. Abenduaren 22ko 18/2011 Foru Araua, 2012rako zerga neurriei buruzkoa, aldatzea**

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin berridatzi egiten da 2012rako zerga neurriei buruzko 2012ko abenduaren 22ko 18/2011 Foru Arauko lehenengo xedapen gehigarria, eta honela geratu da idatzita:

“Lehena. Lehentasuneko partaidetzen zerga araubidea

1. Hona hemen kreditu entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legeko lehenengo xedapen gehigarriko 1., 2. eta 5. zenbakietan ezarritako betekizunak betez jaulkitzen diren lehentasuneko partaidetzen zerga araubidea:

a) Kreditu entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legeko lehenengo xedapen gehigarriko 1. zenbakiko a) letran aipatzen den ordainsaria gastu kengarria izango da entitate jaulkitzailearentzat.

b) Lehentasuneko partaidetzen ondorioz lortzen diren errentak norberaren kapitala hirugarrenei lagaz lortutako etekintzat hartuko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 35. artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Jaulkipena egiten duena sozietate filial bat bada, lortutako baliabideak kreditu entitate nagusian gordailuan uzteak sortutako etekinei ez zaie inolako atxikipenik egingo, eta, hala badagokio, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluko 1. zenbakiko e) letran ezartzen den salbuespena aplikatuko zaie.

d) Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, establezimendu iraunkorrik gabe, lehentasuneko partaidetzetatik lortzen dituzten errentak salbuetsita egongo dira, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluko arabera zor publikotik eratorritako etekinak salbuetsita dauden bezala.

e) Lehentasunezko partaidetzak jaulkitzearen ondoriozko eragiketak salbuetsita daude Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako sozietate eragiketen modalitatean.

2. Kreditu entitateen talde edo azpitalde kontsolidagarri bateko kreditu entitate nagusiak informazioa eman behar dio Zerga Administrazioari, arauz ezarritako eran. Batetik, jakinarazi behar dio zer jarduera egin dituzten ekainaren 26ko 10/2014 Legeak, kreditu entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoak, bere bigarren xedapen gehigarriko 2. zenbakiko a) letran aipatzen diren filialek. Bestetik, Administrazioari esan behar dio filial horiek jaulkitako baloreen titularretatik zein diren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak eta zein Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak. Eta, azkenik, adierazi behar dio Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako zein zergadunek lortzen dituzten balore horien ondoriozko errentak helbidea Araban duen establezimendu iraunkorren bidez.

3. Kreditu entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legeko lehenengo xedapen gehigarriko 2. zenbakiko a), b), c), d) eta e) letretan aipatzen diren eskakizunak bete eta merkatu antolatuetan kotizatzen duten entitateek egiten dituzten zor tresnen jaulkipenei ere aplikatuko zaie xedapen honetako 1. eta 2. zenbakietan ezartzen den araubidea. Kasu horietan, 2. zenbaki horretako a) letran aipatzen den jarduera edo xede bakarra lehentasunezko partaidetzak jaulkitzeari zein beste finantza tresna batzuk jaulkitzeari dagokio.

Araubide horixe bera aplikatuko zaie merkatu arautuetan, negoziazio sistema aldeaniztuntan edo beste merkatu antolatu batzuetan kotizatzen duten eta gainera, Enpresen finantzaketa sustatzeari buruzko 2015eko apirilaren 27ko 5/2015 Legean arautzen diren titulazio funtsen kargura jaulkitako baloreei.

4. Xedapen gehigarri honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, Kreditu entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legeko lehenengo xedapen gehigarriko 7. zenbakian aipatzen diren lehentasunezko partaidetzei.

5. Xedapen honetako 1. eta 2. zenbakietan jasotzen den zerga araubidea Espainiako egoiliarren diren sozietateek eta enpresa erakunde publikoek jaulkitako zor tresnei ere aplikatuko zaie. Kasu horietan, zor tresnek Kreditu entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legeko lehenengo xedapen gehigarriko 2. zenbakiko c), d) eta e) letretan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

Era berean, zerga araubide hori aplikatuko zaie Europar Batasuneko lurralde bateko egoiliarra den sozietate batek jaulkitako zor tresnei ere, baldin eta lurralde hori ez bada paradisu fiskaltzat jotzen eta sozietate horren boto eskubide guztiak, zuzenean edo zeharka, aurreko paragrafoan aipatzen diren Espainiako entitate egoiliarrei badagozkie. Kasu horietan, zor tresnek Kreditu entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legeko lehenengo xedapen gehigarriko 2. zenbakiko b), c), d) eta e) letretan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

#### IV. TITULUA

##### Sustapena langileek enpresan partaidetza edukitzeagatik

###### 11. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua aldatzea

Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoan, honako manu hauek aldatu dira (aldaketak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

Bat. 17. artikuluko 2. idatz zatiari g) letra gehitu zaio; hona:

“g) Merkatuko balio normalaren eta langileek akzioak eta partaidetzak eskuratzeko duten eskualdaketa balioaren arteko diferentzia positiboa, eskurapenak eskuratzailerei foru arau honetako

89. artikulua ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen dienenean, bai eta merkatuko balio normalaren eta langileek enpresak eskuratzeko duten eskualdaketa balioaren arteko diferentzia positiboa ere, foru arau honetako 41.2 artikuluko d) letran exijitutako beharkizunak betetzen direnean.

Foru arauaren 41.2 d) eta 89. artikuluek exijitutako baldintzak betetzen ez badira eskurapenetik hurrengo bost urteko epearen edozein egunetan, zergadunak zerga egoera erregularizatu beharko du epea bete ez den ekitaldiko autolikidazioan. Erregulazioan, era berean, behar diren berandutze interesak sartu beharko dira.”

Bi. 41. artikuluko 2. idatz zatiko c) eta d) letrak honela geratu dira:

“c) Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 6. artikuluan aipatutako enpresen, akzioen edota partaidetzen irabazizko eskualdaketatik, ezkontide, izatezko bikotekide, aurreko edo ondorengo ahaideen alde egiten direnean, honako baldintza hauek betetzen badira:

Lehenengoa. Eskualdatzaileak hirurogei urte edo gehiago izatea edo ezintasun iraunkorreko egoeran egotea, dela absolutua dela baliaezintasun handia.

Bigarrena. Eskualdatzaileak, zuzendaritza lanak bete izan baditu, eskualdaketa unetik beretik lan horiek egiteari eta dagozkien ordainsariak jasotzeari uztea.

Ondorio horietarako, sozietatearen administrazio kontseiluko kide izate hutsa ez da zuzendaritza funtzioen barruan sartuko.

Hirugarrena. Eskuratzailak mantendu egin beharko ditu jasotako enpresa, akzio edo partaidetza horiek, dohaintzaren eskritura publikoaren dataren ondorengo bost urteetan zehar, epe horren barruan hiltzen denean izan ezik edo konkurtso prozedura baten ondorioz enpresa edo entitatea likidatzen denean izan ezik. Halaber, eskuratzailak ezin izango du xedapen egintzarik edo sozietate eragiketarik gauzatu, eragiketok, zuzenean edo zeharka, eskuraketa balioa nabarmen murriztu dezaketenean.

Mantentze epea betetzen ez bada, eskuratzailak zerga egoera erregularizatuko du ez betetzea gertatzen den ekitaldiari dagokion autolikidazioan. Ekitaldi horretan eginikotzat joko da ondare irabazia edo galera. Erregulazioan, era berean, behar diren berandutze interesak sartu beharko dira.

Ondare elementuak eskuratu eta gero zergadunak elementuok ekonomia jarduerari lotzen badizkio, ezinbestekoa izango da elementu horiek gutxienez bost urtez eta etenik gabe egon izana jarduerari lotuta eskualdaketa egin aurretik.

Hala, c) letrak ezarritakoa gorabehera, akzioen eta partaidetzen eskualdaketatik, ulertuko da ondare irabazia edo galera dagoela jarduera ekonomikoari atxiki gabeko aktiboen balorearen –jardueratik ez datozen zorren zenbatekoa gutxituta– eta entitatearen ondare garbiaren balorearen artean dagoen proportzioari dagokion zatian. Arau horiek berak ezarriko dira partaidetutako entitatearen partaidetzak baloratzeko, entitate edukitzailearen partaidetzen balorea zehazteko.

Zergadunak c) letra horretan ezarritako eskualdaketa bat aurrera eramanez gero, autolikidazioan jaso beharko ditu eragiketari buruzko datuak.

d) Ondarearen gaineko Zergaren Foru Arauak 6. artikuluan aipatzen dituen enpresa, akzio edo partaidetzen eskualdaketatik, enpresako langile baten edo batzuen alde egiten direnean, baldin eta aurreko c) letran ezarritako beharkizunez gain honako hauek ere betetzen badira:

Lehenengoa. Langile eskuratzailak lan egin behar izan dute enpresan edo entitatean edo taldearen entitateetan eskuraketa izan aurreko bost urteetatik hiru urtetan gutxienez. Ondorio horietarako, entitate horietariko batean lan egindako epe gisa zenbatuko dira langileak senitartekoak zaintzeko borondatezko eszedentzia egondakoak.



Bigarrena. Aurreko c) letrako hirugarren baldintzaren lehen paragrafoan aipatutako bost urteko epea enpresaren edo beronen akzioen edo partaidetzen eskualdaketa datatik aurrera zenbatuko da; eskualdaketa eskritura publikoan edo agiri pribatuan jaso beharko da, eta eskritura edo agiri hori Zerga Administrazioari aurkeztuko zaio.

Langile eskuratzailleak ekarpenean ematen badizkio eskuratutako akzio edo partaidetzak aurrerago arautzen diren eta langileek berek eraturako entitateetako bati, baldintza hau betetzen dela ulertuko da langile horrek aurreko paragrafoan aipatutako epea osatu arteko denboran mantentzen duenean partaidetza entitate horretan.

Hirugarrena. Aurreko bigarren baldintzan jasotako epean zehar, langile eskuratzailleek lanean jarraitu behar dute, langile gisa, entitatean edo taldeko entitateetan edo, hala badagokio, entitateari lan pertsonala eskainiz, foru arau honetako 24. artikuluko 1. idatz zatiak aipatu bezala. Ondorio horietarako, ulertuko da senideen zaintza dela-eta aipatutako entitateetako batean borondatezko eszedentzian dauden langileek bertan jarraitzen dutela lanean eszedentziak iraun bitartean.

Langileek ez dituzte bete beharko aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak, baldin eta, eskualdaketa behin egindakoa, zentzen badira edo enpresan lan egiteari uzten badiote ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia aitortu zaielako aurreko paragrafoan ezarritako epea bete aurretik; gauza bera gertatuko da enpresa edo entitatea likidatzen bada konkurtso prozedura baten ondorioz.

Laugarrena. Aurreko bigarren baldintzan aurreikusitako epean zehar, langile bakoitzak entitatean zuzenean edo zeharka izan dezakeen partaidetza, barruan sartuta ezkontidearena edo izatezko bikote lagunarena, aurrekoena, ondorengoena eta alboko ahaideena, hirugarren graduraino, ezin da izan ehuneko 20tik gorakoa. Entitatea talde bateko kide bada, aurreko baldintza taldea osatzen duen entitate bakoitzari dagokionez bete beharko da.

Eskualdaketa entitateko edo taldea osatzen duten entitateetako langileen alde egiten dela joko da, eskuratzaillea entitate bat denean eta, gainera, entitate horrek baldintza hauek betetzen dituztenean:

a') Akzioak edo partaidetza eskualdatu zaizkien entitate horretako edo taldeko entitateetako langileak izatea partaide bakarrak, eta langile horiek d) letra honetako lehenengo baldintza betetzea.

Entitatearen akziodunen osaeraren ondorioetarako, ulertuko da aurreko paragrafoan langileak partaide bakarrak izateari buruz aipatutako baldintza betetzen dela bertan parte hartzen duten pertsonak entitate enplegatzailan lan egitearen uzten diotenean ezintasun iraunkor osoa edo absolutua edo baliaezintasun handia aitortu baitiete.

Halaber, ulertuko da entitatearen akziodunen osaerari buruzko baldintza betetzen dela langileak partaide bakarrak diren entitatearen akzioak edo partaidetzak eskuratu ondoren hildako langileen ondorengoei dagokien partaidetza dagoenean. Aurrekoa aplikagarria izango da gehienez bi urteko epean langilea zentzen denetik zenbatzen hasita.

b') Bere aktiboaren gutxienez ehuneko 90 a) eta b) letretan aurreikusitako akzioak edo partaidetzak izatea. Portzentaje hori zehazteko, diruzaintza ez da zenbatuko aktiboaren barruan.

Akzioen edo partaidetzen eskuratzeari entitatea eratzeagatik edo kapitala handitzeagatik egin bada, entitateak bi hilabeteko epea izango du b') letra honetan jasotakoa betekizun hori betetzeko.

Aurreko paragrafoek aipatutako langileek bakar-bakarrik parte hartzen duten entitateak aurreko la') eta b') letretan ezarritako beharkizunak bete beharko dituzte bigarren beharkizunean ezarritako epean barrena.

Akzioak eta partaidetzak mantentzeko epea, bigarren beharkizunean aipatua, exijituko zaie bai langileek bakar-bakarrik parte hartutako entitateari, entitateak berak eskuratutako akzio eta partaidetzei dagokienez, eta bai langileei, entitatean dituzten akzio eta partaidetzei dagokienez. Langileek bakar-bakarrik parte hartzen duten entitatea desegiten bada epea bete aurretik, epea osatzeko ezinbestekoa izango da bazkide langileek beren akzioak eta partaidetzak mantentzea.

Eskurapenak aurreko paragrafoetan aurreikusitako langileek bakar-bakarrik parte hartzen duten entitateek eginak direnean, entitatean parte hartzen duten langileei dagokie d) letra honetako hirugarren eta laugarren baldintzak betetzea.

d) letran ezarritako baldintzak betetzen ez badira eskualdaketa ondoan eta alde batera utzita eskualdaketa langileei edo haiek bakarrik parte hartutako entitateei egin zaien ala ez, eskualdatzaileak zerga egoera erregularizatu behar du baldintzak bete ez diren ekitaldiko autolikidazioan. Erregulazioan, era berean, behar diren berandutze interesak sartu beharko dira.

Aurreko c) letrako azken-aurreko paragrafoan esandakoa d) letra honetan jasotako akzio eta partaidetzen eskualdaketa ere aplikatuko da.

Enpresen, akzioen edo partaidetzen eskualdaketa kostu bidezkoa izan bada, geroko eskualdaketa batean zer ondare irabazia edo galera izan den kalkulatzeko langileak kontuan hartu behar duen eskurapen balioa izango da benetan ordaindutako zenbatekoa. Aurrekoa ez da aplikagarria izango, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, eskualdatzailearentzat ondare irabazi edo galera dagoela ulertzen den zatian.; zati horrekiko proportziozko eskurapen-balioa zehaztuko da zergaren arau orokorretara egokituta.

Letra horretan taldeei buruz egindako aipamenak sozietate taldeei egin zaizkiela ulertuko da, Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikulua ezarritakoaren ildotik.

Zergadunak d) letra horretan ezarritako eskualdaketa bat aurrera eramanez gero, autolikidazioan jaso beharko ditu eragiketari buruzko datuak.

Orobat, d) letra honetan ezarritakoa ez da aplikagarria izango akzioen eta partaidetzen eskualdaketa egiten bada haien gaineko aukerak baliatuz.

Hiru. 46. artikuluko azkeneko paragrafoa honela geratu da.

“Foru arau honetako 41. artikuluko 2. zenbakiko c) eta f) letretan aipatutako kostu gabeko eskuratzetan, dohaintza hartzailea dohaintza emailearen lekuan subrogatuko da ondasunen eskuraketa balio eta datei dagokienez. c) letrak aipatutako eskuraketetan, aurrekoa ez da aplikagarria izango azken aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondoriozko proportzioari dagokion eskuraketa balioari dagokionez.”

Lau. 89. artikulua honela geratu da:

“89. artikulua. Langileek entitate enplegatzailean parte hartzeagatiko kenkaria.

1. Zergadunek ehuneko 15eko kenkaria egin ahal izango dute, gizonak badira, eta ehuneko 20koa emakumeak badira, zergaldian zehar eskudirutan ordaindutako kopuruengatik, kopuru horiek ondoan aipatzen diren entitateetako akzio edo partaidetzak eskuratu edo harpidetzeko erabili dituztenean:

a) Langile gisa jarduten duten entitatea, betiere eskurapena egin aurreko bost urteetatik gutxienez hirutan lan egin badute bertan.

b) Langile gisa jarduten duten entitatearen taldeetako edozein. Kasu honetan, ezinbesteko beharkizuna izango da eskurapena egin aurreko bost urteetatik gutxienez hirutan jardun izana langileek taldeko sozietateetan, eta, ondorio horietarako, sozietate taldeko entitate multzoa hartuko da kontuan.

c) Baldintza hauek betetzen dituen beste edozein entitate:

a) Idatz zati honetako a) eta b) letretan aipatzen diren entitateetako langileak izatea partaide bakarrak, eta langile horiek eskurapena egin aurreko bost urteetatik gutxienez hirutan lan egitea bertan, letra horietan jasotako eran.

Entitatearen akziodunen osaeraren ondorioetarako, ulertuko da aurreko paragrafoan langileak partaide bakarrak izateari buruz aipatutako baldintza betetzen dela bertan parte hartzen duten pertsonak entitate enplegatzailean lan egitearen uzten diotenean ezintasun iraunkor osoa edo absolutua edo baliaezintasun handia aitortu baitiete.

Halaber, ulertuko da entitatearen akziodunen osaerari buruzko baldintza betetzen dela langileak partaide bakarrak diren entitatearen akzioak edo partaidetzak eskuratu ondoren hildako langileen ondorengoei dagokien partaidetza dagoenean. Aurrekoa aplikagarria izango da gehenez bi urteko epean langilea zentzen denetik zenbatzen hasita.

b') Bere aktiboaren gutxienez ehuneko 90, a) eta b) letretan aipatutako akzio edo partaidetzak izatea. Portzentaje hori zehazteko, diruzaintza ez da zenbatuko aktiboaren barruan.

Akzio edo partaidetzak eskuratu edo harpidetu badira entitatea eratzeko edo kapitala zabaltzeko, entitateak bi hilabeteko epea izango du b') letran ezarritako baldintza betetzeko.

2. Aurreko idatz zatiko a), b) eta c) letretan aipatutako entitatean edo taldeko entitateetan lan egindako denbora zenbatzeari begira, senideen zaintza dela-eta langileak borondatezko eszedentzian egon badira entitate horietako batean, egoera horretan emandako denbora tarteak ere lan egindako epealditzat hartuko dira.

3. Urteko kenkaria ezingo da izan 1.500 euro baino handiagoa, eskurazailea gizonezkoa denean, edo 2.000 euro baino handiagoa, emakumezkoa denean.

Kopuruak ezin badira kendu aurreko paragrafoan ezarritako mugak gainditzeagatik edo kuota osoa nahikoa ez izateagatik, hurrengo lau ekitaldietan kendu ahal izango dira, betiere aipatutako mugak errespetatuz.

Zergaldi jarraituetan zehar zergadun bakoitzak artikuluko honen arabera kendutako zenbatekoen batura ezingo da izan 6.000 eurotik gorakoa, eskurazailea gizonezkoa denean, edo 8.000 eurotik gorakoa, emakumezkoa denean.

4. Gainera, kenkaria aplikatzeko baldintza hauek bete behar dira:

a) idatz zatian aipatzen diren akzioak edo partaidetzak ezin dira egon onartuta balore merkatu arautuetan negoziatzeko.

b) idatz zatiko a) eta b) letrei dagokienez, entitateak ezin dira izan ondare sozietateak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak bere 14.1. artikuluko a) letran ezarritako moduan.

1. idatz zatiko c) letrari dagokionez, baldintza hori bete beharrekoa izango da entitatearentzat edo entitateentzat, haien akzio edo partaidetzak letra horretan aurreikusita dagoen ehuneko 90ko portzentajea zehazteko konputatzen direnean.

c) Kenkari honetarako eskubidea ematen duten akzio edo partaidetzak bost urtez mantendu behar dira gutxienez, salbu eta langile eskurazaile edo harpideduna epe horren barruan hiltzen denean edo enpresa konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen denean.

Akzio edo partaidetzak eskuratzen edo harpidetzen dituen langileak ekarpenean ematen badizkio akzio edo partaidetza horiek 1. idatz zatiko c) letran aipatutako entitateetako bati, baldintza betetzen dela ulertuko da langile horrek aurreko paragrafoan aipatutako epea osatu arteko denboran mantentzen duenean partaidetza entitate horretan.

1. idatz zatiko c) letraren kasuan, akzioak edo partaidetzak mantentzeko beharkizuna bete beharko dute bai langileek eraturako entitateak, eskuratutako eta harpidetutako akzio edo partaidetzei dagokienez, eta bai langileek berek, entitatearen beraren partaidetzei dagokienez. Entitatea desagiten bada epe hori bete aurretik, epea osatzeko ezinbestekoa izango da bazkide langileek beren akzioak eta partaidetzak mantentzea.

d) Idatz zati honetako c) letran aurreikusitako epean, ezinbestekoa da eskuratzailleak edo harpidedunak lanean jarraitzea dela entitatean bertan dela sozietate taldeko beste batean, salbu eta, eskurapenaren ondoren, hiltzen bada edo bertan lan egiteari uzten badio ezintasun iraunkor osoa, absolutua, edo baliaezintasun handia aitortu zaiolako. Ondorio horietarako, ulertuko da senideen zaintza dela-eta aipatutako entitateetako batean borondatezko eszedentzian dauden langileek bertan jarraitzen dutela lanean eszedentziak iraun bitartean.

1. idatz zatiko c) letraren kasuan, entitatea osatzen duten langile partaideei dagokie baldintza hau betetzea.

e) Akzio edo partaidetzak 1. idatz zatiko a) eta b) letretan aipatzen diren entitateetan eskuratzeko edo harpidetzen badira, langile bakoitzak zuzenean edo zeharka entitateetan izan dezakeen partaidetza, barruan sartuta ezkontidearena edo izatezko bikote lagunarena, aurrekoena, ondorengoena edo alboko ahaideena hirugarren graduraino, ezin da izan ehuneko 20tik gorakoa idatz zati honetako c) letran aurreikusitako epean. Entitatea talde bateko kide bada, aurreko baldintza taldea osatzen duen entitate bakoitzari dagokionez bete beharko da.

1. idatz zatiko c) letraren kasuan, entitatea osatzen duten langile partaideei dagokie baldintza hau betetzea, eta ez entitateari.

5. Laugarren idatz zatiko baldintzak edo 1. idatz zatiko c) letrako portzentajea, aktiboaren osaerari buruzkoa, zergaldiko edozein egunetan ez betetzeak, kendutako kopuruak itzuli beharra ekarriko du berekin, berandutze interesak barne. Zenbat ordainduko den kalkulatzeko, kendutako zenbatekoari baldintza bete ez den zergaldiko kuota diferentziala batu beharko zaio. Hala ere, zergadunak kendutako kopuru horiek eta beraien berandutze interesak lehenago ordaintzeko aukera izango du.

1. idatz zatiko c) letran aipatzen diren entitateetako akzio eta partaidetzen eskurapen edo harpidetzetan, langileren batek, edo bat baino gehiagok, ez badiu betetzen 4. idatz zatiko c), d) eta e) letretan ezarritako beharkizunak, langile horiek bakarrik izango dute kendutako kopuruak erregularizatzeko obligazioa.

1. idatz zatiko c) letraren b') letran aipatzen den aktiboaren osaketa portzentajea ez betetzeagatik lehen paragrafoan ezarrita dagoen obligazioa ez da zertan bete beharko, baldin eta ez betetze hori gertatu bada taldeko entitate bat edo batzuk, zeinen akzio edo partaidetzak konputatzen baitira portzentajea zehazteko, konkurtso prozedura baten ondorioz likidatu badira, eta ez betetze hori bi hilabeteko epean zuzentzen bada. Entitateen akzio edo partaidetzak konputagarriak badira aktiboaren ehuneko 90eko portzentajea zehazteko, eta entitate horiek guztiak konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen badira, ez da exijituko ez betetze hori zuzentzea.

6. Artikulu honetan ezarritakoa ez da aplikatuko eskurapena akzio edo partaidetzen gaineko aukerak baliatuta egiten denean.

7. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak bere 115. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoaren ondorioetarako, artikulu honetako kenkarietako bat aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da ekitaldiko autolikidazioan zergadunak berariaz adieraztea aplikatu nahi duela

8. Letra horretan taldeei buruz egindako aipamenak sozietate taldeei egin zaizkiela ulertuko da, Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikulua ezarritakoaren ildotik."

Bost. 47. artikuluko 1. idatz zatiko b) letraren azken paragrafoa berridatzi da. Hona hemen:

"Lan sozietateen eta bestelako sozietateen akzio edo partaidetzak eskualdatzeari aplikagarri zaizkion arau bereziak.

1. Lan sozietateen lan motako akzio edo partaidetzen eskualdaketa zer ondare irabazi eta galera izan diren kalkulatzeko, sozietate kontratuetan, kontratu sozialetan edo sozietatearekin hitzartutakoetan ezarritako prezioa merkatuko baldintza normaletan alderdi independentek adostutako prezioztat hartuko da foru arau honetako 47.1 artikuluko b) letraren bigarren

paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako. Arau hori aplikatu ahal izateko, eskualdaketan jasotako prezioak bat etorri behar du sozietate kontratuetan, kontratu sozialetan edo sozietatearekin hitzartutakoetan ezarritako prezioarekin.

2. Orobat, sozietatearen akzio edo partaidetzak sozietate horretako edo sozietate taldeko langileek eskualdatzean zer ondare irabazi edo galera izan diren kalkulatzeko, akzio edo partaidetza horien eskurapenaren unean geroko eskualdaketari begira adostutakoa, horixe hartuko da merkatuko baldintza normaletan alderdi independenteek adostutako prezioztat, foru arau honetako 47.1 artikuluko b) letraren bigarren paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako

Idatz zati horretan ezarritakoa aplikatzeko, honako baldintza hauek beteko dira:

a) Eskuratzailleak honako pertsona edo entitateetarako batzuk izatea:

a') Entitateko edo taldeko entitateetako langileak, baldin eta haien akzioak edo partaidetzak eskualdatzen bazaizkie. Eskuratzailleak bete behar ditu foru arau honetako 89. artikuluan langileek enpresan parte hartzeagatik arautzen den kenkarirako baldintzak.

b') Entitatea, baldin eta akzioak edo partaidetzak taldeko beste entitate batzuei eskualdatzen bazaizkie gehienez bi urteko epean eta horiek haien langileei eskualdatzen badizkiete aurreko a') letrak ezarritakoari jarraikiz.

c') Foru arau honen 89.1. artikuluko c) letrak aipatzen dituen langileak partaide bakarrak diren entitateak, baldin eta eskualdatzen diren akzio edo partaidetzen entitatean edo taldeko entitateetan parte hartzen badute. Kasu horretan, entitate eskuratzailleak eta bertan parte hartzen duten langileek ezinbestean bete beharko dituzte 89. artikuluan ezarritako baldintzak.

Hala, a) letra horretan ezarritako baldintzak bete ezean, zergadunak bere zerga egoera erregularizatu beharko du ez betetzea izan den ekitaldiari dagokion autolikidazioan. Erregularizazioan, era berean, behar diren berandutze interesak sartu beharko dira.

b) Eskualdaketan zinez jasotako prezioa bat etortzea geroagoko eskualdaketarako esku-raketaren unean adostutakoarekin. Akordio hori eskritura publikoan dokumentatu beharko da.

Idatz zati honetan xedatutakoa berdin aplikatuko da, noiz eta langileek foru arau honetako 89.1 artikuluko c) letran ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateen akzio edo partaidetzak eskualdatzen dizkietenean entitateko edo haren taldeko entitateetako langileei edo akzioak edo partaidetzak eskualdatzen zaizkio entitateari berari, baldin eta idatz zati honetako a) letrako a') eta c') letratan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Idatz zati honek ezarritako ondorioetarako, taldeei egiten zaizkien aipamenak sozietate taldeei egiten zaizkiela ulertuko da, betiere Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikuluko haritik.

Sei. Beste xedapen iragankor bat gehitu da, hogeita bosgarrena; hona:

“Hogeita bosgarrena. Langileek enpresan parte hartzeagatik 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen aplikatutako kenkaria

Langileek enpresan parte hartzeagatik zergadun bakoitzak zergaldi jarraituetan kendutako zenbatekoen muga, hain zuzen ere foru arau honetako 89.2 artikuluko hirugarren paragrafoan ezarritakoa, aplikatzearen ondorioetarako, 2016a baino lehenago zergaldietan kontzeptu horre-gatik kendutako kopuruak ez dira konputatuko.”

## **12. artikulua. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Foru Araua aldatzea**

Honela berridatzi dira maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauak, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergarenak, bere 7. idatz zatiko lehenengo paragrafoan eta 22. artikuluko 9. idatz zatian ezarritakoa:

“7. Baldin eta hildakoaren ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak (bikote horiek Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak ezarritakoaren arabera eraturik badaude),

aurrekoek zein ondorengoek, adoptatuek zein adopzio hartzaileek edo hirugarren gradura arteko ahaideek "mortis causa" eskuratzen badute pertsona bakarreko enpresa bat, lanbide negozio bat edo Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan araututako salbuespena aplikagarri zaion entitate partaidetzaren bat edo haien gaineko gozamen eskubideren bat, bada, orduan, halako eskuraketei zerga oinarriaren ehuneko 95eko murrizketa aplikatuko zaie, betiere eskuraketak bere hartan irauten badu hurrengo 5 urteetan (salbu eta eskuratzaila epe horretan hiltzen bada edo enpresa edo entitatea konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen bada):

"9. Banako enpresa bat, negozio profesional bat edo entitate bateko partaidetza "inter vivos" eskuratzen badu ezkontideak edo izatezko bikotekideak (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako bikotea), aurreko edo ondorengo ahaide batek edo adoptatu edo adoptatzaile batek, zergaren oinarriari ehuneko 95eko murrizketa aplikatu ahal izango zaio, honako baldintza hauek betez gero.

a) Dohaintza emaileak hirurogei urte edo gehiago izatea edo ezintasun iraunkorreko egoeran egotea, dela absolutua dela baliaezintasun handia.

b) Dohaintza emaileak zuzendaritza lanak egin izan baditu, eskualdaketa gertatzen denetik bertan behera utzi behar ditu eta ezin ditu jaso lanoi dagozkien ordainsariak.

Horretarako, sozietatearen administrazio kontseiluko kide hutsa izatea ez da zuzendaritza funtzioen barruan sartuko.

c) Dohaintza hartzaileari dagokionez, eskuratutakoa mantendu beharko du eta Ondarearen gaineko Zergaren 6. artikulua araututako salbuespena egiteko eskubidea izan beharko du dohaintzaren eskritura publikoaren dataren ondorengo bost urteetan zehar, epe horren barruan hiltzen denean izan ezik edo enpresa edo entitatea konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen bada. Halaber, dohaintza hartzaileak ezin izango du egin zuzenean edo zeharka eskuraketa balioa nabarmen murriztu dezakeen xedapen egintzarik ez sozietate eragiketarik.

Idatz zati honetan aipatzen diren baldintzetako bat betetzen ez bada, aplikatutako murrizketaren ondorioz ordaindu gabe geratu den zerga zatia eta beraren berandutza interesak ordaindu beharko dira."

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen. Herri erakundeen eztabaidak zerga gaietan.

Abenduaren 23ko 60/2003 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko arbitraje eta erakunde arbitrajei buruzkoa, erreformatzen duen maiatzaren 20ko 11/2011 Legearen xedapen gehigarri bakarrak ezarritakoa ez zaie aplikatuko zerga sistemaren aplikazioari buruzko gaietan eta zerga administrazioak kudeatzen dituen prozeduretan jatorria duten eztabaidei.

Bigarrena. Foru honen II. tituluari lotutako xedapena.

Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 2. artikulua 5. atalaren bigarren paragrafoa, foru arau honetan ezarritako idazkeraren arabera, aplikagarria izango da, eraginak data berean dituela, Sozietateen gaineko Zergaren 85. Artikulua 1. Atalaren bigarren paragrafoan ezarritakoaren ondorioz talde fiskalaren kontsolidazio-perimetroa handitzen den kasuetan eta artikulua horrek eraginak izatearen ondoren sortutako talde fiskalen egoera parekagarrietan.

#### XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen. Zergei buruzko Foru Arauaren aldaketen araubide iragankorra, foru arau honetako I. tituluaren sartutakoak.

1. Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Araua, Arabako zergei buruzkoa, bere 14. artikuluko 3. idatz zatian jasotako idazkera berria zergaldiei aplikatuko zaie, baldin eta haien likidazio epea foru arau hau indarrean sartu ondoren amaitzen bada.

2. Foru Arauaren 65 bis artikulua, 111. artikuluko 1. eta 2. idatz zatiek eta 69. artikuluko 3. idatz zatiak ezarritakoa, foru arau honek emandako idazkerak kontuan hartuz, aplikagarria izango da indarrean sartzen denerako hasitako egiaztapen eta ikuskapen prozeduretan, baldin eta data horretan likidazio proposamenik egin ez bada.

3. Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergei buruzkoak, bere 67. artikuluko 11. idatz zatian ezarritako idazkera berria aplikagarria izango zaie otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak bere 65. artikuluko a) paragrafoan aipatutako eskubidearen preskripzio epearen etenaldiaren kasuei, betiere foru arau hau indarrean sartzen den egunetik aurrera.

4. Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergei buruzkoak, bere 129. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako idazkera berria aplikagarria izango zaie foru arau hau indarrean sartzen den egunetik aurrera aurkeztutako aditu tasazio kontraesankorreko eskaerei.

5. Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergei buruzkoak, bere V. tituluaren IV. kapituluaren ezarritako aldaketak honela aplikatuko dira:

a) 236., 239.1, 240.3 eta 245. artikuluen idazkera berria aplikagarria izango zaie indarrean sartzen direnetik jarritako erreklamazio eta errekursoei.

b) 222.6. artikuluko idazkera berria aplikagarria izango zaie indarrean sartzen denetik egindako etenaldi eskaerei.

c) 240.1 artikuluko idazkera berria aplikagarria izango zaie indarretan sartzen denetik emandako berariazko ebazpenei.

d) 241.1 artikulua ezarritako argitalpen elektronikoa indarrean sartuko da foru arauan halaxe ezartzen denean.

e) 244.6 artikuluko idazkera berria aplikagarria izango zaie indarretan sartzen denetik emandako ebazpenei.

6. Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergei buruzkoak, bere VI. tituluaren ezarritakoa aplikagarria izango da foru arau hau indarrean sartu baino lehen hasitako prozeduretan, baldin eta, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergei buruzkoak, bere 248. artikuluko 1. idatz zatian aipatutako adierazgarriak agertuz, data horretarako artean ere erruduntasun testigantza jurisdikzio eskudunari helarazi ez bazaio edo espedientea fiskaltzari igorri ez bazaio.

7. Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergei buruzkoak, bere 256. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, zerga administrazioak erantzuleztat jo ahalko ditu, manu horretan azaltzen diren aurrekariak aintzat hartuz, zergen arau hauste baten eragile edo laguntzailea diren pertsonak, baldin eta formalki arau haustea egin dela ezin izan bada adierazi foru arau hau indarrean sartu aurretik ogasun publikoaren kontrako delitu baten zigor prozesuaren tramitazioaren ondorioz.

Bigarrena. Lehentasuneko partaidetzen eta zor tresnen zerga araubide iragankorra.

Foru arau honetako 10. artikulua ezarritakoa indarrean jartzeak ez du aldatuko data horren aurretik jaulkitako lehentasuneko partaidetzei eta bestelako zor tresnei aplikagarri zaien zerga araubidea.

Hirugarrena. Enpresak, akzioak eta partaidetzak langileei eskualdatzeko zenbait eragiketari 2016an aplikagarri zaion araubidea.

1. Zergadunek 2016ko urtarrilaren 1etik foru arau hau indarrean jarri arteko epean eskualdatu badituzte Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 6. artikuluan aipatutako entitateen akzioak edo partaidetzak enpresan edo sozietate taldeko enpresan edo enpresetan lanean diharduten langile bati edo batzuei, aplikagarria izango dute 2016ko abenduaren 31n indarrean dagoen azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoa, edo 17.2 eta 41.2 c) eta d) artikuluek ezarritakoa, betiere 2015eko abenduaren 21n indarrean egondako idazkerarekin bat.

2. Langileek 2016ko urtarrilaren 1etik foru arau hau indarrean jarri arteko epean eskuratu edo harpidetu badituzte akzioak edo partaidetzak lan egiten duten entitatean edo sozietate taldeko beste batean, aplikagarria izango dute 2016ko abenduaren 31n indarrean dagoen arautegia edo 47. artikuluko 1. idatz zatitako b) letraren azken paragrafoa, betiere 2015eko abenduaren 31n indarrean egondako idazkerari jarraikiz.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean sartzea

Bat. ALHAOn argitaratu eta hogeita hamar egunera sartuko da indarrean foru arau honetako I. titulua.

Bi. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean foru arau honetako II. titulua eta aplikagarria izango zaie 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldiei.

Hiru. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean foru arau honetako III. titulua, haren artikuluetan ezarritako berariazko ondorioen kalterik gabe.

Lau. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean foru arau honetako IV. titulua, ezarritako berariazko ondorioen kalterik gabe.

Bigarrena. Gaikuntza

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 16a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**